

Badaukazu hitza. Zeren bila zabilta? Giltza!  
Erreminten gisakoak dira hitzak. Tresnaren aurrean ez dugu galdetzen: zer da?, baizik eta: nola erabiltzen da?  
Argitu eta osatu behar direnak ez dira hitzak, esaldiak baizik.  
Formak organikoa bihurtzen du ideia. Eta formak funtzioa du. Eta eragiketak ondorioa.  
Organismo biziduna da hizkuntza. Mintzo direnen eskubideak ditu.

## *mintzoa, signoa, kultura, boterea*

Mintzoa dugulako gara gizakiak. Mintzoak definitzen du gizakia.  
Eta hizkuntzak definitzen du kultura, eta kulturak herria.  
Euskara dugulako gara euskaldunak Euskal Herrian (eta munduan).  
Euskarak eta kulturak egiten gaituzte berezi eta bakar munduan.

### **HIZKUNTZA GAITASUNA:**

Hizkuntza gaitasuna ez dator ikastetik, **jaiotzetikoa** da.  
Gizakiak berez dakar, denok dugu gaitasun hori, berdin dio munduko  
zein tokitakoa izan edo zein garaitakoa izan.

Horregatik esan ohi da:

**geure baitakoa** delako, **denok** dugulako,  
**unibertsala** da hizkuntza gaitasuna,

Hizkuntzak, noski, ikasi eta ahaztu egin litezke

**konbentzio** batzuk direlako, estandar eta eskema batzuk,  
**sistema sozial** batzuk, eredu eta arau adostu batzuk.

### **MINTZOA GARA:**

Hizkuntzarekin egiten ditugu harremanak, hizkuntzaren bidez elkar ezagutzen  
dugu, hizkuntzarekin gara kooperatiboak, hizkuntzaren bitartez gara sortzaileak.

**Pentsagarria dena edo pentsatzen duguna**, komunikagarria dena edo  
komunikatzen duguna, **hizkuntzaren bidez egiten dugu**.

Hizkuntzazkoak gara.

Hala ere, ausartu al gaitzke esaten...?:

Berez hizkuntza ez da existitzen, hiztunak dira existitzen direnak.

Edo... ez da literatura existitzen, idazleak baizik.

Edo... ez da kantua existitzen, kantariak baizik.

(Edo... ez da gaixotasuna existitzen, gaixoa baizik. Etc).

Solaserako eta eztabaidarako dibertimendu bat izan liteke kontu hori.

Edozein modutan,

hiztunak garelako eta hizkuntzarekin adierazten ditugulako pentsamenduak,  
asmoak, desirak, sentipenak, akzioak, esperientziak, oroitzapenak, zalantzak, gezurrak,  
trukeak, eta abar, **mintzoa gara**.

## HITZAK ETA EKINTZAK:

Nor gara?: Hitzak eta Ekintzak.

Hitz egitea bera ekintza bat da.

**Gorputz osoarekin** egiten dugu ekintza hori.

Hats / Hots / Hitz egiten dugu arnasaz, egiten dugu taupadaz, egiten dugu ahoz, egiten dugu belarriz, egiten dugu buruz, egiten dugu begiz, egiten dugu keinuz, egiten dugu mugimenduz...

Nork berea du gorputza, baina denona da hizkuntza.

Honexegatik jabetu behar genuke denok hizkuntzaren aberastasunaz.

Horrela ibiliko gara askatasun gradu handiagoz jendartean.

Eta, aldi berean, aberastasun eta askatasun maila horrek lagunduko digu mugak gainditzen eta geure mundua zabalagoa egiten.

**Errealitatea eraikitzen** dugu lengoaiaren bitartez, eta era horretan sortzen dugu beste mundu bat (“bigarren” errealitate bat): **adieraziaren mundua**, ingurukoekin partekatzen duguna.

Komunikazioan, kooperazioan, komunitatean trukutzen ditugu hitzak eta ekintzak: komunitatearen onarpenarekin edo ukazioarekin.

Komunitateak **kategoriak** ezartzen baititu.

Hitez eta Ekintzez **komunikatzen** gara. Eta komunikazio **forma** bat da **kultura**. Komunikazioa aberastea da kulturaren helburua, baina ez komunikazioa tratatzea edo oztopatzea edo ukatzea.

Komunikatzeko **estilo** bat ere bada kultura. Eta kulturaren bidez jendearen arteko **elkar ulertzea plazer** bat izan dadin lortzen dugu.

Mintzoak, hizkuntzak, komunikazioak (gorputzarekin egiten dugun horrek) gure esperientziak, ezagutzak eta jakintzak fundamentatzen ditu.

Baina ez hori bakarrik, izan ere, gure desiren eta pasioen funtsean dira mintzoa, hizkuntza, komunikazioa; gure helburuak, gogoak, sentipenak, zalantzak hizkuntzaren bidez partekatzen ditugu.

**Batera datoz ezagutzak eta sentimenduak.**

Nola komunikatzen dira haurrak helduekin? Nola komunikatzen dira gizonak eta andreak elkarrekin? Nola komunikatzen dira atzerritarrekin?

Jendarte honetako edo besteko pertsonak nola komunikatzen diren aztertuz gero eta ulertuz gero, jakingo duzu **nola bizitzen eta hiltzen** diren, nolakoak diren, **nor diren**.

Baina har dezagun kontzientzia, ez dezagun sekula ahaztu: hizkuntza **boterea** ere bada. Hizkuntza eta komunikazioa menderatzen dituenak **tresna ahaltzuak** ditu: errealitatea baldintzatzeko tresnak, errealitatea eraikitzekeo tresnak, komunitatea gobernatzekeo tresnak, kategoriak ezartzeko tresnak.

**Sistema** sozial bat da hizkuntza, zeinu eta ikur bidezko konbentzioa.

Sistema guztiek joera dute **ordena** bat izatekoa.

Eta sistemen ordena eta **kontrola** bere egiteko ahalegina egiten du botereak.

## PERFORMANCEA:

*Berria* egunkarian Itziar Ugartek elkarrizketa egin zion **Esther Ferrer** artistari, 2019ko maiatzaren 23an argitaratua.

GALDERA: Ekintzen denbora neurtzea bada musikatik etor daitekeen zerbait.

ERANTZUNA: Bai. Nik ekintza bat pentsatzen dudanean *partitura* deitzen dudan orri batean hasten naiz lanean; seguru asko, horrek guztiak eraginda izango da. Paperaren gainean, ekintza pentsatzean eta idaztean, erritmo bat ematea gustatzen zait.

Denbora  
Musika  
Ekintza  
Partitura  
Orria. Papera  
Lana  
Ekintza pentsatu. Ekintza idatzi  
Erritmoa

Esther Ferrerrek hitz oso gutxirekin erakutsi zigun lan egiteko modua:  
hitzez sortzen ditu ekintzak,  
pentsatzeaz batera idazten ditu partitura erritmikoak.

## ORAIN:

Iruditzen zaigu ez dagoela oraindirik, segituan igarotzen dela (irauten ez duelako), iragana bihurtzen dela berehala.

Baina **akzioa denbora da** eta **presentean** gertatzen da.

Beraz, presenteak **forma dauka**; forma horrexek ematen dio intentsitatea, akzioaren formak energia kontsumitzen duenean (transformatu).

Formaren **pertzepzioa presentean** gertatzen da baita ere. Eta pertsonak beti zerbait espero duenez, harritu egin liteke formarekin, kilikatu edo beldurtu.

Lotan ere bizi dugu presentea. Amets egiten dugu: formak. Eta harritu egin gaitzke, kilikatu edo beldurtu.

zeinen atsegina lo egitea, atsedena; zeinen ederra esnatzea, emozionantea.

Zer da etorkizuna?: oraindik forma hartu ez duen akzio posiblea, probablearen aukera ezberdinekin nahaspilan; oraindik ordenatu ez den denbora, transformatzear dagoen hura.

## FORMA:

**Formak organikoa bihurtzen du ideia.**

**Eta formak funtzioa du.**

Orain... zer esan?, zer egin?

## HIZKUNTZAREN GARAPENA:

**Etapak** bereizi ohi dira lengoaiaren garapenean:

- A/ emoziozko oihuak (oinazeak eragindakoa, adibidez),
- B/ imitaziozko oihuak,
- C/ komunikazio oihuak,  
beste espezieetan ere badira goiko **hirurak**, A-B-C;  
harik eta pixkanaka gizakia...
- D/ mintzora iritsi arte.

## MINTZAIDEAK:

Hizkuntza **artikulatuaren** eta **egituratuaren** bidez aditzen dugu:

- 1/ Nork bere burua aditzen du.
- 2/ Batzuek besteei aditzen diete.

1/ Nork bere burua aditzen duenean bi gauza gertatzen dira aldi berean:

- A/ bere burua ezagutzen du (eta batzuetan bere burua zuzentzen du),
- B/ baina beste bat bihurtu dela ere ohartzen da:  
esaldi multzoak atera dira gorputzetik kanpora, arnasez, ahotik.

2/ Batzuek besteei entzuten dietenean gauza asko gertatzen dira aldi berean:

- A/ esandakoa ulertzen dute, kode bera dutelako;
- B/ esandakoa ez dute ulertzen,  
hizkuntza edo mintzaera ezberdina dutelako;
- C/ esandakoa ez dute ulertzen,  
ados ez daudelako edo  
ezagutza maila antzekorik ez dutelako;
- D/ eta abar.

## HIZKUNTZAREN MEMORIA:

Soinuen bidez mintzo gara.

Soinuak artikulatuz mintzo gara: **soinuak egin eta konbinatu**.

Osagai akustiko antolatu horiek jokatuko dituzte eta sortuko dituzte kontzeptu ezberdinak (eta berriak).

Hizkuntza, ordea, ez da bakarrik adierazpidea eta adierazpena. Ez da bakarrik soinuen konbinatoria bat eta kontzeptu batzuk esatea.

**Informazioa biltzeko eta gordetzeko tresna** ere bada hizkuntza.

Gure kode genetikoa da gauza bat (hor gordetzen dugu gure gorputzaren informazioa), eta beste bat da hizkuntzak biltzen eta gordetzen duen **korpua**: ezagutza sorta handi bat, hitz egituratuen sorta bat, **memorizatua**. Eta horri deitzen diogu **kultura**: ezagutzen metaketa (geneetan idatzi gabea).

Gaur egun, gainera, ikurren bitartez ere komunikatzen gara, alfabetoari esker: **zeinuak idatzi eta konbinatu**.

Zer da alfabetoa?: gizakiaren lehendabiziko grabagailua da alfabetoa, ondoren grabazio moduak izan ziren bezalaxe notazio matematikoa edo notazio musikala.

Alfabetoaren bitartez etorkizunean eta etorkizunekoekin komunika gaitzeko.

## **ORGANISMO BIZIAK:**

Organismo biziak eta oso konplexuak dira hizkuntzak.

Bizitza gordailu oso handiak biltzen dituzte hizkuntzek.

Biltzen dituzte jendeen kontu mespretxagarri asko, historiaren zakar multzo erraldoiak, bortxakeriak eta krimenak eta tragediak (bai), baina baita ere, berdin, maitasun eta duintasun eta edertasun ahalegin miragarriak.

Ahantzuraren aurkako hesi airezko eta soinuazkoa da mintzaira: gogoaren distira.

Komunitate bateko hizkuntza erabileran berbak anbiguoak eta lausoak bihurtzen hasten direnean, estiloa eta edertasuna eta zehaztasuna ordez nagusitzen dira erretorika eta kliseak, zehaztugabetasuna eta topikoak. Eta orduan hizkuntzak utzi egiten dio **abentura** bat izateari, orduan hizkuntza bizia bihurtzen da mintzo mordoiloa.

Esan ohi dugu, filologiak testuinguru terminologiko batean kokatzen dituela hitzak; ongi da, horrek hizkuntzari formaltasun bat ematen dio, baina ez **forma** eta ez **estiloa** eta ez **bizia**. Horrexegatik miresten ditugu idazleak, bertsolariak, kantariak, musikariak, dantzariak, aktoreak, artistak... gogoaren distirak.

Ez etsi: hizkuntza murriztu eta makaldu egiten dutenenganako mendekua hartuko dute elelderren langileek, bihar ez bada etzi.

## **HIZKUNTZAREN ESKUBIDEAK:**

Eskubiderik ba ote dute hizkuntzek? Bai: hiztunen eskubideak.

**Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala** 1996ko ekainean sinatu zen Bartzelonan. Eta manifestu berri bat erantsi zioten 2011ko maiatzean Gironan:

1— Hizkuntza aniztasuna balioetsi eta babestu beharreko munduko ondarea da.

2— Hizkuntza eta kultura guztiekiko begirunea oinarritzkoa da munduan eztabaida eta bakea eraikitzeke eta mantentzeko prozesuan.

3— Pertsona guztiek ikasten dute hitz egiten bizitza, hizkuntza, kultura eta nortasuna ematen dien komunitate baten bihotzean.

4— Hizkuntza ugariak eta hitz egiteko era ugariak ez dira komunikaziorako bide soilak; pertsonak hazi eta kulturak eraikitzen diren ingurunea ere badira.

5— Hizkuntza komunitate bakoitzak eskubidea dauka bere lurraldean hizkuntza hori hizkuntza ofizial bezala erabiltzeko.

6— Lurraldeko hizkuntza komunitateak mintzatutako hizkuntzaren prestigioari lagundu behar dio eskola-hezkuntzak.

7— Desiragarria da herritarrek zenbait hizkuntzen ezagutza orokorra izatea, horrek enpatia eta irekiera intelektualari laguntzen baitio, eta norbere hizkuntza hobeto ezagutu dadin laguntzen du.

8— Testuen itzulpena oso garrantzitsua da pertsonen artean elkar ulertzeko eta begirune handiagoa izateko.

9— Hedabideak bozgorailu pribilegiatuak dira hizkuntza aniztasuneko lanak egiteko eta horren prestigioa eraginkortasunez eta zorroztasunez hazi dadin.

10— Norberaren hizkuntza erabili eta babesteko eskubidea onartu behar dute Nazio Batuek, oinarritzko giza eskubide gisa onartu ere.

## **IZENDATZEAZ** (kontu kontari):

Haurra jaio baino lehen ipini genion **izena**. Eta haurra jaio zenean aldatu nuen nire abizenaren **grafia**, harentzat (eta bide batez neuretzat).

Mendiek eta errekek izenak dituzte. Herriek eta auzoek izenak dituzte. Kiroldegi eta liburutegi eta musika eskola batzuek ere bai.

**Toponimiaz** arduratzen dira batzuk, **talasonimiaz** beste batzuk, eta **bionimiaz** ere bai. Zuhaitzen izenak beti dira ederrak, animalienak bezain. Latinarekin maiteminduta daude botanika eta zoologia. Askori gehiago gustatzen zaigu anatomia, psikologia pixka batekin.

Gaztetan elementu kimikoen **izen** eta **sinboloak** ikasten genituen (Wolframa!), munduko herrialdeen monetak eta kapitalak (Reikjavik!), automobilen markak beren abizenekin (Ford *Fiesta* eta Renault *Laguna*); eta bildumak ere egiten genituen: futbolarien kromoak, aktoreen eta musikarien argazkiak karpetetan...

Urteak aurrera, ohartzen hasita gaude organo, zain, gihar, hezur, fluxu bakoitzeko zenbat gaixotasun mota dagoen: edozein unetan aukera ditzakezu horietako izen batzuk, hiltzen hasteko.

Zorakeria bat litzateke niretzat botika-denda batean lan egitea; pentsa, ahazten ari zaizkit nobeletako pertsonaien izenak eta musika taldeenak eta pintoreenak eta filosofoenak..., horreur!

Aizu, gaixotasunak baino botika izen gehiago dagoen garai honetan... ez al dago gaur egun musika mota gehiago koloreak, umoreak eta sentimenduak baino? Zuri ze musika mota gustatzen zaizu? (seduzitzen hasteko modu bat dira galderak).

Ofizio bakoitzak dauka bere **hiztegia**: **altxor** eder bat. Iturgina zen aitona bat eta elektrikaria bestea, arotza osaba; amonak, baratzean eta sukaldean; ingeniaria da yoga eskolak ematen dituen arreba, eta piano irakaslea da andrea. Zenbat hitz ikasteko!

Oskar Alegria adiskideak dagoeneko ehun hitz euskarazko bilduko zituen *tximeleta* esateko; Vladimir Nabokov idazleak bazekizkien horietako zazpi, euskal hiztegi bat behintzat bazeukan-eta (*miserikoletea* gustatzen zitzaion, baina *mitxeletea* ere idatzi zuen).

Aizu, **zein izen duzu?** (horrela hasten dira tratuak eta sedukzioak).

Eta zuri... zer gustatzen zaizu gehiago: **sinonimia** ala **polisemia**? (trukean edo jolasean segitzeko galdera izan liteke, ia limurtzailea, ia erotikoa).

Baina zuek... zeren arabera jartzen dizkiezue izenak txakurrei edo katuei? Eta goitizenak adiskideei eta arerioei?

Gauza guztiei ipintzen diegu **marka** bat edo **deitura** bat.

Android, Google, Spotify, YouTube, Instagram, WhatsApp; gureak dira orain Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Iratzeder, Txillardegia, Atxaga baino gehiago. Ba al dakizu?: Gabriel Arestik kale bat dauka Donostian, baina ez dute Txillardegirik nahi. Generalisimo Francon bizi izan nintzen ni (ez zara gogoratzen?, hara bidaltzen zenizkidan amodiozko gutunak), eta Victor Pradera eta Calvo Sotelo eta Primo Rivera kaleetan bizi ziren ikastolako lagun batzuk.

Ikastola... aditza, zenbakia, abestia, olerkia, margoa, antzerkia, egutegia, hegazkina, ikurrina, aberria, batzordea, lehendakaria, gudaria, espetxea, Euskadi... hitz **asmatu** ugarik izaten dute arrakasta mailaren bat hizkuntza guztietan. **Neologismoz** betetzen ari zaizkigu esaldiak eta ideiak, **teknizismoz** eta **maileguz**.

Hitz berrien egarri gara, mundu berriak sortzearen. Gosea eta desira bezain amaiezinak dira **izendatzen segitzeko gure grina eta premia**.

Lexikologoari libidoa pitzen ote dio poetak goizero? Oi, ze ondo!

## **JAIOTIZENAZ:**

Izenek **balio sinboliko** handia daukate identitateak eta rolak eraikitzerakoan (abizenek karga historikoa ere bai batzuentzat). Horregatik laburdurak eta izengoitiak erabiltzen dituzte askok (bi abizen ere bai). Gure gorputzetan, nortasunetan, harreman sozialetan eragina dute izenek. Geure **izenen jabeak** izateko eskubidea daukagu.

Epizenoak, izen mistoak, izen ez binarioak, izengoitiak, izen berriak... behar izaten ditugu. Ez digute beti balio amak, gurasoek, apaizak jarritako izenek, ezta ere generoak bereizten dituzten izenek.

Euskaltzaindiak bi generorentzat onartu ditu *Alai*, *Haize* eta *Nahi* izenak adibidez, baina andreen izendegian bakarrik sartu dituzte *Alaia*, *Haizea* eta *Nahia*. Izendegiko ponte izen (bataio izen) gehienak sexuaren arabera bereizita daude.

Generoen araberako sailkapenik gabeko izendegira iritsiko ote gara noizbait?

Sexuaren araberako bereizketa desobeditzeko proposamena eginda dago.

Eguneko kezka sozialari erantzun behar genioke izendegiarekin.

## **KALE IZENAK:**

Getariako liburutegian lan egiten dut arratsaldetan. Han sartu baino lehen kafea hartzen dut Kale Nagusiko tabernaren batean. Ondoko kaleen izenak alde zaharrean dira: Aldamar, Elkano, Arnao, San Roke.

Zarautzen zortea izan genuen; San Inazio moduko pertsonaia historiko, militar eta erlijiosorik ez dugulako herrian, plaza handiren bat okupatzen; baina batez ere, frankismoaren ondoren, erabaki zutelako herriko kale nagusien (luzeenen eta paraleloen) izenak izatea: Nafarroa, Gipuzkoa, Lapurdi, Bizkaia, Araba eta Zuberoa. Eta izendegiak halako nortasun bat ematen dio herriari, bere gorputzari, etorkizunean proiektatzeko. (Dena den, zenbat gizon izen Zarauzko kaleetan ere, eta eskulturak: Lizardi, Escudero, Basarri).

## **OSASUNA:**

Bilbao Exhibition Centre (BEC) 2004an zabaldu zuten Barakaldon.

Basque Culinary Center 2009an Donostian.

Erdal izenak ipintzea kontu arrunta zen XIX. eta XX. mendeetan ere. Baina Iruñeko Sportiva futbol taldeari izena aldatzea erabaki zuten 1920an: Osasuna (Athletic Club, Real Sociedad, Alaves baino apur bat hobeki, ezta?), eta Sportivaren elastiko zuritik Osasunaren gorrira igaro ziren.

## **NON GAUDE?**

Nafarroa eta Behe Nafarroa bereizten ditugu. Edo Goierri eta Beterri.

Bat goian eta bestea behean daude mapari begiratuz gero (alderantziz?, ez!).

Bestalde... barkatu, baina, Bizkaiko Itsasoa edo Kantauri Itsasoa edo Gaskoinako Itsasoa edo nola arraio deitu behar diogu *gure* lurra bustitzen dituen itsaso honi?

### BERTSO bat... zerrendatzen:

Hamarreko txikia, Leire Bilbaoren *Piztipoemak* liburutik (2016):

bisigua legatza / berdela sardina  
muxarra txitxarroa / dontzeila lupina  
korrokoia lantzoia / liba izokina  
papardoa zarboa / erla barbarina  
itsaskabra paneka / ta muxu-martina!

### POEMA bat... mintzoaz:

Jose Luis Otamendiren *Disoluzio agiriak* (2019) liburutik zati bat:

mahaiaren inguruko solasak diost  
hitzez eskas nabilela  
ez dakidala gorritzen ari diren hostoen izenik  
ibai sutuaren azalean zure poza igaro dela  
distiratsu bai  
baina gertu eta eskuragaitz:  
beste poesia molde bat behar du une honek  
beste poesia molde bat behar du herri honek  
eta ez daukat nik  
jada ez dago hemen  
dena mintzo da baina  
nire aldiaren seinaleak ez ditut barrundatzen

### ANTZERKIA... hitza eta ekintza:

Obraren hastapenean, Hamleten aitaren mamuari zergatik behin eta berriz eskatzen dio Horaziok mintza dadila: “**Nor zara zu?**”. “Mintza zaitezen agintzen dizut”. “Ahotsik baldin baduzu, hitz egidazu!”.

Bost bider eskatzen dio Horaziok: **hitz egidazu!**

Zergatik? Izenik gabe ez delako norbait?

Edo mintzorik gabe mamua ez delako inor?

Edo mamua mintzatzen ez baldin bada ezin direlako abiatu konspirazioa, mendekua, akzioa?

Errege hildakoaren mamuak (Hamlet printzearen aita Hamlet erregeak) isilik segituko du ordea, Horaziori erantzun gabe. Eta alde egingo du.

Horrelaxe hasiko dira *Hamlet* antzezlaneko kontakizuna eta suspensea: **agerpen** batekin, **galdera** batekin, **agindu** batekin eta **isiltasunarekin**.



## **ISILUNEA (ISILALDIA, ISILTASUNA):**

Hitzaren eta ekintzaren artean beti izaten da **isilunea**, isilaldia, isiltasuna, pausa, etena, atsedena... edo gutxienez entzutea, aditzea.

**Ahozkoa** da mintzoa, baina **belarrizkoa** aldi berean.

Izan ere, entzutea eta aditzea mintzoaren parte dira: solaserako, trukerako, kooperaziorako, gogoetarako, pentsamendurako, zalantzarako, ukaziorako, sentipenerako, eta abar.

Isilunerik gabe ez dago hitzik.

**Hitza eta isilunea, biak dira bat**, ezin da bat izan bestea gabe.

Isiltasuna eta hitza ez baitira aurkakoak, biak dira akzioa, biak dira adierazleak, eta bien konbinaziorik eta kooperaziorik gabe ez da existitzen diskurtsoa.

Adibide xume bat...

Kantariak eta musikariak ikasten duten lehendabiziko gauza da: isilunea. Kantuaren edo melodiaren aurretik eta ondoren ez dago kanturik edo melodiarik, baina kantuaren eta melodiaren barruan ere bizi da isilunea, noski.

Zertaz mintzo gara isiltasunaz mintzo garenean?

Galderan dago erantzuna (esan lezake edonork).

Galdera hau gogoetuz eta esperientziez beteta dago (liburuz beteta ere bai).

Hitzez mukuratu dago isiltasuna, isilaldiko bizitza bete-beteta dago barne mintzo.

**Lengoiatik kanpo, ezin pentsatuzkoa da pentsamendua.**

Isilik gaudenean benetan ba ote da hitzik gabeko unerik gure gogoan?

Eta lo gaudenean? Edo musuka ari garenean? Edo jaten ari garenean?

Isilik gauden uneetan nola aditzen ditugu euri zaparrada, erreka jarria, itsasoaren burrunba? Soinua eta zarata aditzen jartzen garen une horietan zer bihurtzen ote da gure baitako mintzoa?

**Isilunea, isilaldia, isiltasuna...** ez dira soinuaren modalitateak bakarrik, baita ere **adierazpenaren modalitateak**.

Eta esan ohi da: badu halako dentsitate bat isiltasunak, ezen kontzientzia inarrosi edo kolokan ipin baitezake; eta zergatik ez, kontzientzia aldatu ere bai. (Bai ote?).

Hitz egitea ez da nahikoa komunikazioan, baldin eta besteak ez badu astirik entzuteko, ulertzeko, erantzuteko. Biak dira derrigorrezkoak komunikazioan: ezinezkoa da ez hitz egitea eta ez isiltzea, elkarri aditu ahal izateko.

Elkarrizketak (hizketak), beraz, protokolo bati jarraitzen dio; hitzaren akzioaren eta isilaldiaren akzioaren arteko arau suerte bati esker solastatzen gara.

**Isilunea da hizketaren espazioa eta denbora.**

Isilunea da musikaren espazioa eta denbora.

Hitzez eta isilunez osatzen denez solasaldia, pertsona bat isiltzen denean ez du esan nahi komunikatzeari utzi egin dionik. Isiluneari esker gertatzen dira adierazpen jarria, begiraden eta emozioen trukea.

**Isilaldia da komunikazioaren modulatzaila.**

Mintzatzearen artea ez da hizketan jakitea bakarrik, batez ere da une egokian isiltzen jakitea (uneak eta diskurtsoak partekatzea).

## HITZ ETENAK:

Subordinaziozkoa da (eta subsidiarioa batzuetan) emakumezkoaren hitza gure jendarteetan. Gizonezkoek hartzen dute hitza, gogo txarrez uzten dute, erraz eteten dute andrazkoaren solasa, etc.

Don Zimmerman eta Candace West:

“Sex roles, interruptions and silences in conversation”, 1975.

Zimmerman eta West ikerlari usatarrek 10 elkarrizketa aztertu zituzten komunitate unibertsitario batean. Batzuk andrazkoen artekoak, beste batzuk gizonezkoen artekoak, beste batzuk gizon-emakumeen artekoak.

Ondorio argiena hauxe da:

**solasaldiak eten** izan zirenetan, **%98 gizonezkoek** eten zituzten.

Gizonezkoen arteko solasetan etenak 7 bakarrik izan ziren; eta berdin, andrazkoen artekoetan 7 bakarrik.

Gizon-emakumeen arteko solasaldietan, ordea, 48 eten izan ziren, ia denak gizonezkoek eginak.

Baina emakumezkoek ez zuten protestarik egin, eta gainera ez zuten ahaleginik egin solasari berriz ekiteko.

## ZER EGINGO DUZU?

Luis Arana Goirik eta Lezo Urreiztietak asmo bitxi bat eduki zuten: gerraostean erbestean sakabanatuta zeuden euskaldunentzat irla bat erostea Mexikoko uretan (Cardenas presidentearekin ere mintzatu omen ziren) eta errepublika bat sortzea, Euzkadi Berria.

Lezo Urreiztietak esaten zuen irla hartan euskaraz baino ez zela hitz egingo.

Urreiztietak euskararik ez zekienez, txantxetan galdetzen zioten:

—Eta zuk, Lezo, zer egingo duzu?

—Isilik egon!

## ESATEAK DAUZKA:

- 1/ subjektuak
- 2/ substantzia edo soinuak
- 3/ ekintza edo mugimendua
- 4/ denbora eta taupada
- 5/ forma edo haria
- 6/ ideia eta memoria
- 7/ objektua edo tresna
- 8/ funtzioa eta asmoa
- 9/ kontestua eta markoa
- 10/ bidea edo bidaia
- 11/ esan eta entzun
- 12 / isilunea eta zarata

## **ZARATA:**

Hitzaren & ekintzaren & isilaldiaren artean beti izaten da **zarata**.

Hain zuzen, entzute-aditzearen eta mintzoaren parte dira zaratak ere.

Zarata deitzen diogu **perturbatu** (eten, asaldatu, nahasi) egiten duen osagai horri. Komunikazio prozesuan era askotako formak dituzte zaratek.

Hegazkin baten edo automobil baten burundara, edo musika altuegi dago nonbait, edo zaunka ari da zakurra; eztul bat edo irriak edo aharrausi bat antzokian; edo gure aldamenean izaten ari den beste solasaldi bat; eta abar.

Testuetan ere izaten dira zaratak: esaldiren bat azpimarratuta ageri da edo gainean egindako marraz ezabatuta; edo iruditxo bat edo ikono bat edo inzialen batzuk edo marka batzuk egin ditu norbaitek afixa baten edo letrero baten gainean.

Baina zarata deitzen diogu baita ere psikologikoari eta sozialari: barnekoia den entzuleak agian zarata batzuk izan litzake bere baitan, edo beldurtia den hizlariak, edo torturatua edo bortxatua izan denak, edo borrokan eta liskarrean ibili berriak, edo botikak edo alkohola hartu dituenak.

Pertsonen arteko distantzian ere gerta liteke zarata: gurasoa-haurra, sendagilea-gaixoa, nagusia-morroia, irakaslea-ikaslea, ezaguna-ezezaguna, etc.

Edo gerta liteke: deigarria den pertsonaren bat ikusi dugu gugandik hurbil, edo elefante bat igarotzen ari da hementxetik...

Zarata mailaren bat izatea saihestezina da hizketaldian (eta oro har komunikazio prozesu guztietan). Eta zaratak ere eragina izan dezake, isiluneak bezalaxe, komunikazioaren testuinguruan.

## **ERREDUNDANTZIA:**

Hitzaren, esaldiaren, mezuaren, ideiaaren, keinuaren **errepikapen** mailaren bat izatea ere saihestezina da komunikazioan.

Informazioaren errepika horri deitu ohi diogu **erredundantzia**.

Badakigu: ahozko hizkuntza askoz erredundanteagoa da idatzizko hizkuntza baino. (Eta erredundanteagoa da letrazkoa, zenbakizkoa baino).

Esan ohi da, oro har %50 baino gehiago direla erredundanteak ahozko lengoaiak. Eta elkarriketa informaletan iritsi liteke %85 arte osagai erredundanteen kopurua.

Hizketan erredundanteak izango ez bagina, eta esaldiak & mezuak & ideiak adierazten oso sintetikoak izango bagina, entzulari atentzio oso zorrotza eskatuko genioke, eta haren kontzentrazio maila agian behartu edo bortxatu egin genezake (edo aspertu!).

## **GORPUTZAREN BIDEZ MINTZATZEN GARA:**

Arnasa, taupada, eztarria, ahoa, mingaina, listua, hortzak, ezpainak...; eta belarriekin, begiekin, buruz, bihotzez, keinuekin, gorrituta edo zurbilduta, totelka edo bizi, xuxurlan edo ozen, irribarrez, eskuekin, soin osoarekin...; eserita edo zutik, geldirik edo ibilian, eta abar... gorputz osoarekin mintzatzen gara.

Batzuk lotan ere bai.

Gogoarekin mintzo gara (memoriarekin, adimenarekin, pentsamenduarekin, etc).

Baina gorputzarekin mintzo gara.

Biak dira bat, gogoa eta gorputza.

Tonua, tinbrea, intentsitatea, abiadura, pausak edo isiluneak, azentua, inflexioak eta doinuak, keinuak eta posturak... gorputzarekin datoz, gorputzaren akzioak dakartza.

Gehienetan, **mezu ez berbazkoek** esangura gehiago izaten dute mezu berbazkoek baino. Mezu ez berbazkoetan nagusi izaten da **funtzio espresiboa edo emotiboa**, eta mezu hitzezkoetan funtzio erreferentziala.

Hizlaria, kantaria, bertsolaria, antzezlea, idazlea, kazetaria, itzultzailea, irakaslea, abokatu, psikologoa... hitzaren langile horiei gorputzaldi ona edukitzea komeni zaie (beste langile guztiei bezalaxe).

**Andoni Egañak** artikulu bitxi bat argitaratu zuen *Berría* egunkarian 2019ko apirilaren 18an. **Energia** zeukan izenburua. Hemen lehen bi paragrafoak:

“Boladarik gogorrenetan, esnatu eta artean etzanda nagoela, horixe da egiten dudan lehen gauza: ahotsik badudan frogatu. A, A, A, A! Mi-Sol-La-Si! Barregarria ere gerta daiteke horrelakorik entzutera ohitua ez dagoenarentzat. Neurri handi batean ahotsetik bizi garenontzat, beldurgarria da goizean esnatu eta eztarrian trabaren bat sumatzea, bezperako hitzek eta kantuek, ke eta edari hotzegiek lanerako gutxitu egin zaituztela jabetzea.

“Norbere ahotsa oso gauza serioa da. Hasieran ez duzu gustuko izango. Ez dut pertsona bakar bat ezagutzen estreinakoz bere ahotsa magnetofoi batean grabaturik entzun eta gorroto izan ez duenik. Zure ahotsa moldatzen eta maitatzen ikasiko duzu gerora. Ohartuko zara huraxe duzula ingururako sarbidea. Hark laguntzen dizula nahi duzun hura lortzen. Hura dela zure ezaugarri behinenetarikoa. Zeure-zeurerik zerbait baduzu, ahotsa dela”.

Ez ahazteko ohar labur bat:

**Gorputzak memoria dauka**, gorputzak materia dauka, gorputzak sexua dauka, gorputzak historia dauka, etc. Mintzoak ere horixe guztia dauka, hizkuntzaren baitan jasota daude gorputzaren akzioak eta markak eta oroitzapenak.

## AURPEGIA:

Jakinaren gainean gaude, aurpegiko bereizgarriek (hazpegiak) **juzguak** sortzen dituztela berehala geure kabutan.

Begiak, sudurra, ahoa, masailak, belarriak, ileak (adats, bekain, betile, bilo, bizar)... eta kolpe batean juzguak egiten hasten gara sexuaz, edertasunaz, itsustasunaz, dotoreziaz, graziaz, sentsibilitateaz, aldarteaz (poza, tristura, afektua, harridura, urduritasuna, amorrua, grina, nazka, hurkotasuna, zalantza, disgustua, desira).

Itxura fisikoaren araberako mezu ez berbazkoak ia beti izaten dira maltzurak, arriskutsuak, engainagarriak. “Akats” fisikoak dituzten pertsonak baztertu egin ohi ditugu modu batera edo bestera, eta organoren bat falta izatea edo “desproporzio” fisikoa bereziki deigarriak iruditzen zaizkigu.

Pertsonen arteko komunikazioan aurpegia da gehien markatzen eta erabakitzen duen gorputz atala.

Horregatik agertzen dira aurpegiak beti egunkarietan, afixetan, txarteletan, kromoetan, nortasun ikonoetan, koadroetan, karikaturetan, antzerkian, filmetan, iragarkietan... Hau da nire aurpegia, hau naiz ni, ezagutzen nauzu, hemen nago, zatoz nirekin, izan konfiantza nigan, *eros* nazazu, eman aurpegia, etc.

Argazkia asmatu zen arte, pintoreen artean kotizatuena izaten zen aurpegiak era errealistenean margotzen zituen hura. Argazkia asmatu zenean, denek nahi zuten famili argazki bat atera, etxerako. Adibidez, ezkontzakoa. Gaur egun ezkontzak bidez hartzen dira, eta pixkanaka boladako bihurtzen ari da amoranteen artean sexu praktikak grabatzea. (Ezkontzako fotoa egin badugu edo haurdunaldikoa edo erditzekoa, zergatik ez sexu jolasekoa?).

## BEGIAK:

Aurpegiaren **espresio foku nagusia begietan** datza.

Komunikazioaren giltzetako bat da begizko kontaktua.

Begizko kontaktuaren iraupenaren arabera, adibidez, mezu oso ezberdinak emititzen ditugu. Afektuzko interakzioak begiradetan igartzen dira argi samar. Begiak dira desiraren leihoak.

Beste era batera ere esan genezake: animalia guztietan begiradak zerikusia dauka territorioarekin, defentsarekin, erasoarekin, ihesarekin, etc.

Argiago esan dezagun: **programatuta gaude begietara elkarri so egiteko**.

Eta begiradaren bitartez kokatzen dugu geure burua jendartean.

Zalantzarik gabe, edozein elkarrizketatan kontu berezia da begizko kontaktua.

**Begien dantzaren arabera kudeatzen dugu elkarrizketa** (ez bakarrik hitzez eta isilunez). Begiekin ere **modulatzen** dugu solasaldia. Hizketako txandak emateko balio digu, isiluneak zentzuz betetzeko, komunikazio harremana iraunarazteko edo eteteko.

## **ILEAK:**

**Ileak definitzen du ugaztuna**, lumak hegaztia, eskamak arraina.

Biloak, adatsak, bizarrak... gure aurpegiaren nolakoa markatzen dute nolabait. Eta ileen bitartez ere gure nortasunaren berri ematen dugu.

Are gehiago: ileen bidez igar dezakegu pertsonen adina, sexua, osasuna, estresa, klase soziala, estetika...

Hipiek luze uzten zituzten tximak. Punkiek gandorrek erakutsi zizkiguten. Gaur egun mutilen artean boladako dago bizarra uztea, baina bularreko biloak depilatuta (tabernetan beti dago gizon gehiegi, eta orain gainera bizarrarekin! espazio gehiago okupatzen dute).

Adats luzeak lotuta eraman ohi dituztenek askatu egiten dituztenean, zerbait gertatzen da gure pertzepzioan. Eta ikaratutakoan edo haserretutakoan, ileak laztu edo kizkurtu egiten zaizkigu. Adatsak zapiz estalita ageri dira amabirjinak koadro katolikoetan, emakume islamiarrak ere bai etxetik lekora. Gerra garaian emakumeei adatsak moztzen zitzaizkien, eta borrokan hildako arerioari erauzi ere bai sarritan.

Ileak garbitu, moztu, kendu, margotu, apaindu, orraztu egiten ditugu.

Zenbat apaindegi daude zure herrian?

## **JANTZIAK:**

Mintzoak definitzen du gizakia. Ileak definitzen du ugaztuna.

Eta bizirik iraungo badugu, **janzteko premia dugun bakarrak** gara.

(Noiz galdu genuen ilea?, zer dela-eta?).

Jan eta lo egin behar dugu. Larrua jo erreproduzitzeko. (orain ez derrigorrez).

Baina geure buruaren tenperatura erregulatzeko, janzteko premia daukagu.

(Jan eta *Jantzi*, biak energetikoak; berbera ote da bi hitzen erroa?).

Eta derrigorrezkoa dugunez janztea, geure arteko komunikazioan mezu multzo zabala ematen digu janzerak. Eta aldi berean gure gorputza konformatzen du: nabarmendu, disimulatu, ezkutatu, iradoki, moldatu.

Jantzietan, bestalde, batzuetan hitzezko eta ikonozko osagaiak eransten ditugu: esaldi bat, aldarrikapen bat, ikur bat, marka bat, pegatina edo txapa...

Eta jantziarekin batera datoz, noski: orrazkera (bizarra), ezpain eta begi margoak, betaurrekoak, belarritakoak, eraztuna, idunekoa, eskuturrekoa, pizina... eta era bereziago batean tatuaiak (izan litekeena ikonoa eta/edo sinbologia, "betiko").

## **LARRUAZALA:**

### **Ane Labakaren *Ezpainetakoa* liburutik:**

2018

Lauki formako orritxo fosforitoetan [post-it] ez dira erosketetako zerrendak, egin beharreko enkarguak, entregatzeke daukazun masterreko lanak eta telefono deiak soilik kabitzen. Paperaren ehundurak antzaldatu eta ahaztu nahi genituzkeen baina ahaztu ezin ditugun pertsonen azalak agertzen zaizkigu tarteka, banilla perfumez, izerdi usainez eta karminez margotuta. (...)

Larruazala gara, zerbait izatekotan. Besteak larrutzen ditugu askotan arrazionalki azaldu ezin ditzakegun arrazoiengatik. Azalarekin egiten dugu larrutan eta larrua azaltzen zaigu nonahi. Azala hunkitzen, tenkatzen, erortzen, berritzen, oilo-larrutzen zaigu. Zenbaitek tximeletak, efemerideak, baleak, erlojuak tatuatzen ditu azalean, kanpoaldean. Beste zenbaitek arnasestuak, hotzikarak, hondar aleak eta izerdi tantak daramatzagu barrurago, epidermisaren eta dermisaren artean tatuatuta.

### **Richard Stern-en *Beste gizonen alabak* nobelatik:**

1973

Beti uste izan da gorputza *sentsibleagoa* zela barren-barrenean. Ba ez; lurra bezalakoxea da, azalean dago intentsitatea. Zanpa dezakezu organo bat minik eragin gabe, baina begira egiozu azalari... Gizaki azalaren zentimetro batek ditu: hotzaren detektore sentsorial bi, beroarenak hamabi, hiru milioi zelula, hamar ile, hamabost sebo glandula, odol-hodi metro bat ia, ehun izerdi glandula, nerbio-zuntzen bukaeran hiru mila zelula errezeptore, ia lau metro nerbio, ukimen estimuluetarako hogeita bost presio detektore, oinazea erregistratzeko berrehun nerbio-zelula. Fabrika txundigarri hau gure azalean bakarrik. Ez da harritzekoa gure sentimenduak begien bistan nabarmen agertzea.

### **Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea* liburuko azken poema:**

2000

Bestelako kodea aldarrikatu nahi dut:  
hitzarena ez bezalako kodea,  
hizkera ez-hitzezkoa,  
oroimenean kondenatu ezineko lengoia,  
zinak gezurta ditzakeen berbakera,  
erreklamazio-libururik eta  
tarifa-zerrendarik gabeko mintzo mutua,  
mezu anbiguoz itxuraturiko jario askea,  
adierazi gura ez denaren adierazpidea.

## **%65 EZ BERBAZKOA:**

Buruz buruko gure komunikazio akzioetan %65 ez berbazko izaten omen da, eta %35 berbazkoa edo tonala.

Heren bat bakarrik da orduan hitzezkoa.

Eta bi heren osatzen dute keinuek, gorputz postuak, aurpegiak, begiratuak.

Aurpegiak eta begiratuak berehala adierazten dituzte, adibidez: haserrea, nazka, beldurra, konfiantza, poza, tristura, harridura, ustekabea, zalantza, oinazea, atsegina, ironia, nekea, asperdura.

### **Ahoak isiltzen duena gorputzak esaten du.**

Elkarrizketa bat irratiz entzun edo telebistaz, ezberdina da. Musika diskoan entzun edo bideo-klipean edo zuzenean kontzertuan, ez da gauza bera. Bertsolari txapelketan pantaila erraldoiak ere badaude orain, eta ez dugu “testuaren” juzgua bakarrik egiten. Whatsapp mezuetan emotikonoak erabiltzea oso arrunta bihurtu da. Etc.

**Multimodalak** dira adierazpen emozionalak:

—hitzak... gehi patroia dinamikoak:

—ahoskeraren tonua eta abiadura eta pausak;

—aurpegiak eta begiratuak, gorputz mugimendua, dardara;

—ukimena, hurbiltasuna, tenperatura;

—usaina. (usainen *kontrolatzaileak* botere handia izango du etorkizun hurbilean.)

## **IMITAZIOAZ:**

Identifikazio prozesu baten ondorioz **imitatzen** dugu. Balio emate modu bat da.

Esan ohi dugu gurasoetako baten antzera komunikatzen dela hau edo hura, bai hizkeraz bai keinuz; (haurrak amaren hizkuntza imitatzen omen du aurrena, aita hor zehar dabilelako?: fabrikari, tabernari, jokorekin, lo);

edo pertsuasio efektu baten ondoren, lagunak bezala edo berdintsu hitz egiten dugu, berdintsu gestikulatzen dugu, antzera dantza egiten dugu, (baita ere orraztu edo jantzi);

edo tentsio egoera batean (haserrealdi batean) parez pare daukagunaren amorrutako jarrerak errepikatzen ditugu ispilu joko moduko batez.

## **KONPENTSAZIOAZ:**

Beste batzuetan **konpentsazioa** gertatzen da. Balio emate modu bat da hau ere.

Alegia: hitz iturri bat boteretsua sentitzen dugunean, imitatu ordez, **sumisio** gradu batez jokatzen dugu;

baina agian **dominazio** gradu batez ere jokatzen ahal dugu, hitz iturria apala iruditu zaigunean.

Laburbilduz-1: ez berbazko **balorazio** signifikatiboak egiten ditugu etengabe gure gorputzaren bidez.

Laburbilduz-2: gorputzak infinituak dira. (?)



## **AUTOMATISMOAZ:**

70 urte bizi izan den pertsona batek 2.000 milioi bihotz taupada izan ditu.

### **Automatikoak da gure gorputza.**

Ibilian, ez dugu erabakitzen urrats hau emango dut lehendabizi eta gero beste hau eta hurrena beste mila... helmugara arte.

70 urtetan 645 milioi bider baino gehiagotan hartzen dugu arnasa.

Eta dena horrela.

Begiekin ikusten dugu nerbio sistemari esker, nahi gabe bezala. Entzun ere bai, kasik derrigorrez. Aizu: isilik gaudenean, uzten ote diogu geure baitan hitz egiteari?

## **ZENTZUMENEZ:**

Dastatzen, ukitzen, usaintzen, ikusten eta entzuten duguna errealitatearen zati oso txikia da, milioitik bat agian.

Adibidez: begi bakoitzak 100 milioi zelula ditu argiaren aurrean sentikorrek, baina burmuinera doazen zuntzak milioi bat bakarrik. Ooo!

Ez dezagun ahanzi hala ere, ez ditugula 5 zentzumen bakarrik, **13 zentzumen bai gutxienez** (33 ere bai zientzialari batzuen ustez)... egarria, gosea, hotz-beroa, giharren eta organoen zentzumenak, oreka, mugimendua (kinestesia), oinazea...

Sentitzeko baliabide ugari darabiltzagu. Eta sentitzea ulertzeko modu bat da: gogoratze, gozatzeko, asoziazioak egiteko, ezagutzeko.

## **OROIMENAZ:**

Memoriarekin batera ditugu hizkuntza eta pentsamendua. Gogoa.

Gorputzak bezala, memoria dauka hizkuntzak.

Eta memoriak akzioa du, funtzioa, eragiketa.

Memoriarik gabe kontzientzia kaos bat izango litzateke, beti berriz hasi behar bat. Memoriarik gabe ez da posible hizkuntza (esaldia, mintzoa, ulermena, ikasketa), ezta pentsamendua ere.

Oroitzapenak konbinazio eragiketetan hizkuntzaren bidez, horixe dira gure pentsamenduak (agian).

Hizkuntzaren egiturako parte bat da oroimena, gorputzeko parte bat; besteak beste, automatismoak posibilitatzen ditu, funtzio simultaneoak, etc.

Memoriak ez du bakarrik iragana adierazten; presenteko akzioak oxigenatzen ari da etengabe (odola balitz bezala), eta horrela ahalbidetzen du oraintxe edo berehala erantzutea.

Gure gorputzaren iragana eta gure hizkuntzaren iragana garraiatzen ditu memoriak. Eta gogoratu egiten garenez, erantzuteko prest gaude (automatikoki zein borondatez).

### **Iraganaren etorkizuna dira memoria eta hizkuntza.**

Gure zerebroak 100.000 milioi neurona omen ditu eta 100 bilioi interkonexio. Ez dakiguna da zenbateko memoria gaitasuna duen, zenbat informazio gordetzekoa.

Oroitzapenen dentsitatea ote da haurraren eta helduaren arteko aldea?

## ZEREBROAZ:

Intsektuen buru-gogoa da euren akzioa (their action is the mind), esaten zen lehen; ekintzak balira bezala euren pentsamendua eta egoa.

Zientzialariek orain diote: erleak harrigarriki inteligenteak dira, gai dira zenbakiak ikasteko ere. Bai ote?

Ozpin-eulia, *drosophila melanogaster* da ezagutzen dugun mikromakina aurreratuena, diote zientzialariek. (Zer esan nahi ote du horrek? Auskalo. Melanogaster espezieko euliak analisi genetikorako hautatu ziren lehen organismoak dira, 1910etik).

Zientzialariek konprobatu dute, inurrietan zenbat eta handiagoa izan taldea orduan eta handiagoa da beren burmuinaren tamaina.

## ENTZUN:

Jaten eta edaten dugunaz kezkatzen gara; arnasten dugunaz ere bai, toxikotasun mailak ez dira-eta txikiak. Neurriren batean dena toxikoa denez (araztasuna barne), dosiaren tolerantziaren arabera jokutzen dugu, gutxi gorabehera.

Irudipena daukat, ordea, ez diogula nahikoa garrantzi ematen belarrietatik sartzen zaigunari, diskriminatzea nekagarriegia da; ahoa edo begiak ixtea errazagoa da belarriak tapatzea baino.

Belarria edo entzumena da mintzoaren organo hartzailea: **radar bat**, gorputz osoa den bezalaxe.

Badakigu: bi esku bakarrik ditugu eta horiekin ez dugu gauza asko aldi beren ukitzea lortzen; begiekin ez dezakegu ikusi gure gibelean gertatzen ari dena; baina entzumena eremu zabaletara iristen da. Neurologoek diotenez, garunak jasotzen dituen **estimuluetatik %70 soinuak** dira.

Hainbestekoa da soinu eta zarata kopurua gaur egun, ezen gure belarri pertzepzioa gero eta indiferenteagoa bihurtzen ari baita. Georg Simmel soziologoak horri deitzen zion “blasé jarrera”, aspertua, soraiola (euskaraz *sorgorra* esan dezakegu).

Entzutea, aditzea... asko aldatu da. Orain labur entzun nahi izaten dugu, txaparik ez mesedez. Disko osoa entzun ordez, abesti pare bat aski, eta bost minutukoak ere ez, faborez. Esateko daukazuna kontatzeko hamabost minutu baino gehiago behar badituzu, zerbait oker planteatu duzu. Film bateko aktore baten lau minutuko hizketa aditu zenuela noiz ote da azken aldia?

Edozein modutan, soinuak eta doinuak eta zaratak piztuta edukitzen ditugu etenik gabe. Bihotz taupadarekin hasi eta auto eta mobil guzti hauekin segi... eta segi.

Horregatik erabaki dugu: makina onek ez dute burrunbarik egiten.

## ZU ETA NI:

Mintzo garenean geure burua aditzen dugu, baina ez dugu geure burua ikusten, ez behintzat gure aurpegia, inolaz ere ez geure begiak.

Mintzo garenean besteek ikusten gaituzte, gure gorputzaren espresioez haiek konturatzen dira.

Lagunari noizbait esan diozu: “Haserretuta zaude”.

Eta berak esan dizu: “Zuk zer jakingo duzu nola nagoen ni”.

Gehienok geure burua ispiluan ikusi ohi dugu egunero (ez argazkietan). Eta ispiluan ikusten dugun hori geure simetrikoa besterik ez da, *beste* bat.

Hurkoak ikusten du zure burua sarriago zerorrek baino.

Ez zara bakarrik zeuk uste duzuna, besteek zutaz uste dutena ere bazara.

Baldin bagara, besteekin gara, besteen ondoan, besteentzat, besteen aurka. Indibidualaz gainera, pertsonen artekoak izaten dira pertzepzioa eta komunikazioa: *réciprocité*.

## HAZKUNDEAZ:

Misteriotsua da hazkundera: ume, haur, gazte, heldu... hogeitun urtean transformazio harrigarriak gertatzen dira gorputzeran. Eta beste hainbeste memorian, ulermenean, hizkeran.

Jaioberria zena hogeitun urtean musikaria da, poeta da, pintorea da, (eleanitza da). Eta orain zer?

Zaharrak garenok kezkatuta egoten gara osasunarekin, eta beste batzuk gaztetasuna ez galtzearekin. Eta bitartean gazteak (agian musikaria, agian poeta, agian pintorea) etorkizuna proiektatzen ari dira, baina erremediorik gabe helduak bilakatzen pixkanaka.

Nola gertatzen ote dira gorputz bilakaerak eta transferentzia linguistikoak?; gai hau txundigarria da niretzat, oinarritzkoa.

## KONTESTU BATEAN MINTZATZEN GARA:

Faktore askok parte hartzen du mintzoan edo mezu bat adieraztean.

Faktore psikologikoak, soziologikoak eta fisikoak baldintzatu eta moldatu egiten dute inguru komunikatiboa (baita ere faktore ekologikoak eta biologikoak).

**Kontestua** deitzen diogu horri. (testua eta kontestua)

Eta ingurune horretan parte hartuko dute **aktoreek** (gutxienez bik).

Aktoreak askotarikoak izaten dira, ezagutza eta oroitzapen eta sintaxi askotarikoak. Medikuak, sindikalistak, musikariak, mekanikoak, kimikoak, arrantzaleak, ekonomistak, teknologoak, politikariak, kirol zaleak, nomadak, abokatuak, psikologoak, soziologoak, marxistak, kapitalistak, faxistak... elkarren artean berbetan egoki moldatzen dira, euren hizkera propioak garatzen dituzte.

Landa eremuan bizi edo industria eremuan bizi, jendeak hitz egiteko modu ezberdina duela esan ohi dugu.

Antzera gertatzen da adinarekin: zaharrak eta gazteak ez dira berdin mintzatzen.

Horri guztiari deitzen diogu **soziolektoa**.

Maialen Lujanbiok bere erara hitz egiten du, eta zer esanik ez bertsoan egin. Harkaitz Canok ere badu bere era, eta idaztean nabarmenagoa. Horrek esan nahi du **idiolektoa** dutela. Nork bere hitz multzoak ditu, eta batez ere sintaxi bat, eta ebakera, eta intonazioa, eta keinuak.

Gainera badauzkagu **dialektoak** eta **estandarrik**. Euskaldunok argi asko dakigu hau guztia umetatik, etxetik, auzotik, eskolatik, irrati-telebistak piztu orduko.

Beraz... klase batekoak gara beti, eta uste duguna baino gehiago baldintzatzen gaitu jatorriak, jendarteak, adinak, ekonomia domestikoak, formazioak, lanbideak, giro kulturalak eta historikoak, generoak, sexualitateak, osasunak, komunitateak...

Identitatea, estiloa, rola, komunikazioa, pertsuazioa eta sugestioa, boterea, kooperazioa, konfiantza, beldurra, nazka, nortasuna, berdintasuna, laguntasuna... jokoan daude testuinguru guztietan.

Komunitatean trukutzen ditugu hitzak eta ekintzak: komunitatearen onarpenarekin edo ukazioarekin, kategoriak ezartzen baititu komunitateak.

## DISTANTZIA:

**Elkarrizketaren distantzia da pertsonen arteko distantzia onena.**

Elkarrizketa edo solas trukea hilabete batzuek isileraino etendakoan, gauza asko etortzen dira gainbehera: tratua eta konfiantza, konplizitatea eta arreta, alaitasuna eta kalitatea, informazioa eta emozioa, enpatia eta kreatibitatea. Gero gainera, pixkanaka, sakonagoa egiten da amildegia, lausotu eta mehetu egiten dira garai bateko argia, keinuen konexioa, harmonia, patxada, *ensemble*, adierazkortasuna.

Ez da zehazki jakiten zenbat isil-denboraren ondoren gertatzen den urraketa, ez da jakiten zer geratu den interlokutoreen oroitzapenetan: esaldi trakets bat, giro baten zoria, ezusteko barreak, ekibokazioaren inkorrektzioa, asmatutako termino bat, istant bateko aditz trinkoa.

Distantzia laburrena **denbora** da: denbora laburrena (ez derrigorrez lerro zuzena; Google Maps-ek badaki).

## HIZKUNTZAREN BIDEZ:

1/ Baieztatu, ezeztatu, galdetu, dei egiten dugu. Horregatik... egia esan, gezurra esan, zalantza egin, arakatu, suposatu, pentsatu, laguntza eskatu, promesa egin, agindu, eta abar. Hitzak eta ekintzak.

2/ Mundu berri bat sortzen dugu, beste mundu bat: **mundu sinbolikoa**.

3/ Munduan ez dauden gauzak existitzen dira mundu sinbolikoan: irrealak, fikziozkoak, fantastikoak, birtualak, gezurrezkoak, ukaziozkoak...

4/ Mundu sinboliko horren bidez, beste pertsonen tokia har dezakegu, eta haiek **konprenitzen** ahalegindu: adibidez, kontakizunen bidez, kantuen bidez, antzezpenez.

5/ Hizkuntzari esker adieraz ditzakegu zehaztasun maila batekin gure egoera animikoak; eta horrek lagunduko digu **gogoeta** egiten edo **pentsamenduak** garatzen.

6/ Hizkuntzaren bitartez, ez bakarrik subjektibitatea, baita ere eraiki ohi dugu **objektibitatea**, eta **tresnak**: gurpila, mailua, giltza, idazketa, filosofia, zientzia, etc.

7/ Beraz, hizkuntza ondo samar **menderatzen ez duenak**, ezin du egoki adierazi; eta pentsatzea bera ere zailagoa egingo zaio, eta tresna berriak sortzea edo ezagutzea.

8/ Hizkuntzaren alor batzuk menderatu ezean, **jendartean mugak** sor dakizkizuke, edo zokoratuta geratu, edo ezin konektatu.

9/ Hizkuntzaren maila eta estilo ezberdinekin erreproduzitzen ditugu jendarte **mailak**, eta baita ere jendarte maila horietako **jokalekuak** (ez baikara berdin mintzatzen mahaian eta ohean, etxean eta plazako tabernan, unibertsitatean eta hileta batean).

10/ Hizkuntza da **kulturara** iristeko bide nagusia.

11/ Hizkuntza menderatzen duenak **tresna ahaltzuak** ere baditu; aldatu edo deformatu edo manipulatu egin ditzake egia edo justizia edo jendartea.

## SOLAS EKINTZAK:

*Egitea* da hitz egitea. Zerbait esatean, esate hutsa baino gehiago egiten dugu.

**Ekintza** bat da esatea. Egiteko **forma** bat da esatea. Formak organikoa bihurtzen du ideia, eta esateak (egiteak) organikoa bihurtzen du xedea.

Esatean, aldi berean egiten dugu (*simultanéité*):

1/ zerbait adierazi;

2/ asmoa erakutsi: aholkatu, abisatu, kexatu, salatu, mehatxatu, eskatu, lausengatu... eta abar.

3/ efektuak sortu: konbentzitu, harritu, hunkitu, zalantza eragin, izutu, lortu, poztu... eta abar.

4/ aldartea markatu: irmo, ahul, lotsati, harro, etsitu, kementsu...;

5/ identitateak eta rolak markatu: adina, generoa, klasea, boterea, kultura, estiloa...

## OHEAZ:

Hiru ohe era daude:

A/ gogoan daukazuna, ohearen ideia, edozein ohe edo ohe guztiak; B/ arotzak egindakoa, premiazko artefaktua, zeure burua etzatekoa, atsedean edo atsegin har dezazun; C/ zuk argazkiz hartutako ohearen irudia, edo oihalean margotua, edo idatziz deskribatua, edo abestiz laudatua.

Hiru eratak da plazera ere:

A/ plazer gogoia, plazeraren ideia; B/ gorputzean sentitu duzun atsegina; C/ plazerari buruzko oroitzapenak, pentsamenduak.

Eta hiruren bitartez hurbiltzen gara pixka bat ulertzera zeri deitzen diogun amodioa; idazleek eta kantariek multiplikatu egin dute kontuz eta kantuz; beste batzuek sinplifikatu, esanez psikosi iragankor bat besterik ez dela.

## POLIGLOTA:

Edgar Allan Poeren *Rue Morgueko hilketak* kontakizuna (1841) literaturako lehen detektibe nobela da. Parisko etxe batean andre bat eta honen alaba hil ditu norbaitek: krimen izugarri bat. Nor izan ote da?

Egunkari bateko kazetaria galdezka ibili da eta lekukotza batzuk jaso ditu. Isidore Muset jendarmeak ez zituen etxe barruko ahotsak ulertu, baina uste du espainierazko hitzak zirela. Henri Duval zilarginak, aldiz, italiera zela dio, ez behintzat frantsesa; italiarrik ez badaki ere, tonuarengatik dago konbentzita italiarra zela. Odenheimer jateko holandarrak dio (ez daki frantsesez, itzuli egin diote lekukotza), frantsesa zela ahots hura. William Bird jostun ingelesak dio, ahotsa ez zela ingelesa, aleman batena iruditu zitzaion, alemanera ulertzen ez duen arren. Alfonso Garcia ehorzlea espainiarra da jatorriz, ez du ingelesik ulertzen, baina ingelesa iruditu zitzaion ahotsa. Alberto Montani gozogile italiarraren ustez errusieraz ari zen.

(Hildako biak ez beste guztiak gizonak dira).

## HIZTEGIAREN GORDELEKUETAN BARRENA:

Hiztegian ere gordetzen ditugu hitzak (ahalik eta gehien). Bitxikeria gisa, eman diezaiozun begiratu labur bat hiztegian **hitz** izenari. Hitz gutxitan esango dut...

Hitz hutsalak, merkeak eta alferrak. Hitz eztiak, gozoak eta leunak. Hitz gogorrak, latzak eta garratzak. Hitz arruntak eta apalak, hitz ikasiak eta jasoak. Hitz lohiak, lizunak eta lotsagarriak. Hitz garbiak eta mordoiloak. Hitz eratorriak eta adiera askotako hitzak. Hitz jarioa eta hitz jokoa. Hitzerdiz eta izerdiz. Hitz eta pitz, hitzetik hortzera. Hitz totelaren eta hitzontziaren arteko hitzarmenak eta hitzaspertuak. Hitz onak eta ezer gutxi gehiago. Hitz zuriz liluratzen duzu jendea. Hitzak ederrak... bihotza faltsu! Hitzik atera gabe mintzo zara batzuetan. Hitza eman dizut, hitza jan duzu, hitza kendu dizute. Hitzari eutsi diozu, hitza bete dut. Jainkoaren hitza, Legearen hitza, Herriaren hitza. Eñaut Elorrietaren musika eta Joseba Sarrionandiaren hitzak. Ez dakit zure hitzaren jabe zaren. Hitz joskerak, hitz neurtuz edo hitz lauz. Hitzez hitz esanarazi zenidan esan nahi ez nuena. Hauxe da gure azken hitza. Eta hitz bi, bukatzeko: hitza hitz.

Berba edo ele (edo logos)... solas egiten segi dezagun. eta ez galdetu, mesedez, zer esan nahi duen hitz batek edo bestek, baizik eta **nola erabiltzen** den (nork noiz non)

## ADITZAZ:

Thomas Hobbes (1654): “Subjektuaren eta predikatuaren arteko hitzak, alegia, **aditzak eratzen du ideia**”.

Jacob Grimm, *Hizkuntzaren sorrerari buruz* liburuan (1851): “Badirudi aditzak eta izenordainak direla **hizkuntzaren** benetako **palankak**”.

Paul Valery, *Kaierak* (1916): “**Aditzaren obra dira esaldiak**. Hizkuntzen miraria da aditza”.

Michel Foucault, *Hitzak eta gauzak* liburuan (1966): “**Aditza** da diskurtso ororen **kondizio ezinbestekoa**. Aditzik ezean, ezin esan liteke hizkuntza dagoenik. Baiezatu egiten du aditzak, adierazi eta juzgatu”.

adibide bat:

### *Errepikatzea gustatzen zaigu*

Simplea eta laburra da esaldia, hiru berba baino ez. Badakit “gu” daramaten esaldiak jende askori iruditzen zaizkiola deserosoak edo gogaikarriak (nortzuk dira ba “gu”?); baina ez dago zertan exajeratu, beste edozein esaldiren tankerakoak dira: *Euskaldunak gara / Hemen gaude mahaiaren bueltan / Elkarri aditzen diogu / eta abar.*

Hiru horiek, hala ere, arruntagoak dira *Errepikatzea gustatzen zaigu* esaldia baino. Honek badauka intriga kutsu bat... egiazkoa dirudielako baina berehala uka dezakegulako, iritzi forma duenez eztabaidagarria delako, zerbait iradokitzen duelako, zerbait gomutatzen digulako, haurrak ginen garaira itzuli gaituelako agian?, edo atseginaren oihartzuna dakarrelako?, edo denboraren eta akzio biziaren erreferentziak dituelako? Auskalo.

Heriotzari kontra egiten diolako dauka (beharbada) erakarpen enigmatikoa *Errepikatzea gustatzen zaigu* esaldiak. Izan ere, ezinezkoa da heriotza errepikatzea, ezin da bi edo hiru bider bizia galdu. Jende asko hiltzen ari da oraintxe bertan munduan, atzera bueltarik gabe, ezer berriz errepikatzeke aukera guztiak galtzen.

Arnasa hartzeari edo ikusteari edo entzuteari uzten ez diogun bezala errepikatzen ditugu egunero-egunero ardurak, lanak, agurrak, zaintzak, erosketak, garbiketak, portaerak, joan-etorriak. Errepikatzeek erosoagoa eta ziurragoa bihurtzen dute gure bizimodua, ahalik eta ustekabe eta estutasun gutxienekin ibiltzeko patxadaz eta lasai.

Errepikatzea bezalakorik ez dago: berriz lo egin (eta esnatu), berriz jan (eta abestu), berriz edan (egarririk gabe), berriz musu eman (lehen baino eztiago), berriz uretara salto egin (hegan bezala), berriz galdetu (kontakizun harrigarri baten esperoan), berriz begiratu (sekula ikusi gabekoa agertuko ote zaizun), eta gero berriz lo egin eta esnatu, eta berriz jan, joan, jo, eta berriz edan, abestu, begiratu, galdetu, eta... ekin berriro. Errepikatzea gustatzen zaigu. Bizirik gauden seinale.

(Heriotza hiru bider bizi ahal izango balitz, heriotzara joan-etorriko bertigoaren ikarak errepikatzeke irrikaz egongo liriteke batzuk: arriskutsu, kilikagarri, misteriotsu, gozagarriagorik bai ote!).

Gustatu zaiguna errepikatzea gustatu egiten zaigu. Funtzionatu diguna errepikatzea ere gustatu egiten zaigu (nahiz eta batzuk, exigenteenak, aspertu ere egiten diren). Atseginatasun moduko bat dauka errepikatzeak, atsedeen giro bat.

### **Errepikatzeaz ikasten dugu eta gogoratzen dugu.**

Errepikatu egiten ditugu ideiak eta esaldiak (ezin da originala izan aldiro), errepikatu egiten ditugu diosalak, esklamazioak, kantuak, kontuak, formulak, irudiak, bazkariak, jantziak, biluziak, loak, igurtziak, irribarreak, keinuak, iritziak, asmoak, jolasak, zeremoniak, lekuak, etc, baita diskurtso hegemonikoak ere.

## METAFORAZ:

Batzuek uste dute mintza daitezkeela metaforarik gabe. Harrituta nago, benetan zaila (ezinezkoa) baita metaforarik gabe hitz egitea.

“Harrituta nago”: geldi, ez atzera ez aurrera; harri bat naiz.

“Sututa zaude”: ez hotz ez epel, eta oso bero baino gehiago; suzkoa zara.

Adiera aldatzea da metaforaren eragiketa, adiera finkotik lerratzea adiera itxurazkora. Ekibalentzia modukok egiten ditugu metaforen bidez:

sututa zaude = haserretu egin zara;

lehertuta nago = arnasarik gabe.

### Metaforekin mintzatzen gara egunero.

“Denbora galtzen ari zarete”; denbora galdu, irabazi, gastatu, amaitu edo topatu ahal izango balitz bezala.

“Eramanezina da bizitza modernoaren erritmoa”.

“Maldan behera doa ekonomia”.

“Desagertu egin da nire bizikleta”.

“Gure herriaren etorkizuna dago jokoan”.

“Itsutu egin dira Euskal Telebistan”.

“Albisteen egarri bizi gara”.

“Garesti saltzen da zoriona”.

“Arrastoa utzi du bere nortasunak”.

“Musikari handia zen”.

“Odol berria behar du literaturak”.

“Txoratuta naukazu”.

“Larrua joko dugu?”.

“Datorren astean esango dizut”.

“Gora Euskadi askatuta!”.

Denak arruntak izanik, ez zaigu iruditzen metaforak direnik (lexiko bihurtu ditugu, hiztegian jasota dauzkagu gehienak).

Hitzak, esaldiak, ideiak, pentsamenduak... objektuak bezalakoak dira. Eta egin litezke: atera, sartu, ezkutatu, erakutsi, eman, kendu, erabili, eta abar. “Ideia ona eman didazu”, “Ez du hitzik atera”, “Ezin zaio ideia berririk buruan sartu”, “Zuk esandakoak erabili ditut”, “Hitza kendu diote”, “Ideiak lapurtzen dizkigute”, “Denen ahotan dabil zure izena”.

**Kontzeptuen gure sistema egituratzen dute metaforek.** Hitzek ez dute errealitatea aldatzen, baina **kontzeptuek** (zaharrek eta berriek) **errealitatea egituratzen eta espresatzen dute**, mundua pertzibitzeko forman eragiten dute.

Eta gure **gorputzaren** arabera, gure lurraldearen edo **bizitokiaren** arabera, gure hizkuntzaren **kulturaren** arabera osatzen ditugu kontzeptuak.

Makina bat da gure gogoia: “Gauetan ez dit buruak funtzionatzen”, “Kontrola galtzen ari naiz”, “Pitzatu egin al zara?”, “Amatatu egin zaio gogoia”, “Erabili burua!”, “Herdoilduta nago gaur”, “Adimena zorroztu behar genuke”, “Orain ere lantegi ederra eman diozu buruari”, “Begia baino lasterrago dabil beti gogoia”.

Gure esaldiak, sinboloak, pentsamenduak egituratzen dituzte metaforek. Gure ikuspuntua eta klasea salatzen dituzte metaforek, ikuskera eta ideologia.



## HITZA DAUKANAK EZPATA DAUKA:

Sofista batek esan zuen (Gorgias): hitza daukanak ezpata dauka.  
Hitzarekin egiten da **diskurtsoa**. Hitzarekin egiten da **kontakizuna**.  
Hitzarekin gailentzen da bat, edo talde bat, edo komunitate bat, eta abar.

Diskurtsoak **asmoa** du beti: batek besteari ideia txertatzea:

- konbentzitu (gailendu, bentzutu, etsi);
- buruan sartu (geureganatu);
- konpreniarazi (hurbildu, harrapatu, lotu);
- bakea egin (atzera egin, amore eman);
- onartu (ontzat eman, aintzat hartu, etsi).

Roland Barthes: “Signoak eta armak gauza bera dira; semantikoak dira gudu guztiak”.

Hitzaren erabilera **arte bat** da.

Eta hitzaren artearen bidez dator **pertsuasioa: influentzia soziala**.

Filosofia bezain aspaldikoa da Erretorika (eta Dialektika).

Baina zein ote da lehenagokoa: arrautza ala oiloa?

**Hitzaren jabeak** zer egiten du?:

Edukitzen eta erabiltzen ditu hitzak, eduki eta erabili beharrik gabe gauzak.  
Hitzaren jabetzarekin erabiltzen ahal dituzu pertsonak, taldeak, komunitateak.  
Hizkuntzak eta zeinuak menderatzen dituenak menderatzen ditu pertsonak.

Esaldien bitartez informatzen, antolatzen, gidatzen, kontrolatzen da jendartea.

Hitzaren jabetzak ematen ditu **autoritatea eta boterea**.

Nork du autoritatea?: hitzak eta ekintzak praktikatzen dituenak.

Nork du boterea?: hitzak eta ekintzak menderatzen dituenak.

## GERRA EDO DANTZA

Eztabaidak izaten dira elkarrekin hizketan: dialogoa eta dialektika.

Eta iritzien trukea izan liteke lehiazkoa edo kooperaziozkoa.

Gerra edo dantza. Borroka edo besarkada.

## HIZKUNTZAREKIN OSATZEN DA HERRIA:

Hizkuntza daukanak ez dauka ezpata bat bakarrik,  
hizkuntza bat daukanak **memoria bat** dauka eta **kultura bat** dauka.

Jendarte baten esperientziak eta ezagutzak gordetzen dituen biltegi moduko bat da hizkuntza, belaunaldiz belaunaldi osatua, antolatua, sistematizatua, komunikatua.

Hizkuntza eta kultura dauzkanak **komunitate bat** osatzen du: eredu edo paradigma bat dauka, sistema antolatu horrekin mintzaten da eta pentsatzen du eta komunikatzen da, bizitzeko moduak proposatzen ditu jendartean, aukera batzuk hartzen ditu aintzat eta beste batzuk ez, etorkizun bat proiektatzen du komunitatearentzat.

**Herri baten pentsamenduaren ondasun multzoa da hizkuntza.**

Dakiguna hizkuntzaren bitartez erakusten dugu, solasean elkarrekin partekatzen dugu, kooperazioak proposatzen ditugu, sortu egiten ditugu asmoak eta helburuak.

**Mintzoa gara:** hitzak eta ekintzak. **Orainaldi bat geroan proiektatzen.**

## ESTANDARRAZ:

Biblia Europako hizkuntza ugaritara itzultzearekin hasi ziren lehendabiziko hizkuntza estandarizazioak.

Nafarroako Erregina Joana Albretekoak Biblia euskaratzeko eskatu zion Joanes Leizarragari **1563**an, eta beste lau laguntzaileri esker 1571ko irailean argitaratu zen.

Gabriel Arestik *Harri eta herri* izenburua ipini zion poema liburuari; **1963**an Euskaltzaindiaren saria izan zuen eta 1964an argitaratu zuen Zarautzen, Kulixka Sortan.

Txillardegik **1967**an idatzi zuen *Elsa Scheelen* nobela; 1968an Euskaltzaindiaren saria izan zuen eta 1969an argitaratu zion Gabriel Arestik, Bilbon, Kriselu zigiluarekin.

Poesian eta nobelan gaur egungo euskararen estandar garrantzitsuak eskaini zituzten Arestik eta Txillardegik.

Eta **1968**an, Arantzazun, idazteko arauak eman zituen Euskaltzaindiak.

Euskara batuaren abentura abiatu zen orduan.

## HEDABIDEAK ETA ESTANDARRA:

RAI telebistaren bidez iritsi zen Italiako hizkuntzen batasuna (hala esan baliteke) Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, 1950 inguruan.

Horixe bera egin zeukan (beste era batera, beste parametro batzuekin) ingelesak BBC bitartez; 1924tik aurrera, Oxford eta Cambridgeko eliteen hizkuntza eredu “neutro” bat markatu zuten jendarte osoarentzat: eredu. Eta estandar hori Bigarren Mundu Gerra garaian finkatu ondoren, 1994 inguruan BBCko hitz egiteko molde hori zaharkituztat jotzen hasi ziren batzuk, zalantzan jartzen behintzat. Eta orain zer?

Mundu osoan gertatu zitzairen halako zerbait hizkuntza askori XX. mendean, irati eta telebisten eraginez, masa hedabideen bitartezko estandarizazioa.

**Irratiak** izan ziren euskararen tresna eguneroko nagusiak batez ere **80ko** hamarkadan: Segura Irratia, Arrate Irratia, Loiola Irratia, Herri Irratia baziren; ondoren etorri ziren Euskadi Irratia, Eguzki Irratia eta irati libre andana, Gure Irratia, Irulegiko Irratia, Xiberoko Botza, Xorroxin Irratia, Hala Bedi, Egin Irratia, Euskalerrria Irratia, Bilbo Hiria, Bizkaia Irratia eta abar. **Hizkuntza masa handiak** sortu ziren orduan, jende askoren kolaborazioarekin: esatariak, berriemaileak, lekukoak, elkarrizketatzaileak eta elkarrizketatuak, iritzilariak, bertsolariak, kantariak, disko jartzaileak... Orduak eta orduak, asteak eta hilabeteak eta urteak.

Ikastolek (lehendabizikoa Migel Muñoak 1914an Donostian sortua), gaueskolek, AEKK, Anaitasuna eta Jakin eta Argia aldizkariak, argitaletxeek egin izandako lanari jarraiki, dimentsio are zabal eta hedatuagoa eman zioten irratiek hizkuntzari, eta geografia bat osatu ere bai egunero.

**Egunkaria** falta genuen ordea, euskararen geografia hori oraindik hobeto eta jasoago osatu behar zuena, eta idatziaz batera garatuko zuena nonahiko berriez gorputz handiago eta zehatzago bat. Egunkaria 1990ean sortutakoan, **Estilo Liburu** bat ere eskaini zuenez gero, aurrerapenak nabarmenak izan ziren. Literaturari eragin zion egunkariak, itzulpenari ere bai (eta kultura osoari bide batez).

Hezurdura eder batekin iritsi ginen XX. mende amaierara. Hizkuntza kohesioaz eta lurralde kohesioaz, hedabideek kultur kohesioari laguntzen dute.

**Interneten** garaia etorri da. Sakelako telefonoen garaia ere bai. Eta orain zer?

## HIZKUNTZAK:

### Zenbat gara munduan?

**7.350 milioi 2017** urte amaieran.

6.000 milioi 2000 urte inguruan.

1.000 milioi 1800 urte inguruan.

Proiektzioa egin dute:

10.000 inguru milioi 2050 urtean.

11.000 inguru milioi 2100 urtean. (Auskalo!)

Gehienei ahaztu egiten zaie: gizonezkoak bezainbeste gara emakumezkoak munduan. Eta hauxe da, hain zuzen ere, kontu garrantzitsuena.

Baina gehienei ahaztu egiten zaie beste kontu hau ere: 3.000 milioi pertsona gehiago izango gara 2100 urtean, eta **hizkuntza batzuk hazi** egingo dira (eta beste batzuk gutxitu edo desagertu).

Gehienei ahaztu egiten zaie beste kontu hau ere: **lurraldeen nolakotasuna aldatu** egingo da biztanleak eta hizkuntzak aldatzeaz batera.

### Zein kontinentetan bizi gara?

4.440 milioi Asian Txinan gehien, gero India, Indonesia, Pakistan

1.200 milioi Afrikan Nigerian gehien,

1.000 milioi Amerikan USAn gehien, gero Brasil, Mexiko

738 milioi Europan Errusian gehien

40 milioi Ozeanian Australian gehien

Ordenan:

Txina eta India... 1.000 milioitik gorakoak.

USA, Indonesia, Pakistan, Brasil... 200 milioitik gorakoak.

Nigeria, Bangladesh, Errusia, Japonia... 125 milioitik gorakoak.

### Zenbat hizkuntza mintzatzen dira munduan?

Ez dakigu. 5.000 omen dira batzuen ustez, beste batzuek 7.000 esan ohi dute.

Baina **600 hizkuntza** bakarrik dira 100.000 biztanle edo gehiagok mintzatuak.

Munduko hizkuntzen **% 90 arriskuan** daude.

### Eta zenbat hizkuntza daude Europan?

90 inguru (baina baita ere munduko beste guztiak).

**Zenbat gara Euskal Herrian?:** 3.171.000 biztanle gutxi gorabehera.

Hiriguneetan %54. Bitarteko hiriguneetan %28. Landa eremuan %18.

Euskaldunak dira 850.000 inguru.

Biztanle guztietatik zenbat erdaldunak: **% 100**

Zenbat euskaldunak: **% 27**

2016ko inkesta soziolinguistikoak zioenez, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 27k euskara erabiltzen zuen neurri batean edo bestean:

% 17k euskararen erabilera trinkoa egiten zuen (euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zuen eguneroko jardunean).

% 10k euskara erabiltzen zuen, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako % 73k erdara erabiltzen zuen beti.

## **INTERNETEN:**

Euskarak bi lurralde nagusi ditu: Euskal Herria eta internet.

Interneteko hizkuntzen artean **euskara 45.a** omen da.  
Ez dakit zehazki zer esan nahi duen horrek.

Zein hizkuntza ageri da **gehien www** guneetan?

1/ ingelesa, 2/ errusiera, 3/ alemana, 4/ espainiera, 5/ frantsesa, 6/ japoniera,  
7/ portugesa, 8/ italiara, 9/ persiera, 10/ poloniera, 11/ mandarinera, 12/ holandes,  
13/ turkiera, 14/ txekiera, 15/ koreera ... 36/ katalanera, etc.

Zein **mintzairadun** dira internet gehien erabiltzen dutenak?

1/ ingelesa, 2/ mandarinera, 3/ espainiera, 4/ arabiera, 5/ portugesa, 6/ indonesiera,  
7/ frantsesa, 8/ japoniera, 9/ errusiera, 10/ alemana... etc.

## **ADIBIDE BATZUK:**

Wikipedian garatzen diren 320 hizkuntzen artean 29.a da gaur egun euskara.

Wikipedian 340.000 artikulua daude euskaraz.

*Berria* da twitter jarraitzaile gehien dituen euskaraz; ondoren, Athletic Club.

*Berria* da euskarazko testu masa berri handiena eskaintzen duena.

EITB da euskararen fonoteka handiena.

Armiarma da literatura atari zabalena. Badok da musika atari biziena.

Ahotsak gunean 6.000 hizlariren grabazioak daude.

## **CALVET:**

Calvet barometroa delakoarekin neurtzen dituzte munduko hizkuntzen bizi-  
indarra, pisua, garapen ahaleginak. Alain Calvet eta Louis-Jean Calvet soziolinguistek  
sortutako neurgailua da.

500.000 hiztun baino gehiago dituzten munduko 563 hizkuntzak neurtu eta  
sailkatu zituzten 2012an.

**51.** postuan paratu zuten euskara.

Zer esan nahi ote duen horrek, ez dakit.

1/ ingelesa, 2/ espainiera, 3/ frantsesa, 4/ alemana, 5/ errusiera, 6/ japoniera,  
7/ holandes, 8/ italiara, 9/ portugesa, 10/ mandarinera, 11/ suediera, 12/ turkiera,  
13/ norvegiera ... 19/ katalanera, etc.

## HIZKUNTZA ETA LURRALDEA:

edo lurralde antolamenduaz

**Lurraldeen nolakoa aldatu** egiten da biztanle kopuruak eta hizkuntzak aldatzeaz batera.

**Bakioko** euskaldunen portzentajea 1991n ia %74koa zen.

Bi hamarkada geroago,

2011n portzentaje hori %58an zen.

Euskararen gainbehera hori bat dator herriak denbora tarte horretan izandako hazkundearekin: 20 urtean 800dik gora etxebizitza eraiki ziren Bakion.

Populazioa bikoiztu baino gehiago egin zen:

1991n: 1.220 bizilaguneko herria zen.

2011n: 2.554 ziren errolatuak.

Bilbotik eta Mungiara arteko autobidea eraikitzeak ahalbidetu zuen hein batean hazkunde hau. Euskararen korridore izatetik Bilbotik eta kostalderainoko erdararen korridoreko (autobideak marrazten duena) azken atala izatera pasatu zen.

Datu berri bat Bakion:

2011tik ez da biztanleria igo eta ia ez da etxebizitza berririk eraiki.

2016ko azken datu soziolinguistikoen arabera euskaldunen portzentajeak gora egin du, ia %66an kokatu da.

**Zarautz**, datu batzuk:

Kostaldeko herrietan bezalaxe, Zarauzko biztanle kopurua asko hazi da 25 urtean. Baina ikastetxe guztietan D eredia dagoenez eta batez ere Gipuzkoako beste herrietako jendearen etorrerarekin hazi denez, euskaldunen kopurua ez da beheititu.

	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>	<b>2006</b>	<b>2011</b>	<b>2016</b>
biztanleak	18.007	19.202	20.568	22.031	22.583	23.040
euskaldunak %	70,11	72,17	71,41	70,12	70,03	74,14
ia euskaldunak	14,04	14,18	14,96	16,73	17,01	10,97
bestarik	15,85	13,65	13,63	13,15	12,97	14,89

Eustat erakundeak interneten argitaratzen dituen datuen arabera, gaur egun:

23.188	Zarautz	% 74,14 euskaldunak
14.916	Azpeitia	% 83,69
11.964	Azkoitia	% 76,91
9.770	Zumaia	% 73,81
5.986	Orio	% 76,68
3.846	Zestoa	% 81,48
2.831	Getaria	% 84,34
2.020	Aia	% 87,83
766	Aizarnazabal	% 83,54

## DIGLOSIAZ:

### Elebitasuna:

bi hizkuntza jakiteko eta erabiltzeko **norbanakoak** duen moldakortasuna.

### Diglosia:

**jendarte** ezaugarri bat da; bi hizkuntza diren lurraldeetan gertatzen da; hizkuntzetako batek bestea desplazatu egiten du.

Hizkuntzen artean ez da erabilera berdintasunik izaten, hizkuntzak borrokan bizi baitira modu batera edo bestera, gertatzen baitira era askotako presioak: ekonomikoak, administratiboak, politikoak, kulturalak.

Zer gertatu ohi da diglosia egoeran?:

1/ hizkuntzetako bat gehiengoak edo den-denek dakite, eta beste hizkuntza gutxiengoak;

2/ gutxiengoaren hizkuntza desplazatu egiten da etengabe, gero eta menpekoago eta urriago: zapalkuntza prozesu bat da;

3/ hizkuntza apaltzailea darabilten gehienek ez dute ahaleginik egiten hizkuntza zapalduaren mesedetan; eta okerragoa dena, ez daukate zapaltzaile kontzientziarik ere;

4/ hizkuntza apaltzailea darabilenak behartu egiten du (modu batera eta bestera) haren hizkuntza erabil dezan zapalduak;

5/ denek badakiten hizkuntza eginkizun jasoetarako erabiltzen da, eta funtzio apaletarako erabiltzen da batzuk bakarrik dakitena;

6/ gutxiengoa elebiduna izatera behartuta dago; gehiengoak ez du premiarik gutxiengoarena ikasteko;

7/ ikastekotan, zein hizkuntza ikasten du apaltzailea darabilenak?: hedadura zabaleko beste hizkuntza bat (baina ez hiztun kopuru handiena duen hizkuntza, baizik eta merkatu eta ekonomia indartsuenaren hizkuntza);

8/ hizkuntza guztiek eta komunitate guztiek dute memoria, historia, egitura soziala, egitura politikoa; hizkuntza batek ez du beste bat desplazatzen bere testurarengatik edo bere sintaxiarengatik, baizik eta borroka ekonomiko eta politiko bat izan delako urtetan.

Debaterako gai posible bat: Latina ez da hil, beste hizkuntza batzuen baitan bizi baita latina: portugesa, katalana, okzitaniera, frantsesa, italiera, erromantxea, errumaniera, gaztelania. Baina beste jatorri batzuek dituzten hizkuntza batzuetan ere bizi da: euskara edo ingelesa. Eta jakina, zientzia ugaritan.

Debaterako beste gai posible bat: Euskararen etorkizuna Bilbon jokutzen da, esan ohi dute batzuek. Zergatik?: herri edo hiri jendetsuena delako. Kontuz!, aitzakia gaizto bat da, adibidez, hizkuntza politika ez azkartzeko Donostian, Gasteizen, Iruñean.

343.000	Bilbo	% 18
244.000	Gasteiz	% 18
203.000	Iruñea	% 10
181.000	Donostia	% 35
98.000	Barakaldo	% 25
77.500	Getxo	% 33
59.500	Irun	% 40
50.500	Baiona	% 7

## MAPA ETA LURRALDEA:

Nork asmatuko ote zuen **geziaren irudia** noranzkoa adierazteko?; → unibertsa da ikur hori gaur egun, baina inork ez daki nork asmatu zuen.

Eta noiz asmatu ote ziren **mapak**, gizakien ibilian **gida** izateko?:

- lurreko mapak eta zeruko mapak orain dela 18 mila urte egiten hasi ziren;
- iparrorratza Txinan asmatu zuten IX. mende inguruan;
- eta itsasorik itsaso, txinatarrek mundu osoa kartografiatu zuten 1425 bitartean;
- GPSaren asmakizuna 1973an abiatu zuten.

Irudi bat da mapa: **ikono** bat; lurrak, itsasoak, izarrak ezagutarazteko modu bat, era sinplifikatuan. Mapetan **marratzu (edo markatu) eta izendatu** egiten ziren mendiak, ibaiak, itsasoak, materia ustiagarriak, hiri batzuk, nazio batzuk, gasolindegia eta jatetxeak, eguraldia..., zenbait hizkuntza ere bai noiz edo noiz.

Misteriotsuak ziren mapak, narratiboak neurri batean, poetikoak beste batean, imajinazioz betetzeko hutsunez osatuak; mapetan ez baitziren kabitzen jendeak, animaliak, landareak, ohiturak eta portaerak, sintaxia...

Arabiarren itsasaldien ostean, txinatarrek mundua kartografiatu zuten XV. mende hasieran; italiarrek txinatarrei kopiatu zizkieten mapa haiek, portugesek baliatu zituzten gero, espainiarrek ezpataz ekin zioten ustiapenari, ingelesak eta holandarrak etorri ziren segidan, frantsesak Errusiaraino sartzen ausartu ziren, eta abar.

Laurehun urtetan zeharo transformatu ziren mapak eta... lurraldeak.

Prest zeuden “iraultza” industrialak abiatzeko!

Eta ondoren ilargira joan ziren, XX. mendeko Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan. Harrezkero **satelizazio** prozesu masibo bat gertatu da, eta militarren eta zibilaren arteko aldea lausotuta geratu da. **Globalizazioa** ere deitzen zaio honi guztiari.

Gaur egun, sateliteak eta Googlek dena argazkiz (eta bideoz) harrapatu dutenez gero, errealagoa al da mapa lurraldea baino? **Mapak hiperrealak** bihurtu direnean, oraindik gehiago sinplifikatu al dute **lurralde erreala**? Bai ala ez? (edo ez dakit zer esan?).

Telefonoz edo konputagailuz milioika bider erreproduzitzen eta ikusten eta irakurtzen direnean, argazkiek eta mapak (ikonoak) eta kontzeptuek (ideiak) ordezkatu egin ote dute egunero bizi dugun lurraldea?

Galderak biderkatu egiten zaizkigu, errealitatea sinplifikatzearen ondorioz:

Eiffel dorrea gabe ba al da Parisik?

Skyline gabe ba al da New Yorkik?

Guggenheim gabe ba al da Bilborik?

Garai batean hiri bat garrantzitsua izan zedin katedral handia egiten zuten; eta ba al zen gure inguruan eliza gabeko herrixkarik? (edo auzunerik?).

Gaur egun Googlek argazkiz hartuta ez badauka, zure herria ez da herri bat.

Udaletxea gabe ba al da demokraziarik? Edo: etxe bat al da demokrazia?

Ikonoak, zeinen fabrikazio bitxiak! Hortxe dago Juan Sebastian Elkano oraindik Getariako plazaren erdian; bizarra badauka, baina ez dauka ezpatarik!; Joxe Mari Iparragirre bat dirudi, edo Errenazimenduko kultur gizon bat (konkistatzaile bat ordez).

Mundu-biraren itxuraldaketa eta sinplifikazioa egin zituen norbaitek.

## **ZEINUA** (ikurrak):

Ikurrak edo zeinuak dira hitzak ere.

Hiru motatako zeinuak bereizi ohi ditugu:

**1/ ikonoak**

**2/ indizeak** (edo zantzuak)

**3/ sinboloak**

—**Ikonoak** izaten du antzekotasuna / lotura / zerikusi materiala edo soinuakoa... zerekin?: objektuarekin edo ideiarekin nolakotasunarekin.

Adibidez: argazki bat, eskultura bat, piktograma bat, edo diagrama, organigrama, grafiko sinoptikoa... ikonoak dira.

Baina ikonoa da onomatopeia ere: boom, krak, tik-tak, kili-kili, plisti-plasta, borbor, dar-dar, txio, miau.

Eta metafora bat ere kontsidera dezakegu ikonotzat.

—**Indizeak** (edo **zantzuak**) izaten dira ondoriozko zerbait adierazten dutenak.

Adibidez: tximista (trumoiak eta ekaitza datorren seinale), kea (nonbait sua den seinale), haize-orratza (haizearen noranzkoa seinalatzen digu), urratsak (basurdeak dabilta hemen inguruan).

Usainak indizeak direla esan dezakegu: erre usaina, kresal usaina, janari usaina.

Keinuz ere adierazten dira ondoriozko kontuak. Esate baterako: begi kliska bat izan liteke txantxa adierazle edo konplizitate adierazle edo mus jokoan informazioa.

Izaten dira doinuak edo intonaziozko zantzuak ere. Beldurrezko kontakizunetan eta filmetan era askotakoak erabiltzen dira; esate baterako: musika aztoragarria.

*Ezkerra* eta *eskuina* hitzak, adibidez, indize modukoak direla esan genezake.

Ezkerra eta eskuina beti dira ondoriozkoak edo erlatiboak (noren ezkerrean egon, zerbaiten eskuinean ipini).

—**Sinboloa** deitzen diogu, objektuaren eta ikurraren arteko erlazioa konbentzionala denean, hitzarmenezkoa.

Adibidez: *ikur* hitza bera sinbolo bat da (*ur, lur, su* bezalaxe). Alfabetoko hizkiak soinuaren sinboloak dira, baita ere notazio musikaleko ikurrak, eta zenbakiak edo notazio matematikoak. Sinbolo kimikoak daude, unitateak adierazteko sinboloak, moneta sinboloak. Berdin banderak eta ereserkiak. Etc.

Adibidez: kolore beltza erabiltzen da dolua adierazteko, edo semaforoko argi berdea aurrera egiteko eta gorria gelditzeko.

Ikonoak, indizeak, sinboloak bereiztea ez da beti kontu argia.

Hasiera-hasieran gogoratu dugu: Pentsagarria dena edo pentsatzen duguna, komunikagarria dena edo komunikatzen duguna, **hizkuntzaren bidez egiten dugu**.

Ongi da; baina beste era batera esaten ere ohitu behar genuke: Pentsamendu orok derrigorezkoak ditu zeinuak: **ezin da signorik gabe pentsatu**.



## DENA ETA EZ DENA:

Zeinu bat ez da haxe eta bera bakarrik, baita ere bada *ez den* hura ere. →

Alegia: zeinu batek balio batzuk ere baditu bere baitan erantsirik; ez ezkerrera ez gora ez behera adierazten duen mugimenduaren signoa denez → , orduan bere baitan gordeta ditu halaber ezker / goi / behe **balioak**.

Et, et, et: honexek haien **funtzioak** ere erantsita baldin baditu, orduan zergatik ez diegu denei deitura edo forma berbera ematen?; funtzio bera ez dutela iruditzen zaigulako!, eta beraz bereizi egiten ditugu: **ezberdin**. Pragmatikoak gara. ↑ ← ↓

Signorik gabe pentsatu ezin den bezala, signorik gabe **ez dago komunikaziorik**.

Pentsatzea, hortaz, komunikazio forma eta ekintza bat da.

Gorputzaren ekintzak komunikazioa dira.

## SINONIMOAZ:

Mikel Zarateren *Haurgintza minetan* (1973) nobelako 9. kapitulua: Ekidazu herriko plazan sinonimoen lehiaketa bat egiten ari dira 1968ko urtarrilaren lehenean. Jendez gainezka dago. Lehiakide batek sartu du eskua poltsan, eta tokatu zaio pinpilinpauza hitza. Eta hasi da... altxabili, aperiko, astatsa, atsoaren arima, astoluma, atxiamatxia, atxitamutxita, atxinini, axandalo, azapinpirin, bitxilota, eskabi, farfail, gau-ulika, inguma, jainko-belatx, jainko-oilo, jainko-mandatari, lilirita, makara, maripanpalona, maripuxitia, marisorgin, matxita, mitxeleta, mitxirika, oilo-zuri, panpina, pertxilota, pinpilinpauza, pitxilingaria, sorgin-bitxi, sorgin-oilo, txalumitxi, txepeleta, txibiltxori, txilipitaina, tximirrita, txintxilinpalo, txintxitola, txipilipeta, txipirina, txipiritona, txiruliru, txitxilera, txitxipapa, ulifarfaila... Esan ditu 47 hitz. Txalo zaparrada.

Oholtzara igo da orduan gazte bizardun bat eta esan du: “Berrehun hitz ditugu gure hizkuntza zaintsu eta beneragarrian *pinpilinpauza* esateko. Aberastasun itzela! Baina Ekidazuko haurrek berrehun eta batgarrena asmatu dute: *mariposa*. Zergatik? Aberastasun gehiegik ito egiten gaituelako. Eta, haatik, barregarri bihurtu zaigu gure hizkuntza, aberastasunaren aberastasunez barregarri eta tamalgarri”.

Bizardunak hori esan duenean sekulako eztabaida eta iskanbila piztu dira plazan.

## SEMIOTIKAZ:

Signoak estudiatzen ditu semiotikak (edo semiologiak). Hizkuntza mota guztiez arduratzen da. Mintzoa eta keinuak, hizkera poetikoak eta artistikoak, musika eta antzerki lengoaiak, irudiak eta objektuak, materialak eta tresnak, teknologiak eta akzio digitalak, matematika eta logika ikurrak, argiak eta hotsak, jolasak eta jokoak, errituak eta mitoak, jantziak eta gorputz mugimenduak, ukimen zeinuak eta usainak, janariak eta mahaia, animalien eta landareen komunikazio sistemak, protokoloak eta diplomazia, ekintza sozial eta politikoen sareak, eta abar.

Komunikazio prozesuak eta zentzuaren ekoizpen sozialak interesatzen zaizkio semiotikari, signoen sorrerak eta hedapenak: zirkulazioa eta harrera, testuingurua eta prozedura, agerikoaren eta ezkutukoaren interpretazioa. Adieren, esanahien eta zentzuaren organizazioa.

## ALFABETOAZ:

Galileo Galilei matematikari, fisikari, ingeniari, astronomoak idatzi zuen *Dialogo dei massimi sistemi*, 1632ko otsailaren 21ean Florentzian argitaratuan:

“**Alfabetoa da gizakiaren asmakizun handiena**. Paper baten gainean era ezberdinetan konbinaturik 20-25 karaktere xume, edozein pentsamendu komunikatzen ahal diot edonori, nahiz eta bion artean espazio eta denbora tarte oso handia egon. Mintza naiteke baita ere jaioko ez direnekin, mila urte barru jaioko direnekin”.

Esan ohi da, greziarrek feniziarrengandik ikasi zutela **alfabetoa**. Eta dozena erdi hizki gehiago erantsi zizkieten: bokalak! Eta esan ohi da, zehaztasun horrexek biziagotu zuela garapen intelektuala..., eta horren ondorioz asmatu zutela demokrazia.

**Notazio musikalarekin** gauza bera gertatu zen; aurrena literatura ahozkoa izan zen bezalaxe, musika ere ahozkoa zen (kantua), eta ondoren tresnazkoa berehala.

Saiatu ziren babiloniarrek, greziarrek, erromatarrek hizkien bitartez soinuak irudikatzen, baina arabiarrek izan ziren **durr-i-mifassal** asmatu zutenak, eta ondoren Guido Arezzo-koak XI. mendearen hasieran asmatu zuen notak pentagrama batean kokatzea. (Txinan eta Indian nola izan zen ez dakit).

Zer egiten dute alfabetoak eta notazio musikalak?

**Sinplifikatu eta erraztu, konbinatoriaz erruz biderkatzen segitzeko.**

Milaka hieroglifikoetatik pasatu ziren bi dozena hizkitara, eta aurrera!

Hizkiak eta ikurrak (zeinuak) ugaritzeak konplikazio gehiegizkoa ekar lezake.

**Grabaketa** moduak dira alfabetoa eta notazio musikala.

Ahozko mintzoa edo ahozko kantua paperean kokatzeko moduak dira, oraintxe bertan eta mila urte barru jaioko direnekin komunikatu ahal izateko.

Soinuak irudikatzeko sintesi gaitasun berezia eduki behar da, **abstrakzio** gaitasun berezia alde batetik, **sormen** gaitasuna bestetik.

## IDAZTEAZ:

Idazketaren bitartez, mintzoa askatu edo banandu egiten da situazio konkretu batetik. Esaldia (testua) independizatu egiten da kontestutik.

Gisa horretan, ahozko hizkuntza idatzizko hizkuntzara igarotakoan, esaldien formak eta zentzuak finkatu egiten dira, eta aldi berean konbinatoria aukera konplexuak eta erritmoak biderkatu.

Judaismoa, kristautasuna, islama berehala ohartu ziren zentzuaren eta idazketaren arteko identifikazioaz; eta Eskriturak (sakratuak) grabatu zituzten: finkatu eta zentzuaren gaineko kontrola ezarri.

Ahozko komunikazioan, bat-batekoa denez, esaldiaren zentzua (eta emozioa, eta konnotazioa) sortu ahala desagertzeko arriskuan da.

Idatzizko komunikazioan grabaketa egiten da: esaldien sekuentziak luzatu, konplexuagoak egin, zentzuak geroratu, sintaxia bihurritu, arkitektura biderkatu, *betikotu*.

## **ZUZENTZEAZ... erantsi eta erantzi:**

Mintzatzen garenean ezin dugu zuzenketarik egin, idaztean egin litekeen bezala: folioa apurtu, esaldia borragomaz ezabatu edo *delete* botoia sakatu, ergatiboa kendu intrantsitiboari, perpausak murriztu..., hori ezin da berbetan.

Solasean, beraz, hitz eta esaldi gehiago erantsi behar izaten ditugu, zuzendu nahi edo zuzendu behar izanez gero. Alegia: “ez dut ongi esan”, “esan nahi nuen”, “hobe esan”, eta ondoren esaldiak gehitzen ditugu berriro.

Eranstez deuseztatu?, bai ote?

## **IRAKURTZEAZ:**

Testuak irakurtzen ditugu: esaldi multzoak, iragarkiak, artikulua, aldizkariak, liburuak; eta irudiak ere bai, edo paisaiak, herriak, lekuak.

Gorputzez irakurtzen dugu: begiak, eskuak, nerbioak, arnasa, adimena, bihotza, gogoak; eta atsegin hartzen dugu.

**Abentura bat** da irakurtzea, **desiraren** eta **askatasunaren** lurralde zirrargarrietan barrena.

Libre zara ez irakurtzeko ere, noski, baldin eta zalantzarik sortu nahi ez badiezu zure inteligentziari eta irudimenari, inolaz ere aldatu nahi ez badituzu sentsibilitatea edo portaera.

Kontuz!... kantu batek abestera eta dantzatzera gonbidatzen gaituen bezala, irakurtzeak idaztera ere eraman zaitzake gainera, ez esatekoa den zerbait adieraztera: sekretua, kritika, asmakuntza, sentimendua.

Oso **arriskutsua** da irakurtzea.

Irakurtzeak protagonista bihurtzen gaitu:

informazio baten jakilea,  
iritzien deszifratzailea,  
iragarkizun baten promesa edo promesa baten iragarlea,  
akzio ugariren lekukoa,  
zalantza askoren kontzientea,  
misterio baten argitzailea,  
pertsonea nagusiaren hurkoa edo etsaia,  
herrialde ezezagunetan ibiltaria...

abentura bateko pertsonaia.

Testuak irakurtzen ditugu, hitzez eta esaldiz jositako oihal moduko horiek, garai eta kultura ezberdinetan sortutakoak.

Izan ere, *text*, *texte*, *texto*, *testu* hitza dator *texere* latinezkotik, eta esan nahi du josi, ehundu, bilbatu, sarea egin.

Orduan, esan ote dezakegu textila dela literatura? Bai, zergatik ez. Eta baita ere filosofia eta historia eta antropologia, edo hiztegia bera, literatura mota batzuk dira-eta denak: ehunak, oihalak, mihiseak, sareak.

Irakurtzen dugunean, **jantzi** egiten gara: **ideiez eta estiloz**, atsegin ematen digun jolas antzeko batean, askatasunez eta desiraz.

## **ORTOGRAFIAZ:**

Zenbat eta sinpleagoa izan ortografia orduan eta errazago ikasten da irakurtzen eta idazten.

Helburua da:  
sinbolo alfabetikoaren bidez sinplifikatzea eta  
sinboloen konbinatoriaz erraz eta erruz biderkatzea.

Hizkiak eta ikurrak ugaritzeak (argitasun eta zehaztasun bila)  
konplikazio gehiegizkoa ekar lezake, kontuz!

Sarritan gertatzen zaigu: zenbat eta panel eta afixa gehiago autobidean  
orduan eta zailagoa da informazioa ikustea, interpretatzea, erabakiak hartzea.

Adibidez: frantses batzuk aldarrikatzen ari dira frantsesaren ortografia sinpletzea, oso konplikatua da-eta gaur egungoa, eta gainera frantsesa gero eta gutxiago hitz egiten da munduan: Frantzia, Belgikako zati batean, Suitzako zati batean, Kanadako zati batean, Euskal Herriko zati batean, kolonia batzuetan...

Adibidez: espainolez “qu” asko eta asko erabiltzen da (K hizkia batere ez); eta batzuk pentsatzen ari dira, eskatu behar litzatekeela teklatuetan “qu” botoi bakar bat ipintzea, errazteko eta bizkortzeko idazketa.

Zein hitz dira espainolez gehien erabiltzen direnak?: “de”, “la” eta “que”.  
Zein ote dira euskaraz? Irene Arraratsi galdetu beharko diogu.

## **MESFIDANTZAZ:**

Ohiturarik ez daukatenentzat lan handia da liburua irakurtzea; aise entzuten dute musika, ikusten dituzte filmak, telebista, YouTube.

Liburuak irakurtzea biziki maite dutenak konprenitzen ez dituztenez, pixkanaka mesfidantza sortzen zaie. “Konspirazio bat iruditzen zaie liburuen mundua” (esan zuen Dietrich Schwanitzek), irakur zaleen helburu bakarra balitz bezala besteen kontzientzia artegatzea.

Errezeloa eta erresumina hazi egiten dira: pedante, handiuste, sasijakin, harroputz, astun horiek! Ez dute liburuzaleen gisakoak izan nahi. Ez irakurtzeko eta ez idazteko joera hartzen dute: ortografia, sintaxia, idazkera batua, poetika, estiloa errefusatzen hasten dira.

Antzekoa gertatzen zaie analfabetoak direnei matematikan, fisikan, kimikan, mekanikan, elektronikan. Mesfidantza: pretentzioso, metodiko, handiputz, orojakile, zehatz horiek!

Liburuen ugaritasunak denok kikiltzen gaitu, gogoratzen baitigute ia dena dela ez dakiguna. Liburuetan dauden jakintza tona horiek guztiak gure ezjakintasunaren froga direla iruditzen zaigu (sentimendu absurdoa).

Ez dugu zertan kezkatu... Idazleek kontu asko eta era diferentetan idazten dakite, estiloak funtsezko garrantzia dauka. Baina zaila da gero, obrak daukan bezain estilo ona izatea idazleak berak.

## **LIBURUAZ ETA INPRIMATEGIAZ:**

Suaren konkistaren ostekoa izan zen historiaren garai bat. Elektrizitatearen aurkikuntzak historiaren beste garai bat abiatu zuen.

Antzeko zerbait esan ohi dugu inprimategiari buruz jarduten dugunean. Idazketarekin garai bat abiatzen hasi ginen, eta inprimategiaren asmatzeak aldaketa ikaragarri bat ekarri zuen.

Debaterako: elektronika digitalak eta informatikak historiaren beste garai bat abiatu ote dute?

Antzina jende gutxi zekien irakurtzen. Eta irakurtzen zutenek zeukaten boterea. Haiek kontrolatzen zituzten idazkiak. Transmisioa zaila zen.

Gero liburuaren inprimaketa etorri zen XV. mendean. Asko erraztu zen informazioaren hedapena. Zientzia enpirikoak izugarri garatu ziren handik aurrera, ikertzaile ugari eskura geratu baitziren obserbazio kopuru handiak. Industriaren garaia abiatu zen XVIII. mendean, eta ondoren XIX. mendean elektrizitatea eta beste guztia.

Nahiz eta eskolatzeko eta alfabetatzeko masiboa (derrigorrezkoa) kontu berria den, oso nabarmena da XX. mendean kultura batetik beste kultura batera igaro gina;

**lehenago kultura ordeztu egin dugu berriarekin.**

arraioa!, ikerketa objektuak eta laborategiak ipini dituzue Ilargian eta Marten.

Liburuari esker metatu eta hedatu izan ditugu jakintzak menderik mende.

Liburuaren bitartez ikasten dugu oraindik ere.

Liburuaren inprimatzeko zabalarengatik izan dira aurrerapen nagusiak azken mendeotan. Grabatu eta gorde egin ziren esperientziak, jakintzak, espresioak; notazio matematikoa finkatu zen; dena masifikatzen eta biderkatzen hasi zen liburuaren bitartez; trukea egin zen itzulpenen bidez, elkarriketan ipini ziren liburuak eurak; dialektika horretatik garatu dira ideia berriak, aurkikuntzak, komunikazio globala.

## **EZIN ESKRIBA ZAITEIEN:**

Beotibarko kanta: Mila urte igaro eta ura bere bidean.

Bernat Etxeparek argitaratu zuen euskarazko lehen liburua, 1545ean Bordelen. Garaziko herriak euskarari eman dio behar duen tornua.

Joan Perez Lazarragak 1567an kopia asko idatzi zituen: Zu ikusita beste gauzarik oi ez da zeren ikusi, zergati alegiarik ez da munduan zure parerik.

Joana Albretekoak Biblia euskaratzeko eskatu zion Joanes Leizarragari.

Garazi Arrulak Idea Vilariñoren poemak itzuli berri ditu; Maialen Berasategik Adrienne Richen poemak eta Carole Petemanen saiakera bat; Edurne Lazkanok Silvia Federiciren saiakera bat.

*Harri bat poltsikoan* izenburua du Nerea Loiolaren lehen liburua. Miren Amurizaren lehen nobelak *Basa*.

## **LIBURUAREN POLITIKAZ:**

Editorial guztiek dute argitalpen politika bat (izan editorial pribatuak zein publikoak); eta horrekin batera doaz plazaratze politika (hiru formatan gutxienez egin ohi dena) eta kontratu politika, baina baita ere distribuzioa (formula ezberdinak), eta komertzializazioa, eta propaganda eta promozio ekintzak, eta dendak, eta azokak, eta diruzko laguntzak, eta ikastetxeak, eta liburutegiak, eta sortzezko obraren itzulpena eta nazioartratzea (publikazioa beste hizkuntza, kultura eta merkatu batzuetan), eta ISBN eta zergak eta beste.

Liburuaren politika asunto oso zabala da, mundu bat! Eta historia bat du.

Hezkuntza, zientziak, ekonomia, politika, linguistika, historia, filosofia, agrikultura, osasungintza, teknologia, legegintza, administrazioa, erlijioa, musika, arteak eta abar... gure ezagutzak, esperientziak, sentipenak, oroitzapenak, ohiturak, ikerketak, gogoetak era askotako liburuen bitartez zabaldu ditugu azken mendeotan (alfabetoari esker, notazio matematikoari esker, marrazkiei esker).

Liburua da gizakiaren asmakizun berezietako bat, (zelako ergonomia!), tresna horren bidez komunika gaitezen eta transferitu ditzagun kontu guztiak askotariko jendearen artean.

Eskatu zidaten 45 minutuko hitzaldi batean esplika nezan liburuaren politika. Baina urtebeteko eskolak behar nituzke liburuaz fundamentuz jarduteko toki akademiko eta serio batean: hasi alfabetotik, segi liburuaren materiak, liburuaren historia, tipografia, liburuaren objetualizazioa eta garraioa; eta idazleak, noski, batez ere idazleak (ofizioa, egile eskubideak, duintasuna, estiloa); eta ondoren editorial bat zer den (tresna, funtzioa, identitatea); eta euskal argitaletxeen eta inprimategien historia; eta gero beste guztia (matraka luze hori... goian eta behean zerrendatzen dihardudana).

Automobila estudiatzen da (edo aeronautika), argi indarra estudiatzen da (edo energiak), fisika eta kimika, medikuntza eta sukaldaritza, legeak eta musika, biologia eta astronomia, eta abar; zer ez da estudiatzen eskoletan eta unibertsitateetan liburuen bidez? Ez dut ulertzen nolatan oraindik ez den **liburua** bera xehetasunez estudiatzen eskoletan... harrিতa nago.

Zenbat bider esan ote diogu elkarri Koldo Izagirrek eta biok: noiz arraio egingo dugu liburuaren **hiztegia**? Testuaren gorputza (morfologia eta funtzioak), liburuaren gorputza, kaligrafia eta tipografia (letraren anatomia), diseinua, edizioa, inprimategia (eta inprimaketa motak), koadernaketa, bilketa eta banaketa, dendak, tresna digitalak (argitalpen digitala), lege-arauak eta eskubideak, liburutegia, eta abar.

## **IRAKASLEAZ:**

Galdetu ohi dugu: Zer da unibertsitate bateko irakasle batek gure alde egin dezakeen gauza nagusia?

**Ondo irakurtzen irakastea:** liburu egokiak bilatzen erakustea, liburuak aukeratzen erakustea, liburuak ulertzen erakustea, liburuei buruz solas egiten erakustea.

## **AHOTSAREN KOLOREAZ:**

*Madame Bovary* nobelan (1857) Emma protagonista eta bere senarra hirira joan dira, operara. Donizetti-ren obra bat izango da tenor famatu batek kantatuko duena, Londresera joan baino lehen. Nor da tenor hori? Legardy da, Miarritzeko hondartzan txalupak konpontzen zituena gaztetan; gau batean printzesa poloniar batek abesten entzun zuen, mutilarekin maitemindu zen, eta mutilak diruak xahutu zizkion. Orain Europan barrena kantari dabil Legardy, izar bat da, hiru amoranterekin eta sukaldari batekin bidaiatzen duela dabil zurrumurrua. Emma Bovaryri bihotza taupaka bizian hasi zaio Rouengo antzokian sartu orduko. Nolakoa da Legardy euskaldunaren ahotsa? “Ederra, zentzutasun asaldakaitza, temperamentua gehiago inteligentzia baino, enfasia gehiago lirismoa baino”. Seduktore berritsu bat, hori besterik ez omen da Legardy.

Mikrofonorik ez zegoen XIX. mendearen erdian.

Gaur egun kantariak xuxurla eginez abes dezake; aditzen dizkiogu hasperenak eta garrasiak, barreak eta intziriak, auhenak eta zantzoak, uluak eta antsiak, hatsankak eta irriak..., filmetako aktoreei entzuten dizkiegun bezala.

Bertsolariak ere egin ditzake, nahiz eta ez duen ahotsa hainbeste modulatzeko abagunerik hartzen (oraingoz) mikrofonoa baliaturik.

## **GRABAZIOAZ:**

Partitura izan zen musika grabatzeko lehen formula. Horrela ezagutzen ditugu Vivaldi, Bach, Mozart, Beethoven, Schubert, Berlioz, Chopin, Verdi, Wagner, Smetana, Txaikovski, Grieg, Mahler, Debussy (antzinako gizonak).

Diskoa, magnetofonoa... grabagailua etorri zen gero. Maurice Ravel pianoa jotzen entzunda gaude.

Halako batean, Glenn Gould pianistak kontzertuak emateari utzi egin zion, 1964an, 34 urterekin; grabazioak egitera dedikatu zen.

Koldo Izagirreren liburu berrian (*Bertsoaren harria*, 2019) irakurri dut, magnetofonian grabatzen hasi zitzaizkiela bertsolariei, eta hauek ez zeudela konforme. Manuel Lasartek honela kantatu zuen:

Aparatu hau gorrotatu nun oso gaztea nitzala,  
hau sortu zunak merezi luke pixka bateko itzala.  
Ta ikusten det katxarro hauekin oso gaizki dabiltzala,  
gure bertsoak lapurtzen hemen fraile gaiztoak bezala.

Lazkao Txikik kontatu zuen:

“Eta gertatu zen gertatu beharrekoa gure bertsoak jasotzen zituzten zinta amorragarri haiekin. Bizkaiko herri batean Mattin, Xalbador, Uztapide eta laurok jardun genuen bertsotan bertara joan behar izan gabe, udaletxeko leihotik. Entenditzen duzu, ezta? Horixe, guri paga kentzen magnetofonoa martxan!”

## Der Spiegel – Duett für zwei Violinen – The Mirror

based upon an earlier edition by Fred Nachbaur (fredn@netidea.com)

Allegro

W.A. Mozart (1756-1791)

© 2000, Werner.Icking@gmd.de

Confused? Try playing this from opposite sides of a table

Non-commercial copying welcome.

### ANAGRAMAK ispilua dirudi:

askatu eta sakatu / azkar eta zakar / azaro eta arazo / hoguei eta gehio  
 goria eta giroa / dugu eta gudu / sutea eta ustea / arnastu eta narrastu  
 izkina eta zikina / gunea eta eguna / argia eta garia / gramoia eta margoa  
 arrakasta eta arrastaka / zomorro eta mozorro / larru eta lurra / laua eta alua  
 alarguna eta ar laguna / gorila eta gloria / kaliza eta zakila / laburra eta bularra



## IMITATU, DISIMULATU, SIMULATU:

Etiketarik irten orduko agertzen gara gorputzez (ez osorik biluzik) eta **zeinuz**, oraindik mintzoz agertu gabe ere. Jantziekin **imitatu** egiten dugu modelo bat, patroia bat, eredu bat, izaeraren bat.

Baina jantziez **disimulatu** egiten dugu forma bat, egitura bat, *akatsa* edo *gabezia* edo *edertasuna*, aldartea edo sentipena, izaera ideologikoa, klase soziala; eta aldi berean **simulatu** ere egiten dugu hori guztia. Eta beraz: konformatu, modelatu, nahiak eta asmoak proiektatu, pospolo baten antzeko argia eginez erakutsi.

Hizketan eta berriketan hasten garenean ere (eta keinuka, bide batez) zeinu modu horiek aktibatzen ditugu: **azaldu eta ezkutatu**, patroia batzuk segitu eta garatu (gutxitan aldatu), nor garen adierazi, iradoki, eta nor izan nahi genukeena imitatu ere bai. Dagoena eta garena... eta datorkeena.

**Diskurtso** bat gara, ondorio bat, ilusio bat, sintoma bat, signifikatu bat, estimulu bat, aldarri bat, truke bat, iragarpen bat.

Imitazioa da gauza bat. Disimulua beste bat. Simulazioa beste bat.

**Imitatzea** da: bestea den bezalakoa irudikatzen saiatzea (eta errepikatzea).

**Disimulatzea** da: itxura egitea ez duzula badaukazuna (ez dakizula badakizuna).

**Simulatzea** da: itxura egitea baduzula ez daukazuna (badakizula ez dakizuna).

Presentzia eta Absentzia jokoan ipintzeko moduak dira hirurak.

Baina badirudi hiruretan akzio bereziena simulatzea dela. Hau da: ez dena edo ez dagoena, eta gertatu ez dena edo gerta dadin nahi dena... horrexen arrastoren bat edo ilusioren bat edo irudikapen bat eskaintzea.

Zer dira ba antzerkia, kantua, bertsoa, literatura?, zer da artea?

Eta zer da filosofia?, eta zer historia?, eta zer politika?

## JOLASA ETA JOKOA:

Atsegin hartzeko modu bat da **jolasa**, ondo pasatzeko, alaitasunez; gaitasun batzuk garatzeko ekintzen segida bat ere bada.

Arauek, protokoloak, kodigoak, prozedurak, erritualak, funtzioak, metodoak, mugimenduak, taktikak, balioak, arriskuak izaten dira jolasetan. Eta berdin jokoan ere.

**Jokoan** irabaztea da helburua: dirua, prestigioa, itzala, ohorea, lidergoa, boterea.

Presentzia eta Absentzia, biez baliatzen gara bai jolasetan bai jokoetan. Badena eta badirudiena dantzan hasten dira, azaldu eta ezkutatu.

Hizkuntza da hori, hizkuntza da horrelakoa: erritual bat, arauekin eta paradigmekin, sintaxiarekin; protokoloak eta mugimenduak, sentipenekin eta arriskuekin; estimulua eta sedukzioa, zalantzekin eta esperientziekin.

Zuetako inork ba al daki musean?

Lau lagun artean hamabost minutuko partida azkar bat jokatzeko froga egin genezake, eta besteok aztertu zer gertatzen ari den, ahalik eta ohar gehienak paper batean erregistratzeko (uste baino luzeago joko luke lan honek; karten balioak, protokoloak, karten banaketa, kartak mahai gainean, mus bai edo mus ez erabakiak, apustu kopuruak, ahotsen tonuak eta abiadurak, aurpegi keinuak, mugimendu orotarikoak, tantoen zenbaketa, lasaitasun mailak, arrisku graduak, simulazioak eta disimulatuak eta imitazioak, garaipena/derrota, etc). Elkarriketa bitxiak sortzen dira.

## SORMENAZ:

Zein da sormenaren egitekoa?

Erantzun posible mordo bat eskaintzea galderei, zalantzei, arazoei.

Premiazkoa da **originala** eta **malgua** izatea. Eta **bizitasun** apur bat.

Hori gutxi balitz, gainera derrigorrezkoa da **kritika** gaitasuna, ahalik eta azkarren bereizteko eta baztertzeko ideia burugabeak. (Tira, absurdoa edo aldrebesa izateak edertasun edo umore tanta batzuk ekartzen ditu noizean behin).

Ideiak konbinatzeko, kontrasteak proposatzeko, iradokizun ernagarriak eskaintzeko dohainak dituzte sortzaileek. Noranzko ezberdinetan pentsatzeko, konklusioa zabalik uzteko, zailtasunen aurrean ikararik ez edukitzeko, ideia berrien aurrean abegikorra izateko, galdera eta problema berriak sortzeko.

## UMOREAZ:

Inteligentzia eta memoria senideak dira, baina sormenak egiten du argia eta umoreak distira. Umoreari esker asmatzen dugu kontradikzioei aurre egiten haserretu gabe. Umoreari paradoxak gustatzen zaizkio, fanatismoari ez. We agree to disagree, esaten dute ingelesez, ados gaude ezberdin pentsatzeko, eztabaidatzeko, bat ez etortzeko.

Bost hitz ditu esaldi honek, edo zazpi?

## IMAJINAZIOAZ:

“Oi fantasia, zerk mugitzen zaitu?”, galdetu zuen Dantek (Purgatorioan). Zalantza egin zuen amets tankerako irudi haiekin, ez zekien nondik zetozen, ez zuen ematen oroimenetik zetozkionik. Esan zuen: “Alpeetan lainoak harrapatu zaituenean bezala, eta ondoren eguzki izpi leunez lainoa saretzen hasi, airos agertu da imajinazioa”.

Bai ote? Lehendabiziko irudi haren aurretik ez ote zegoen estimuluren bat?, ez ote zen izan beste signoren bat?: eguzki izpia!

Ez dakit nola gertatzen den irudimen prozesua, fantasia, lilura, begitazioa, asmazioa. Betiko dilema: **hitzetatik** irudi bisualera ala **irudi bisualetik** hitzetara?

Geure baitan *zine mental* moduko bat daramagu, bere kasa funtzionatzen ari zaiguna; zeinuak badatoz eta badoaz, ametsetan ari garela dirudi, eta badoaz berriro etortzeko (adimenetik akaso?).

A) Batzuei irudia azaltzen omen zaie (edo soinua), kontzeptua edo esanahia nola formulatu jakin gabe. B) Ondoren arakutzen hasten dira: idazten, marrazten, kantatzen.

C) Hortik aurrera hurrengo fraseek aginduko dute bidea: simetriez, analogiez, kontrajartzez. D) Eta hartara, garatzen eta antolatzen hasi da kontakizuna: ahots inpostatua nagusitzen ari da, **estiloa**.

Irudimenak ez ditu bakarrik asmatzen objektuak eta ekintzak, ikurrak eta doinuak, komediak eta dramak. Begiratzeko, antzemateko eta ikusteko era berriak ere asmatzen ditu irudimenak: **bizitzeko era berriak**.

## ALTUAGO:

**Onintza Enbeitak** *Berria* egunkarian 2019ko uztailearen 5ean idatzi zuen artikuluak **Tonua** zeukan izenburua. Hemen pasarte bi:

“Gauza jakina da bertsolariok tonuari beti ez diogula txukun eusten. Ariketaren arabera, kosta egiten zaigu ondokoari segitzea, eta batek desafinatu egiten du, edo baxuegi kantatzen du, edo altuegi... Kontua da ikusten dena baino ahalegin handiagoa egiten dugula guztiontzat aproposa den tonuaren bila. (...) Tonua asmatu ezin hori, gaitz hedatua dela uste dut. Edozein lekutan, edonorekin gaudela, politikaz, etorkizunaz eta bizitzaz ari garenean, bakoitza bere tonuan aritzen gara jo eta su: ea zeinek altuago esan beharrekoa, eztarria urratu egingo bazaio ere”.

## AUTORITATEAZ eta BOTEREAZ:

Zer da **Autoritatea**:

prestigioa, garrantzia, ohorea, estiloa, ulergarritasuna, sinesgarritasuna..., etc.  
Kontua da: nor mintzo da, non mintzo da, noiz, noren aurrean, zeri buruz, zein testuinguruan... Eta zer aukera dago dialektikarako edo eztabaidarako?

Autoritateak ez dizu ongi esatea bermatuko.  
Baina ongi esateak eman diezazuke autoritatea.

Zer da **Boterea**:

**dominazio** era ezberdinen multzoa da boterea, entitate bat da, eta **ordena**, **kontrola** eta **influentzia** praktikatzen ditu, autoritate maila handi batez (autoritatea hartua da beti, zati batez emana batzuetan, utzia gutxiagotan).

Botereari buruzko definizio ugari eta diferenteak idatzi dituzte milaka liburutan soziologoek, psikologoek, ekonomialariek, kazetariak, publizistek, idazleek, filosofoek.

*Botere disimulatua* kontzeptua bitxia iruditu izan zait beti.

Eta **Tresnak**:

Hitza daukanak **tresna** bat dauka.

Hitza daukanak ezpata bat dauka.

Hitzarekin egiten da **diskurtsoa**.

Hitzarekin egiten da **kontakizuna**.

Hitzarekin gailentzen da bat, edo talde bat, edo komunitate bat.

**Hizkuntza eta komunikazioa** menderatzen dituenak **tresna ahaltzuak** ditu: errealitatea baldintzatzeko tresnak, errealitatea eraikitzekeo tresnak, komunitatea gobernatzeko tresnak, kategoriak ezartzeko tresnak.

Edozein hizkuntzarentzat, talderentzat, komunitaterentzat, kulturarentzat oso garrantzitsuak dira egunkariak, aldizkariak, argialetxeak, eszenak eta lekuak, erakustokiak, irratia, telebista, internet sareak, wikipedia... eta abar.

**Hizkuntza bat Lurralde bat** ere bada.

Kultura baten oinarrietatik bi dira hizkuntza eta lurraldea.

Eta tresnen bitartez aberasten eta garatzen ditugu hizkuntza eta lurraldea, baita ere komunztatu, egonkortu, orekatu, finkatu (nolabait).

## **NORK BERE AUTORITATEAK:**

Zuk eta nik bezala, haur batek ere bere autoritateak ditu, bere iturriak, bere erreferentziak... Eta horietara jotzen du adierazpen bat edo ideia bat sostengatu behar duenean.

Zuk zeure kulturaren objektuak, esperientziak, oroitzapenak, zeinuak dituzu.

Baina zureak ez dira haurrenak, zure produktuak eta produkzioak ez dira bereak; zure kulturaren signoek ez diote balio orain, are arrotzak iruditzen zaizkio gaur.

Zure haurra gaztea da, kementsua da, etorkizuna da. Eta zure kulturako zeinuak zaharkituta edo iraungita daudela iritzirik, **suntsitu** egin nahi ditu, badaki-eta gaztea denez, kementsua denez, signo berriekin **ordezkatz**en ahal dituela zureak.

## **HELDUTASUNAZ:**

Hautzarotik ihesi iristen gara gaztarora, hautzarotik gero eta urrunago aurrera goaz abiadura bizian, baina ez derrigorrez heldutasunera.

Izan ere, heldutasuna iruzur bat da, jukutria, itxurakeria... helduek asmatutakoa, justifikatzeko beraien hutsegiteak eta aldrebeskeriak, baina batez ere oinarri legal bat emateko euren autoritateari.

## **OSASUNBIDEAZ:**

Osasunbidea hitza entzun orduko pentsatzen dugu... autoritatean: sendagilea, erizaina, ospitalea, kirofanoa, anestesia, laborategia, farmazia, etc.

Autoritate bati utzi diogu osasunbidea kudeatzen, baina baita ere osasunaren kontzeptua kudeatzen.

Ez ote genuke beste toki batetik hasi behar? Esate baterako: **ura eta sua**.

Ura gara zati handi batez; adinaren arabera eta elikaduraren arabera... % 70 eta %55 artean. Urik gabe ezingo genuke bizi 4 egun baino luzeago. Urak garbitzen gaitu, uraren bidez eliminatzen ditugu toxinak. Berotasuna erregulatzen du. Metabolizatzeke ezinbestekoa da, eta biriketetan gas trukeak egiteko. Ura premiazkoa du gure inguruak ere, pixkanaka dena desertua bihurtuko ez bada.

Sua behar dugu berotzeko, argia egiteko, jakiak egosteko, erremintak egiteko. Eguzkiaren suaren inguruan biraka dabil lurra 107.000 km orduko, baina errotazioan ere bai gau eta egun 1.600 km orduko. Eguzkia da gure jainkoa. Egun argiko animaliak gara jendea, lo egiten dugu gauean (nire alabak eta bere lagunek izan ezik).

Orduan, osasun publikoaz hitz egitean mintzatu behar genuke berdin:

iturginaz eta elektrikariaz,  
laborariaz, arrantzaleaz eta jantzi egileaz,  
hondakin bilketaz eta estolderiaz,  
ekologiaz, zaintzaz eta ekonomiaz,  
energiaraz, kutsaduraz eta hilerriaraz,  
alfabetatzeaz, maitazarreaz eta loaz.

## **POEMA BAT**

diskurtsoaz jardun aurretik:

**Amaia Lasak** 1971n bere lehen liburuan poema hau zekarren:

Nereak ez diren  
lurrealde hauetatik  
ihes egin nahi nuke.

Nereak ez diren ur hauek  
alde batera  
utzi egin behar ditut.

Haitz sendoaren biribiltasunean  
nire bizitzaren hitza  
lortu nahi nuke.

Biribiltasunean  
sendotasunean  
haitzaren gainean  
a  
e  
i  
o  
u  
berri bat esan nahi nuke.

## **HITZ MULTZO BAT**

diskurtsoaz jardun aurretik:

Espainola edo gaztelania (latinaren aldaera eta ondorio bat izan den hori), hedadura oso zabaleko hizkuntza guztiak bezalaxe, hitz multzoak osatzen trebatuta dago, hiztegi bereziak antolatzeke eta erabiltzeko ohitura dauka.

Hemen hitz multzo bat, adibide gisa:

sugerir - seducir - persuadir  
asombrar - fascinar - conmovier  
emocionar - alentar - contribuir  
estimular - transmitir - compartir  
atender - apreciar - comprender  
conversar - razonar - convencer  
acordar - resolver - conciliar

Euskaraz ipintzen ahal ditugu hitz multzo horiek, zergatik ez! Nik ez dut lortu. Ez dut aski gaitasun estilistikorik (eta linguistikorik).

## DISKURTSOAZ:

Agurra, elkarrizketa, eztabaida, galdera, iradokizuna, sedukzioa, promesa, negoziaketa, agindua, mehatxua, errieta, kalapita, barkamena, aitorpena, sekretua, zeremonia, mitina, informazioa, irakaspena, erretolika, esamesa, fikzioa, txantxa eta abar, mintzatzeko era ugariaren trukeak bizitzen ditugu egunero, **intentzioaren** edo **borondatearen** arabera. Ekintza linguistikoak eta erritualak dira denak: **portaerak**.

Eta *arrakasta* edo *porrota* gertatuko da denetan: **ondorioak**.

Horrexegatik erabiltzen ditugu **estrategiak** interakzio linguistikoetan.

Aldez aurretik, derrigorrez, **kontaktu** bat egin beharko da; gero, **kooperazio** moduren bat izango da edo ez da izango aktoreen (mintzaideen) artean.

Diskurtsua gara, ondorio bat, ilusio bat, sintoma bat, signifikatu bat, estimulu bat, aldarri bat, truke bat, iragarpen bat.

## TRESNAK DIRA ESALDIAK:

Lehen astunak eta handiak ziren makinak, orain txikiak eta arinak.

Burrunbatsuak ziren tresna haiek isilak bihurtu dira.

Altzairuzko eta burdinazko makina itzelak badira orain ere, noski, baina **bit jario** batek mugitzen ditu; **binary digit** : 0 0, 0 1, 1 0, 1 1 : 2<sup>n</sup>

Zama pixka bat askatu eta arin, zalu, malgu, mehe, leun, sotil, zoli, labain, laster, elastikoa bihurtu behar genuke agian diskurtsua?

Horrek ez du esan nahi ugari, balios, zorrotz, jori, doi, oparo, emankor, zehatz, konkretua izateari uztea solasean, idazketan, marrazketan, doinuan, kantuan. Ez. Erreminta zeinuzkoak egituratzeko eta erabiltzeko moduak egokitzea baizik.

Azken mendeetan, bi borondate lehian izan dira literaturan, musikan, plastikan. Horietako batek joera du hizkuntza izan dadin **pisu arinekoa** (hodeia, hautsa, izpia, erakarpen magnetikoa bezalakoa). Besteak joera du hizkuntzari komunikarazteko ematea gorputzen eta gauzen luze-zabalera, **pisu totala**, materia osoa.

**Iraupen eta erritmo eragiketak** dira kontakizuna, melodia, diskurtsua: murriztua, luzatua, bizkortua, moteldua, ziklikoa, geldia. Denboraren joanaren kapturak.

**Suspense** estrategiak izaten dituzte, entzuten edo irakurtzen segitzeko gogoia iraurazteko aurrena, atentzioa galdu baino lehen bukatzeko gero.

Galileo Galilei: *discorrere è come correre* (arineketa bezalakoa da hizketa).

**Bizia estiloan, azkarra arrazoiketan, doia argudioetan, ameslaria adibideetan.**

## JOKO ZELAIAS:

Erreferentzia markoa edo joko zelaia ezartzen duenaren aldekoa izaten da eztabaida. Zergatik? Esparru horrexen barnean sortuko direlako elkarrizketak, gaiak, iritziak, trukeak, desadostasunak, proposamenak, konklusioak.

Eta kontuz zulotik kanpo pixa egitearekin: zikina, desatsegina, perturbatzailea izango zara.

Erreferentzia markoa definitzen duen huraxe izaten da eraginkorra (eta dominantea) negoziazio guztietan. Joko zelaia markatzen duenak dauzka autoritatea, kontrola, ordena, boterea.

## MARKOAK:

Adibidez: “Euskarazko liburu gutxi erosten dituzue”.

Esaldi horren markoa ezarriz batera, justifikatuta geratu da: a) erdarazko liburuei leku hobekuntza eskaintzea dendetan; b) erdarazko liburuen publizitate orriak banatzen segitzea; c) erdarazko tituluak aholkatzea eta prestigiatzea; d) erdarazko liburuek izaten duten iraungitze data bera aplikatzea euskarazkoei ere; f) erdarazko liburuen merkatu lege berberak aplikatzea euskarazkoei dendetan eta distribuzioan; eta abar.

Joko zela horretan, oraindik, ez da kabitzen euskarazko argitalpenen denda serio eta oparo bat zabaltzea Euskal Herriko hiribururen batean.

Ez da kontua ez dagoela aski argitalpen euskarazko eta kalitatezko denda eder bat zabaltzeko (katalogo iraunkor batekin gainera), baizik eta ez zaiola sekula uko egin nahi erdarazko liburuak ere saltzeko negozio aukerari.

Adibidez: “Kultur programek ikusle kopuru txikia dute telebistan”.

Joko zela hori markatuz gero, akabo!: a) telebista publikoan ez dago musika edo antzerkia edo dantza edo arte plastikoen programarik; b) irrati publikoan musika kateak badira, baina telebistan ez da posible kultur kate bat; c) telebistan ez da normaltasunez eta maiztasunez promozionatzen eta informatzen ez arte plastikoez, ez antzerkiaz, ez dantzaz, ez zinemaz, ez musikaz; d) euskarazko sorkuntzak ez du lehi publikorik telebistan; e) euskarazko sorkuntzak ez du irudizko kontakizunik, gordailurik, memoriarik telebista publikoan; f) munduko kulturari buruz euskaraz telebistan maila jaso batean jardun ahal izatearen aukera itota dago; g) euskarazko espresio ederrenei bizkarra ematen die telebista publikoak, eta horrela telebistak bere buruari ukatu egiten dio irudi ederragoa eskaintzea eta erakustea; eta abar.

## PROPAGANDAZ:

Konbentzitzea da propagandaren xedea, jendearen babesa handitzea edo jendearen iritzia bideratzea, diskurtso pertsuasibo baten bidez eskuarki.

Testuak barreiatzen ditu propagandak (era askotako zeinuak eta mezuak), baina batez ere kontestuak sortzen ditu: **zirkustantziak, giroak, kondizioak**.

Ez baita nahikoa norbanakoari hau edo hura informatzea, aholkatzea, premia iradokitzea, onurak formulatzea. Taldea edo komunitatea pertsuaditu eta gidatu behar du propagandak, efektua izango baldin badu; taldearen ohiturak, bulkadak, helburuak, emozioak kilikatuz, adoretuz, moldatuz eta landuz gero, propagandak multzoka mugituko ditu norbanakoak.

Horregatik, testuen hedatzeak baino eragin handiagoa izango du kontestu aproposa sortzeak; sekula ahaztu gabe mezua izango dela muina, ideien forma, helburuaren funtsa, objektu desiratura gidatuko gaituen argia.

Norbanakoaren ezaugarri mentalen aldean ezberdinak dira taldearenak edo komunitatearenak. Psikologia indibidualaren azterketak baliagarriak dira propagandaren profesionalarentzat, jakina, baina badaki beste molde batekoak direla jende multzoen jokabideak. Taldearen izaerara eta arauetara moldatuz (ere) portatzen gara. Nolabait ulertzeko: pentsamenduak ordeztu, aldarteak eta ohiturak ditu taldeak; eta erabakiak hartzeko unean, askotan, konfiantzazko lider baten jarraibideak segitzea izaten du joera.

Orduan, norbanakotzat jo behar ote genuke lider bat?

Propagandarentzat, makina soziala funtzionarazten duen elektrizitatea pertsonen desirak dira.

## KONTZIENTZIAZ:

Eragiketa moduko bat da kontzientzia:

erantzuna izan duen zerbait pasatzea galdera izaerara,  
eta ondorioz galdera honi beste erantzun bat (berria) ematea;  
eta gero ekin berriro...,  
disoziaezinak baitira akzioa eta erreakzioa.

Konbinazioan eta konkurrentzian, aldi berean, aldaketa multipleen operazioak egiten dihardute pentsamenduek eta sentimenduek.

Kontzientzia hartzea (definizio posible bat):

probablea dena hautematea,  
posible denaz konturatzea  
eta horren arabera ekitea.

## ZEREN ALDE:

Jendeak bere **identitatearen alde** jokatzeko du (eztabaidan, bozketan edo borrokan), ez derrigorrez bere interes partikularren arabera. Baliteke identitateak eta interesek bat egitea sarritan, baina batez ere taldearen identitatearen alde eta norbere identitatearen alde egingo du pertsonak (generoa, klasea edo autodeterminazioa).

Okerra da uste izatea jendeak beti bere interesen alde jokatzeko duela.

## ASIMETRIAZ:

Gure kulturaren **oposizio kontzeptualak** egiteko ohitura daukagu: hotza/beroa, gordina/egusia, forma/edukia, izpiritua/materia, ideia/objektua, aktiboa/pasiboa, hartu/eman, ezker/eskuin, goi/behe, neska/mutila, originala/kopia, natura/kultura, zuria/beltza, argia/iluna, itzali/piztu, zero/bat.

Eta norberaren kontestuaren arabera, historiaren arabera, perspektiba sozialaren eta ekonomikoaren arabera, balioak ezartzen ditugu; “bat bestea baino” kontsideratzeko joera, alegia.

**Asimetria** da hori. Desoreka.

Eta gure kulturaren ordena sinbolikoa egituratzen dute asimetriak. Zentzua ere determinatu egiten dute asimetriak. Beraz, beharbada esan genezake, asimetriak edo desorekak gure zeinu sistema baldintzatu egiten duela, gure **signo sistemak** ez dituela parekidetasun eskubideak aintzat hartzen, ikur sistemak badituela zentro ofizial bat eta dominazio bat, eta presio horretatik askatu egin behar dugula.

**Dekonstrukzioa** deitzen zaio estrategia horri, **askapen prozesu** horri, sistema sinbolikoen errepresiotik liberatzeari.

Debate baterako gaiak:

Mendebaldeko kulturak sinbolikoki desbalorizatu eta desjabetu eta dominatu egin ditu beste kulturak.

Espanierazko eta frantseseko kulturek ere bai euskarazko kultura.

Gizonezkoen espresioek ere bai emakumezkoen sorkuntza espresioak.



## NOLA ALDATZEN DIREN HITZAK, KAMARADA

harri, jarri, larri, sarri // berri, gerri, herri, zerri // irri, kirri, tirri, zirri // orri, gorri, zorri

**arbitrarioak** dira hitzak, direlako konbentzio batzuk,  
esaldiak direlako estandar eta eskema batzuk,  
sistema sozial batzuk, eredu eta arau adostu batzuk.

Aspalditik edo betidanik badakigu... et, et, et,  
gutxirekin asko adieraz lezake hitzak: ETA, ETB, ETC

Eta hitzak azkar aldatzen ahal dira:

—**PC** guretzat partidu komunista zen lehen (mundu osora hedatuta zegoen terminoa), baina gaur egun PC ikusten dugunean personal computer esan nahi du (eta mundu osora hedatuta dago ia).

—**Zinemaldia** esaten genion lehen, oraindik ere Zinemaldia esan nahi genioke (“zinema” hitza dauka, nazioartean jende guztiak badaki zertaz ari garen, izen erraza da identifikatzeko eta ulertzeko denentzat, eta “Zinemaldia” euskaraz esatea da). Baina iaz zerbait aldatu zen, eta orain da **SSIFF** (San Sebastian International Film Festival).

—**LAB** langileen sindikatu bat da guretzat, baina laborategia adierazteko laburdura bilakatzen ari da pixkanaka. KulturLab esateraino iritsi gara, kultur laborategia adierazi nahian; edo Open Lab Urola Kosta daukagu (*do it yourself* horietako bat, alegia). Hurrena, Laborategi Analitiko Biokimikoa izango da LAB.

Adibide bitxi bat:

Disimulatzearen eta simulatzearen jokoaz baliatzen da boterea.

Eta **zeinu baliokideak** hedatuz, errepikatuz, komunikatuz,  
disolbatu egiten ditu kontradikzioak (eta borroak, eta rolak, eta identitateak).

Zer egin du botereak lanarekin?

Lana produkzioari estu lotuta zegoen lehen, biolentzia modu bat zeukan, indarra eta denbora hurrupatzen zitzaizkion langileari. Lehen lanari deitzen genion **beharra**. Baina orain zertan bilakatu du botereak lana? Berdin behartzen gaituzte (noski) asko produzitzera, baina lana orain ez da beharra, orain **premia** da, ez da ustiatze bat, lana **eskari sozial** bat bihurtu dute, aisia eta oporra bezala.

Botereak jolas egiten du, disimulatuz batzuetan eta simulatuz bestetan; hitzak eta era guztietako zeinuak erabiliz, botereak jokoak egiten ditu botererik existitzen ez dela uste izan dezagun. **Boterea hortxe dago**, hain zuzen, ja **existitzen ez dela ezkutatzeko** (eta ezkutatzen).

Botereak diosku ez dagoela botererik, baizik eta **eskaintza eta eskaria**.

Jokaldi ederra: zure esku daude, desira eta gozamina bezala. Libre zara.

Lan egiten segi ezazue (edozein ordutan), lanik egingo ez bazenute bezala.

**Ekibalentzia** batzuk asmatuz, botereak **itxuraldatu** egin du lanaren izaera.

Nolanahi dela, umore pixka bat...

oraindik jolas politik egiten usatuak gara hitzen eta baliokideen bitartez:

—**bbk** ja ez da banketxe bat, baizik eta **bihotz bakartien kluba**.

—**Euskal Erdia** esan ohi diogu **EAE** autonomi elkarteari.

—hitz oker esanari edo idatziari (lapsus bati) esaten diogu: **hiztripua**.

Bidean hitzen bat erortzen bazaink, lepoan hartu eta segi aurrera.

## ZENBAKIAK:

Mintzoa lehenagokoa da idazketa baino, jakina; baina batzuek uste dute, zenbaketa lehenagokoa dela mintzoa baino. Atzamarren bidez adierazitako kantitateak: bat, bi, hiru, lau, bost edo asko.

Bi motatako zenbakiak daude:  
oso txikiak: 1, 2, 3, 4, 5  
eta zenbaki guztiak.

Zenbaki txikiekin asmatzen dut zenbatzea. Arazoak ditut zenbaki guztiekin. Ooo, analfabetoa naiz matematikan (ere).

Matematikariak gaitasuna dauka ekuazioak irudikatzeko, eta ondoren ekuazioaren bidez nahi beste zenbatzeko.

Bi matrize: (15) dortoka txinatarra:  $\begin{matrix} 4 & 9 & 2 \\ 3 & 5 & 7 \\ 8 & 1 & 6 \end{matrix}$  (34) Dürer-en *Melankolia*:  $\begin{matrix} 16 & 3 & 2 & 13 \\ 5 & 10 & 11 & 8 \\ 9 & 6 & 7 & 12 \\ 4 & 15 & 14 & 1 \end{matrix}$

## ZENBATZEN:

Zenbakia: non kokatu, hura balio.


Asmakizun aparta izan zen **posiziozko zenbakikuntza**. Txinatarren kulturari zor diogu. Txinako budistek Indian zabaldu zuten V. eta VI. mendeen artean. Eta ondoren, gainera, indiarrek **0 (zero)** operatiboa asmatu zuten VII. mendean. Indiako persiarrek eurentzat hartu zuten sistema, eta haiengandik musulmanek; al-Khwarizmik *Indiako zenbakiez egindako kalkuluei buruz* izeneko liburua idatzi zuen IX. mendean. Al-Andalustik barrena hedatu zen Europara. Pisako Leonardo matematikari italiarrak, Fibonacci deituraz ezagun dugunak 1202an *Kalkuluen liburua* idatzitakoan adierazi zuen, notazio erromatarra baino zatiaz praktikoagoa dela **hinduarabiarra**. Ez zen berehala errotu, ordea; Gutenbergek 1450ean inprenta asmatu zuenez gero hasi zen nagusitzen gaur darabilgun zenbakera sistema.

Espainiarrek maien zibilizazioa zanpatu zutenean, ohartu ziren haien ere ezagutzen zituztela posiziozko zenbakikuntza eta 0 (zero). Sistema hogeitarra erabiltzen zuten.

Parea da zero: -10, -9, -8, -7, -6, -5, -4, -3, -2, -1, 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10  
Sistema digitalean: 0 da itzalita eta 1 da piztuta.

## FIBONACCIREN ESPIRALA:

Fibonacciaren sekuentzia deitzen diogu Indian ezaguna zen zenbaki segida honi: 0, 1, 1, 2, 3, 5, 8, 13, 21, 34, 55, 89, 144, 233, 377, 610, 987, 1597, 2584, 4181, 6765...



## ZIENTZIEN LENGOAIAK:

Zientziek beren lengoaiak dituzte:  
matematikak, fisikak, kimikak, mekanikak, informatikak, estatistikak...  
(hitzaren zientzian: fonetika, fonologia, morfologia, sintaxia, semantika).  
Badira beste lengoaiak batzuk ere asko maite ditugunak: plastika eta musika.  
Lengoaiak dira denak, baina funtsean hizkuntza hitzezkoa eta mintzatua da gizakia definitzen duena.

Matematikaren edo musikaren lengoaiak ez dute itzulpenik behar; baina munduan hizkuntza mintzatuek itzulpena behar dute (tratuan, trukean, kooperazioan).

## MATEMATIKA:

Hizkuntza **isil** hori: matematika!

Analisi matematikoen transformatu egin zituen fisika eta kimika. Eta matematikaren kulpaz eta matematikari esker, izarrek ere ihes egin zuten mitologiatik eta sartu ziren astronomiaren gelan.

Nolanahi dela, oraindik hizkuntza isil horiek ez dute hizkuntza berbazkoa guztiz abandonatu: matematika, fisika, kimika ikasten ditugu mintzoz, hitzez. Eta axiomei, teoremei, teoriei, araei, legei hitzezko izenak jartzen zaizkie (momentuz); matematikariek eta fisikariek eztabaidatu egiten dute; artikulua idazten dituzte.

Analfabeto hutsa naiz hizkuntza matematikoa; lotsagarria da, bai. Nolanahi ere, irudipena daukat, oro har, ia denontzat amildegi bat zabaltzen ari dela berbazko kodigoaren eta matematikazkoaren artean.

Matematika hizkuntza txundigarria da. **Garbia** da, nahi bada. **Isila**. Agian, historian, ez da zikindu izan tragediekin eta traizioekin hizkuntza mintzatua bezainbat.

Matematikak garai berri hauetako nagusitasun automatikoa eta elektronikoa adierazteko gaitasun aparta dauka.

Baina matematika ez da mintzoa, ez da hitza, ez da arnasa eta gorputza.

## EKUAZIOAK:

Berbetan ari garenean, azalpen sinpleena omen da azalpen onena (ahal izanez gero, noski). Sarritan iruditzen zaigu esaldi laburra dela dotoreena, esentziala ematen duelako bere formarengatik.

Antzeko zerbait gertatzen da ekuazio matematikoarekin.

BBC hedabideak inkesta bat egin zuen matematikari eta fisikari batzuen artean. Leonhard Euler, XVIII. mendeko suitzarra aipatu zuten batzuek (“matematiketako Mozart izan zen Euler”), eta haren ekuazioetatik Eulerren Identitatea izenekoa nabarmendu zuten. Oso laburra da:  $e^{i\pi} + 1 = 0$

Laburrak dira baita ere... Pitagorasen  $a^2 + b^2 = c^2$ , Newtonen Grabitazio Legea, edo Gaussen Banaketa Normala, edo Boltzmannen Termodinamika Legea, edo Einsteinen  $E = mc^2$  energiaren eta masaren arteko ekibalentzia.

Ekuazioen edertasunean edo dotorezian faktore hauek parte hartzen omen dute: **laburra, harrigarria, originala, ikuspegi berria.**

## ZIENTZIA NATURALAK:

Bereizi ohi ditugu  
zientzia zehatzak eta zientzia testuzkoak,  
zientzia naturalak eta zientzia sozialak.

Zientzia zehatzek matematika darabilte natura ikertzeko.  
Baina matematikaren hizkuntzak barne logika propioa dauka.  
Eta kanpoko hori guztia da natura.

Naturaren *kontrakoa* da matematika, isila eta garbia eta izpirituzkoa da matematika.

Ez al da misterio bat naturaren portaera?, ez al dirudi naturak zehatz dakizkiela matematikaren gramatikak eta legeak?, ez al dirudi matematikaren arabera funtzionatzen duela naturak?

## ARAZO TXIKIAK WIKIPEDIAN:

Euskarazko Wikipediaren arduradunek aitortu dute, kalitate eta kantitate gehiago dagoela zientzia puruei buruzko artikuluetan. Letretako diziplinetan motelago eta eskasago omen dabilta.

Honela esplikatu dute: “Historian, filosofian..., gaiak sakonagoak dira, dentsoagoak. Sarritan edukiaren inguruan ez dago zientzietan dagoen bezainbesteko adostasuna adituen artean. Horrek zaildu egiten du”.

## MATEMATIKARIAREN NORTASUNA:


Zientzietako lengoaiak hizkuntza hitzekoa eta kulturala behar izaten dute, modu batez edo bestez. Bi matematikaririk elkar ulertuko dute beren lengoia *isilaren* bidez, baina uneren batean harremana edo trukea edo kooperazioa landu beharko dute hitzez edo mintzoz, kulturalki.

**Matematikaria**, orduan, **bere kulturaren bitartez** espresatuko da.

Gizakia kultua da, hizkuntza hitzekoa eta mintzatua duenez gero.  
Eta gizakiak bere nortasuna eta kultura zabaltzen ditu beti munduan.



## ALBRECHT DÜRER-EN MELANKOLIA:



1514an egin zuen. Grabatuaren neurriak: 24 cm luzera eta 18,8 cm zabalera.  
Bitxia: 15 - 14 zenbakiak elkarren ondoan ageri dira, goiko taulako azken lerroan.  
Egin zuenean 43 urte zituen Albrecht Dürerrekin. Zenbakiak beti 34 batzen dute (ispilu efektua?).  
Emakumezkoa du protagonista. Hegoak ditu, inteligentea da. Erramu koroa darama.  
Haurra du aldamenearan, gurpil baten gainean eserita (idazten / ikasten). Zakur leiala etzanda.  
Andrearen konpasa du eskuineko eskuan. Gerritik zintzilik giltzak (jabetzak, autoritatea).  
Irukiak: balantza eta ordularia eta erregela (neurriak), zenbaki taula eta ezmila (matematika,  
harmonia, musika), kometa (astronomia), ostaderra (optika), esfera bat eta poli-Oteiza bat  
(geometria, perspektiba), konstrukzio tresna askotarikoak lurtean (zurgintza, arkitektura), zazpi  
mailako eskailera. Airean saguzarra, MELENCOLIA izenburua erakusten (asmamena?, utopia?).

## **KULTURARI BURUZ:**

Kultua ez denik ez dago munduan.  
Nork bere kultura dauka. Nork bere hizkuntza dauka.

Hizkuntzak definitzen du gizakia.  
Gizaki hiztunen taldeak definitzen du kultura.  
Kulturak definitzen du herria.  
Euskara dugulako gara euskaldunak Euskal Herrian (eta munduan).

**Badakiguna gogoratzea** da kultura, hori gutxi-gutxienez.

Gure kode genetikoa da gauza bat (hor gordetzen dugu gure gorputzaren informazioa), eta beste bat da hizkuntzak biltzen eta gordetzen duen **korpua**: ezagutza sorta handi bat, hitz egituratuaren sorta bat, **memorizatua**. Eta horri deitzen diogu **kultura**: esperientzien, ezagutzen, espresioen metaketa (geneetan idatzi gabea).

Eta ezinezkoa denez ez komunikatzea (portaera oro da komunikatzeko era bat), komunikatzeak trukea eta kooperazioa dakartzanez (batzuetan simetrikoa, besteetan asimetrikoa), komunikazioan zer adierazten dugun eta nola adierazten dugun batera datozenez...

- Komunikazio forma bat da kultura.
- Jendearen arteko harremanak aberastea da kulturaren egitekoa.
- Ez da aurkeztu behar inposatze bat bezala, edo eginkizun zaila, edo lehia porrokatua, edo geure burua lausengatzeko eta zuritzeko formula gisa.
- Norbanakoak zein komunitateak hizkuntzaren bidez landutakoa gogoratzea, horren kontzientzia hartzea eta zabaltzea da kultura.
- Gizakien arteko elkar ulertzea plazer bat bihurtzen duen harreman estilo bat da kultura.

## **NOR GARA GU?**

Kultura bat gara munduarekin harremanean, trukean, kooperazioan arrantzaren eta laborantzaren bitartez, industriaren eta merkataritzaren bitartez, turismoaren eta kirolaren bitartez, politikaren eta teknologiaren bitartez, hezkuntzaren eta osasunaren bitartez, baina batez ere kulturaren bitartez: literatura, bertsoa, musika, dantza, antzerkia, arteak, zientziak, zinema, diseinua, etc.

Hizkuntzak eta Kulturak ematen dizkigu nortasuna, identitatea, marka munduan.

## KULTURA KONTZEPTUAZ - 1:

**Erromatarrak** izan ziren *kultura* kontzeptua sortu zutenak, lehendabiziko mendean. **Latinez** *cultura* eta *cultus* hitzek adierazten zuten: lurra lantzea eta gurtzea lurra babesten dituzten jainkoak.

1/

Kultura kontzeptuaren lehen adiera **Zizeron** politikari, idazle, hizlariari zor zaio; hark sortu zuen ***cultura animi*** adiera. Eta zer adierazi nahi zuen? Hauxe: lur bat ez da emankorra baldin eta lantzearen ondorioz fruiturik ez badakar; eta gisa berean, gizakiaren gogoak kultura behar du, **gogoak kultibatzea** alegia. Gogoaren kultibatzea da filosofia, Zizeronentzat. Gauza bat da eskolatzea, eta beste bat da pertsonalki kultibatzea. Eta kultibatzekeo premiazkoa da: liburu garrantzitsuak irakurtzea, arte handiak ezagutzea, pertsona jakintsuei aditzea; hau da: ***klasikoekin*** solas egitea.

2/

Kultura kontzeptuaren bigarren adiera **Ilustrazio garaian** sortu zen; eta hau da bigarrena: humanitateak lortutako maila jaso, **goren graduko jakintza eta gustu ona**. Voltaire eta Ilustrazio garaikoei iruditzen zitzaien Grezia eta Erroma garaiak atzean utzi zituztela, gainditu egin zituztela.

3/

Kultura kontzeptuaren hirugarren adiera **Erromantizismo garaian** sortu zen; eta hau da hirugarrena: **komunitatearen nortasuna** edo identitatea; Herriak ere garatu egiten dira pertsonak bezala, eta ez dago kultura bat bestea baino gehiago dena, izan ere, kultura bakoitzak ditu bere izaera eta helburu propioa. Erromantizismoaren ikur bi ziren berdintasuna eta askatasuna. Erromantiko alemaniarrek abiatu zuten antropologia, kultura partikularren estudioa.

Orduan aise ohartuko gara zer/nor diren klasikoak, ilustratuak eta erromantikoak:

- elitistak dira klasikoa eta ilustratua,
- popularra eta komunitatearen kultura goratzen du erromantikoak.

## KULTURA KONTZEPTUAZ - 2:

Erraz nahasten ditugu kultura eta erudizioa.

Kultura, ordea, ez da jakintzen akumulazio handiaren araberakoa, baizik eta jakintzek gure memorian izaten duten ordenaren araberakoa, gure portaeretan izaten duten agerpenaren araberakoa.

Pertsona kultu baten jakintzak agian ez dira asko izango, baina izango dira harmonikoak eta koherenteak, eta sortzailea izateko bi ezaugarri garrantzitsu badira behintzat.

Eruditoak jakintza kopuru handiak gordeta eduki ditzake bere baitan. Errepikatu ere egin ahal izango du bere ondare hori denon aurrean, baina horrek guztiak ez dio bermerik emango sortzailea izateko (gordetzaila bai); eta portaera... auskalo nolakoa.

## **HISTORIAZ edo KONTAKIZUNAZ:**

Botere edo legitimitate edo prestigio edo lidergo moduren bat daukanak egiten du historiaren kontakizuna. Eta **historia idatzi egiten da**, esaldiz finkatzen da.

Garaileak idazten du historia, baita garaituena ere (baldin eta inor gogoratzen bada hauez).

George Orwell idazleak esan zuen 1949an argitaratutako *1984* nobelan: “Oraina kontrolatzen duenak kontrolatzen du iragana, eta iragana kontrolatzen duenak kontrolatuko du etorkizuna”. Nobelako protagonistak (Winston Smith) **Egiaren Ministerioan** lan egiten du, non historia ezabatu egiten den edo berriatzi egiten den, benetan gertatu zenaren arrastorik gera ez dadin.

Ez da beti guztiz horrela gertatzen; orain, gu idazten ari gara Gernikaren bonbardaketaren historia. Xabier Irujok idatzi berri duenez, 1.100 airezko bonbardaketa operazio baino gehiago egin ziren 1936ko uztailaren 22tik 1937ko abuztuaren 18a bitartean Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian 397 egunetan; 2,7 operazio eguneko ateratzen da bataz bestekoa; 1937ko martxoaren 31tik ekainaren 22a bitartean 687 bonbardaketa egin ziren, eguneko 8,4.

Baina garaituen kasuan oso-oso gutxitan gertatzen da hau; eta gertatzen denean... zenbat urte geroago egiten ari gara Gernikako bonbardaketaren kontakizuna?, hor dago koxka.

Jean Paul Sartre (pixka bat alai zegoen egunen batean agian) esan zuen: iragana ere alda daiteke.

Ezaguna da Bertolt Brechten poema hau: *Langile baten galderak liburu baten aurrean*; Mikel Laboak kantatzen zuen (alemanetik Joxe Azurmendik itzulita, uste dut).

Nolanahi dela, kontu segurua da, Botereak eta Estatuak ahalegin biziak egiten dituzte historiaren zati batzuk abolitzeko (eta ezkutatzeko).

Eta lortzen ez dutenean, orduan hitz jokoz disimulatzen eta simulatzen dute; krimenaren kontzeptua itxuraldatu egiten dute, dena nahas-mahas batean gogora dadin (konfusio generala).

Historiaren kontakizunak gizonezko boteretsuen esku egon dira, parametroak eta paradigmak sortu dituzte, eta beren gisara egituratu eta bete eta osatu dituzte.

Jean Baudrillard idazlearen gogoeta bat (1978):

“Atentatu bat Italian, adibidez; ezker muturrak egina izan al da?, eskuin muturraren probokazio bat izan al da?, edo zentristek egindako muntaia izan da desprestigiatzearen muturreko horiek biak eta, bidenabar, boterean indartuta segitzeko? (...) Dena da egia aldi berean (...) Simulazioaren logikaren erdian murgilduta gaude, eta ezerk ez dauka zerikusirik gertakarien logika batekin”.



## **HISTORIAZ eta KONTAKIZUNAZ:**

Gurpila, hara!, biribila da: esfera bat zirkulura ekarria, erradio eta zirkunferentzia eta guzti, lizar egurrez egina, eta haritzez ardatza. **Sofistikazio simple** bat. Adibidez, duela 5500 urtekoa, Eslovenian aurkitua.

Astoz eta zaldiz ibiltzen zirenean, halako neurrikoak izaten ziren jendearen ibiliak, garraioak, trukeak, salerosketak, gerrak. Gero XIX. mendetik hona bizikletaz, trenez, motoz, kotxez, autobusez, hegazkinez, helikopteroz abiatu gara.

(Automobila ote da XX. mendeko tresna hedatuen artean bereziena?, ala telefonoa?).

A ze abiadura hartu dugun denbora gutxian! Mintzoaren, kantuaren, idazkeraren forman eraginik izango zuen abiadura honek guztiak, ezta?

Nola idazten zituzten nobelak argi indarrak ez zutenean? Nola idazmakina asmatu baino lehen? Eta ordenagailua baino lehen? Gaur egun telefonoz idazten du gehien jendeak. Zein abiaduratan? Nola eragiten ari zaio sintaxiari? Eta iruditeriari?

Formula matematikoak imitatzen ariko bagina bezain labur eta sintetikoak bihurtzeko joera honek nora eramango ditu gure sentipenak adierazteko erak eta estiloak?

Ze aerodinamika klase izango ote du literaturak ehun urte barru? Eta kantuak?

## **AERODINAMIKAZ:**

Zer da ba kontakizuna?: **erritmoaren sekretua, denboraren kaptura.**

Premiazkoa da arina izatea, txoria bezalakoa (baina ez luma bezalakoa). Halaxe esaten zuen Paul Valery poetak.

Bizitzaren pisuaren aurrean, erreazioz, arintasuna bilatu ohi dugu. Hori esaten zuen Italo Calvino idazleak. Komunztadura moduko bat dago melankoliaren eta umorismoaren artean.

Abiadura mentala, adaptazio azkartasuna, espresio bizia, zehaztasun sinplea... atseginak egiten zaizkigu. Zergatik?: pentsamendu, irudi eta sentsazio ugarirekin laguntzen digutelako *hegan* egiten.

## **KATEGORIEZ:**

obra onak ez du azalpenik  
obra txarrak ez du aitzakiarik  
erdipurdikoak ez du interesik

makina ona → burrunba gabea ← poema ona

## LITERATURAZ:

**Estilo kontu bat** da literatura. Formak organikoa bihurtzen du ideia. Julio Cortazarren *Rayuela* (1963) nobelako 68 pasartea hemen:

Apenas él le amalaba el noema, a ella se le agolpaba el clémiso y caían en hidromurias, en salvajes ambonios, en sustalos exasperantes. Cada vez que él procuraba relamar las incopelusas, se enredaba en un grimado quejumbroso y tenía que envulsionarse de cara al nóvalo, sintiendo cómo poco a poco las arnillas se espejunaban, se iban apeltronando, reduplicando, hasta quedar tendido como el trimalciato de ergomanina al que se le han dejado caer unas fílulas de cariaconcia. Y sin embargo era apenas el principio, porque en un momento dado ella se tordulaba los hurgalios, consintiendo en que él aproximara suavemente sus orfelunios. Apenas se entreplumaban, algo como un ulucordio los encrestoriaba, los extrayuxtaba y paramovía, de pronto era el clinón, la esterfurosa convulcante de las mátricas, la jadehollante embocapluvia del orgumio, los esproemios del merpasmo en una sobrehumítica agopausa. ¡Evohé! ¡Evohé! Volposados en la cresta del murelio, se sentían balpamar, perlinos y márulos. Temblaba el troc, se vencían las marioplumas, y todo se resolviraba en un profundo pínice, en niolamas de argutendidas gasas, en carinias casi crueles que los ordopenaban hasta el límite de las gunfias.

Uxue Alberdik euskaraz ipini zuen Julio Cortazarren kapitulu hori.

Orain arte, barkatu, orrialde hauetan guztietan ez dut betarik hartu itzulpengintzaz jarduteko (eta ez dut astirik izango aurrerago ere).

## POESIAREN GRAMATIKAZ:

Hizkuntzaren egituran gordeta daude errekurso poetikoak. Esan dezagun gordeleku horietan badela poesiaren gramatika bat, eta egitura morfologiko eta sintaktiko berezi batzuen bidez sortzen dela literatura.

Misterio bat da nolako trebetasunez menderatzen duten gramatika hori sortzaileek. Harritu egiten gaituzte, eta hunkitu, hitzez osatzen baitituzte **fikzio** biziak eta iraun egin dezaketen **pertsonaiak**.

Gizon-emakumeen **portaeren motiboak** kontatzeaz arduratzen da literatura, eta gizon-emakume horien irudiekin eta esperientziekin gure kontzientziaren nolakoan eragin bat probokatzen dute poetikaren langileek. Gure imajinazioa eta desirak asaldatzen dituzte, gure asmoak eta ametsak.

**Irakurtzea da**, beraz, gure intimitate sakonean murgiltzeko (beste) akzio bat, arriskutsu samarra, gure nortasuna urratzeko aukeran uzten dugu-eta.

Eta **idaztea da**... Ez da bakarrik ezagutzen den hura transmititzea, baizik eta **ezagutza klaseren batera iristea**, astiro, idazten dihardugun ahala antzeman eta konprenituko baititugu giza kondizioaren kontuetatik asko.

Distira da literatura, isiluneen eta esaldien arteko konbinazioaren tximista.

## IDAZLEAK, ANTZERKILARIAK, KIROLARIAK:

Vitruvio izeneko arkitekto, ingeniari eta idazle erromatarra (zerogarren urtekoa) *Arkitekturaz* liburuaren bederatzigarren zatian kexu da: idazle handiek ez dituzte soldata/ordainsari eta gorazarre handiak izaten, baina txapeldun olinpikoei bai.

Egia da, zioen Vitruviok, kirolari olinpikoei beren gorputzekin gauza miragarriak egiten dituztela, baina balentria iragankorrak edo iraungikorrak edo galkorrak (efimeroak) besterik ez dira; eta batez ere, ez dute ikusleen gorputzik hobetzen edo ontzen edo aurreratzen.

Aldiz, autore handiek gauza miragarriak egiten dituzte euren gogoarekin, eta irakurleek euren gogoia hobetu edo ondu edo aurreratu egiten dute.

XV. mendera arte ez zen Vitruviorena baino liburu garrantzitsuagorik idatzi arkitekturari buruz.

Shakespeareren *Hamlet* antzezlanean, 1602an idatzia (orain dela 400 urte), bigarren atalean, teatro konpainia bati buruz hizketan ari dira lagunartean; eta Hamletek gaztetako bi adiskideri galdetzen die (gobernuaren espioiak dira bi adiskideak), eta Hamletek galdetzen die: “Nork ematen die jaten antzerkilariei? Zer soldata klase hartzen dute?”. Aparta da solasaldia, osorik irakurtzeko gomendioa egiten dizuet.

Hamleten akatsa: esan behar zuen: To do or not to do (hori da kontua).

## ANTZERKIAZ:

Garai berean sortu ziren Grezian filosofia eta antzerkia, jendearen bizitzari buruz, errealitateari buruz, munduaren nolakoari buruz jarduteko.

Filosofia eta antzerkia bi literatura klase direla esan liteke. Zerk bereizten ditu antzerkia eta beste literatura motak?: ez berbazko elementuen erabilera oso garatu batek.

Tadeusz Kowzan semiologoak 13 osagaiko sistemaren bidez deskribatu zuen antzerkia:

1 hitza 2 tonua	testu esana	AKTOREA	entzunezko zeinuak	denbora
3 mimika 4 keinua 5 mugimendua	gorputz adierazpena		ikusizko zeinuak	denbora eta espazioa
6 makillajea 7 orrazkera 8 jantziak	aktorearen itxura		espazioa	
9 atrezzoak 10 dekoratua 11 argiak	espazioaren itxura	aktoreaz landa	entzunezko zeinuak	espazioa eta denbora
12 musika 13 hotsak	soinu efektuak		entzunezko zeinuak	denbora

Ekintza komunikatibo oso berezia eta zirrargarria da antzerki emanaldia. Elementu ugari osatzen dute / parte hartzen dute. Zeinu sekuentzien konbinazioak egiteko aukera asko zabaltzen da.

Eguneroko bizitzako kodeen arteko konexioak errepikatzen direlako gozaten dugu hainbeste antzerkian, eta bertatik bertarako delako, gorputzeko delako, pertsonaiak haragizkoak bezain ametsezkoak direlako.

## **PERTSONAIEZ (aktoreez):**

Teatro ekintzaz (eta berdin literaturan pertsonaien eraikuntzaz) geure bizitzak erakusten eta jokatzeko dituzte aktoreek, eta geure buruak definitu bidenabar: identitatea, une historikoa, rol sozialak, mito kolektiboak, krisi psikologikoa, kezka sinbolikoak, dialogo politikoa, boterekeriari kritika, alternatiba aukerak, ziurgabetasuna, bulkada estetikoak, garapen intelektuala, zalantza emozionalak.

Poetak, idazleak, kantariak, aktoreak... baina batez ere pertsonaiak... gure kontzientziaren eta inkontzientziaren historiografoak dira: **mitografoak**. Denboran, memorian eta kulturen irauten duten gizon-emakumeak asmatzen eta gorpuzten dituzte.

Eta hori guztia gutxi balitz, gainera garai bakoitzean gure mintzoa, hizkuntza, sintaxia, signoak nolakoak izan diren erakusten digute: gure beldurrak eta gure desirak hitzetara eta ekintzetara ekarriak.

Horregatik idealizatzen dugu oraindik Shakespeare: aktorea zen, enpresari teatrala, idazlea. Eta zenbat pertsonaia!, zenbat kontraste! Hainbeste dira intrigak eta ugariak ekintzak, ezen alfabetoa bera ere kitzikatu eta berotu, kilikatu eta berpiztu egiten baita.

## **ALGORITMOAZ:**

Spotify, Apple Music, Tidal, Amazon Music, Google Music, Pandora edo Deezer streaming bidezko zerbitzuek abesti laburrak saritzen dituzte: errotazio handiagoa eskaintzen diete. Jende gehiago gatibatzen dute hiru minutuko abestiarekin, seikoarekin baino. (Berdin irratietan).

Abesti laburraren entzuketa errazago errepikatzen da.

Nola kobratzen dute musikariek streaming plataformetan?

Erreproduktzio kopuruen truke. Erreproduktzio bakoitzeko 0,006 euro.

Zenbat eta luzeagoa izan abestia, orduan eta txikiagoa erreproduktzio kopuru eta errepikapen aukera.

Bestalde, streaming plataformek lehentasuna ematen dietenez disko osoei, zenbat eta laburragoak kantuak, orduan eta kantu gehiago kabitzen dira diskoan.

Abestien egiturak eta formak aldatzen ari dira: ekin lehenbailehen estribilloari (azkarren memorizatuko dugun esaldiari), entzuleok lehen hamar segundotan erabaki dezakegu-eta abestiz aldatzea.

Ohioko Unibertsitateak aztertu duenez, 1986tik 2015era bitartean abestien intro- en iraupena %78 murriztu da, ahotsa ahalik eta lasterren sartzearen. Adibidez, Pharrell Williamsen *Happy* kantuan bigarren segundotan sartu da ahotsa!

Era berean, tempoak ere (bpm edo kolpeak minutuko) %4 bizkortu dira.

Musikaren jibarizazio garaian murgiltzen ari al gara?

Algoritmo batzuk elikatzen dihardute musikariek?

Entzulearentzat ordez algoritmoarentzat konposatzen hasi ote dira?

Diskoak entzutetik kantuak entzutera igaro gara, analogikotik digitalera, lp-tik telefonora, musika aukeratzetik algoritmoen playlisten proposamenetara.

Dagoeneko, algoritmoak zeuk baino hobeto daki zein musika gustatzen zaizun.

## ARTEAZ:

Arteak errealtatea imitatzen du. Arteak simulatu eta disimulatu egiten du.  
Milaka eta milaka esaldi eta ideia daude arteari buruzkoak:  
Errealtateak fikzioa gainditzen du, baina arteak errealtatea gainditzen du.  
Denok gara artistak (Joseph Beuys). Dena bihur liteke arte (Marcel Duchamp).  
Artea merkantzia bat da, inbertsio ekonomiko bat.  
Artea ere fikzio bat da.

Zergatik geratzen ote dira batzuk harrিতa edo deskonzertatuta begiratzen diotenean abstrakzio bati, adibidez Mondrianen laukiak edo Rothkoren kolore espazioak? (Eta Duchampen artefaktuak).

Kontakizuna falta ote zaie? Errealtatearen zarata agian? Ikusitakoa hitzetara ekarri ezin bat beharbada? (arte abstraktuaren definizio posible bat: ezin du izan pornografikoa)

Zer gertatzen zaigu abstrakzioaren aurrean? Askotan entzuten dugu:  
“Hori berdin egin lezake nire alabak!”.

Ceci n'est pas une pipe → La trahison des images (1929, Rene Magritte)

Marcel Duchamp → Marchand du Sel / Rose Selavy → Eros c'est la vie

## IRUDIAZ:

Entzuten dugu: gaur egun, ezagutzaren transmisioa egiteko orduan, irudiaren kulturak ordezkatzeko dihardu kultura idatzia.

Eta esan ohi da...

irudi batek gehiago balio du mila hitzek baino,

irudi gutxi batzuek gehiago balio dute mila hitzek baino.

Baina berdin esan liteke (zergatik ez?)...

hitz batek gehiago esaten du mila irudik baino,

hitz gutxi batzuek gehiago esaten dute mila irudik baino.

Esan BAI, esan EZ. Esan ZU, esan NI.

Esazu izen bat: zurea edo maitearena.

Esan: sua, ura, lurra, itsasoa, eguzkia, ilargia.

Esan: maite zaitut. Esan: apurtuta nago. Esan: hil egin naiz.

Hitz gutxi batzuek ez ote dute gehiago esaten mila irudik baino?

Izan ere, zer esaten dugu aurrena?

“Nor zara?” galdetzen dugu; eta izen bat botako digu hark.

Eta han edo hemen, norberaren izena idatzi egin ohi da, bakarrik edo beste baten ondoan.

Izenburua ipintzen zaio koadroari, argazkiari, filmari, etc.

Filmetan, bideoetan, iragarkietan hitzak erabiltzen dira: zuzendariaren izena gutxienez, markaren izena gutxienez, webgunearen helbidea gutxienez, ahots bat gutxienez, etc.

Hitza ezagutza da. Hitza boterea da. Baina berdin esan liteke...

irudia ez da bakarrik ezagutza iturri bat, boterea da baita ere.

Irudiak *jakin* badaki eta *boterea* dauka gainera.

## **INTELIGENTZIAREN KRISIAK:**

Inteligentzia gai da sentitzeko berbarik gabe.  
Musika aditzean halaxe gertatzen zaigu.

Poesiaren eta musikaren, bertsoaren eta musikaren artean lotura hain da estua, ezen kadentzia linguistikoak eta tonalitateak bat egiten baitute maiz musikarekin.

Poesiak musikara eramaten omen gaituenez, tentazioa ere izaten da onartzeko musika goragokoa dela mintzaira baino.

Pitagoras matematikariak esan zuen: **hasieran akordea zen** (harmoniak antolatzen du unibertsoaren egitura).

Joan ebanjelio idazleak esan zuen: **hasieran hitza zen** (logos, esaldia, pentsamendua, diskurtsoa).

XIX. mendearen amaiera aldera baliabide poetikoen krisi bat izan zen. Stephane Mallarme da espresio nagusia. Erromantiko alemaniarrei, lehenago, gustatzen zitzairen esatea musika dela arte gorena, hitzik behar ez duena (itzulpenik ere ez). Eta ideia hori iritsiko zen sinbolismora, eta bestelako abangoardietara ere bai, konstruktibismotik futurismora, dadaismotik surrealismora, abstrakzioraino.

Artista da, harmonikoak sortzen sentikor agertzen den hura: sentsazioen garatzailea. Baina idazleak desesperatzen ari ziren, musikaren antzeko lengoaiak makula gabe batera iritsi ezinik, klixetatik ihesi; sintaxi berri bat aurkitu nahi lukete, errealitatearen konplexutasunak poetika eta estetika berri batez girotzeko.

## **ARAZOAK:**

Zer da arazo bat? (eta zer ez da?).

Arazo erreal baten eta arazoaren adierazpen linguistikoaren artean zer diferentzia dago? Ekuazio baten eta ekuazioak erreferentzia egiten dion errealitatearen artean zer erlazio dago?

Nola konpontzen dira arazoak?

Aktibitate artistikoak, zientifikoak eta eguneroko bizitzakoak neurri oso handi batean linguistikoak direnez, galdera horiek egitea oinarritzeko eta arrunta da gizakiaren historian.

Konpondu, ebatzi, argitu daitekeen huraxe da **problema garrantzitsuena**.

## **IRUZURRAK:**

Zentzumenek iruzurrak egiten dizkigute.

Hizkuntzak iruzurrak egiten dizkigun bezala egiten dizkigute irudiek ere.

Guk orok dakusgun urdin zerua ez da zeru ez urdin (Leonardo Argensola, XVI mendea)

Egiak historikoki eraikiak izan dira; hitz egitea gezurra esatea da (Michel Foucault)

## FILOSOFIAZ:

Sistema sozial honetan abantaila pertsonalez oso arduratuta dago jende asko eta asko. Jabetzak existentzia ziurtatuko digula konbentzitu zigutenez gero, prestigio mailak eta botere mailak irabazten segitzeko ahaleginak ez du neurririk edo mugarik.

Lasterketa bat bihurtu da existentzia, ikaragarria da borroka, lehiaketa hil ala bizikoa: nork gehiago, nor gorago.

**Bizitza egiazkoa** omen da Filosofiaren funtsezko gaia: errealitateari begiratzea **azalekoa eta sakonekoa**, eta esplikatzea egiazkoa dena. Eta filosofoek iradokitzen digute: egiazkotzat daukazuena absurdo bat da, **aurreiritzi multzo bat** besterik ez, zeuen desiren fruitua.

Zalantzak sortzen espezialistak dira filosofoak. Espezialistak direlako aztertzen agerian dagoena eta ezkutuan dagoena (baita ere isilarazia dena, edo erreprimetua).

Filosofoak bere buruari galdetu ohi dio: zer da egiten ari garena eta egin behar duguna, komunitatearen ohiturak obeditzen segitu ala errealitateari buruzko kontzientzia(k) aldatzen asmatu?

Eman dezagun: zer da egin nahi genukeena, ohiturak aldatu eta kontzientziak aldatu eta mundua aldatu?, bai; baina mundua ez denez gizakiarena, munduarena denez gizakia, zer ote da aldatu behar duguna?: mundua ala gizateria?; eta beraz, zer da aldatzea ez dagokiguna?

Eman dezagun... Emakumezkoak gizateriaren etorkizunaz arduratzen ari dira etengabe: haurrez erditzen dira. Baina bien bitartean zertaz arduratzen ari ote dira gizonezkoak? (gerraz eta botereaz agian?).

Eman dezagun... Botereak interesak dauzka helburu. Eta horien artean interes nagusia da boterea ez galtzea (ohiturazkoa bihurtzea boterea). Boterearen interesekiko desinteresa ote da filosofoaren helburua orduan?, ala botereak etengabe nola alda litezkeen asmatzea?, ala kontzientziak aldatzen etengabe laguntzea mundua ez aldatzeko?

Eman dezagun: Botere interesik gabe jokatu behar balu filosofoak, orduan botere interesak dituztenen esku utzi behar al luke gizartea (eta beraz lehia, borroka, lasterketa, jabetza, etc)?

Motzean, filosofoa arduratzen da: dagoenaz eta izan badenaz, eta bide batez badatorrenaz edo datorkeenaz.

Filosofoa **hizkuntzen bitartez** arduratzen da bizitza egiazkoaz. Eta **krisiak** sortzen zaizkio hitzak erabiltzeaz batera. Adibidez...

- zer izan zen lehenago? (oiloa ala arrautza?).
- hitzak daukanak boterea dauka.
- hasieran logos izan zen (logos: berba, esaldia, pentsamendua, intelijentzia).
- mintza ez zaitezkeenaz egon isilik.
- mintzo naiz, gezurra diot (historian barrena eraikia izan delako egia).
- ez dago egiazko bizitzarik gezurrezkoan.

Zer ote da filosofia?

Beharbada, gure **intelijentziak sortzen dizkigun liluren aurkako borroka** hizkuntzaren bitartez.

Eta filosofiaren historia: gizakien *ikuspuntua* transformazioen ikerketa (eta ikuspuntu bakoitzaren hizkuntza transformazioen ikerketa).

## **EUSKALDUNAK ETA ERDALDUNAK:**

*Politikaria* izeneko dialogo bat idatzi zuen Platonek. Eta han kontatzen du, nola ba filosofoen arteko bilkura batean gazte batek izakiak bereizten dituen bi multzotan: **gizakiak eta animaliak**.

Eta orduan Eleako filosofoak (Zenon ote zen?) esan dio: klasifikazioa zuk egin ordez, lertsun edo kurrilo batek egingo balu zure printzipioen arabera, izakiak bereiziko lirateke: **lertsunak eta animaliak**.

Platonek zer abisatu nahi digu horrekin?: kontuz sailkapen absurdoekin, baina batez ere **kontuz ikuspuntuarekin**.

Gogoratu behar dugu greziarrek bereizten zituztela: greziarrak eta barbaroak. Beraz, zer esan nahi du honek?: batzuk sailkatzen ditugula EZ diren horrexen arabera.

Eta absurdoa al da hori? Ez nago seguru. (handi eta txiki hitzak erlatiboak dira)

Euskaraz esaten dugu: euskaldunak eta erdaldunak.

Baina badakigu, bistan da: euskaldun guztiak gara erdaldunak.

Esaten digute: demokratik eta biolentoak.

Baina badakigu, bistan da: biolentoak dira demokratik ere.

## **KONKURRENTZIAZ:**

Talde bakoitzak edo komunitatea bakoitzak bere “kultura” dauka; ez da beti kondizio ekonomikoen araberakoa izaten zehazki, uste izaten dugun bezala.

Esate baterako (eta barkatu hurrengo termino lausoak, barkatu dikotomia): progresista berdinzalea bezain jende xehea da kontserbadore populista.

Bakoitzak bere ikurrak, sinboloak, doinuak, erreferentzia mentalak, autoritate moralak, ideia zentzuzkoak, balore eskalak eta ohiturak dauzka. Kontserbadoreak progresistaren mespretxua sentitzen du eta progresistak kontserbadorearen harrotasuna nozitzen du. **Lehian** dihardute, harrotasunez elkar mespretxatzen.

Desira, objektu (tresna), premia eta asmo berriak sortu ahala, noizbait kontestuak eta joko zelaiak aldatu ahala, erreferente sinbolikoak forma ezberdinez azaldu ahala... taldeak (batzuk zein besteak) bigundu eta birmoldatu edo disgregatu egingo dira, bestelako talde batzuetan multzokatzeko; eta orduan ere batzuek besteen harrotasunaren mespretxuak sentituko dituzte.

Oharra: batzuek zentrokatat dute beren burua, moderatuak deitura hartzen dute eurentzat. Esate baterako: dibortzioaren eta abortuaren alde dauden kontserbadoreak, edo ekonomian konkurrentzia askearen alde dauden sozialistak.

Debaterako gaia: kontserbadorea al da ekologista?

Debaterako gaia: demokraziaren aldekoak al dira neoliberalak?

Merkealdiko oharra: arlo guztietan izaten da lehia: biologian, geologian, hizkuntzen artean, ekonomian, teknologian, filosofian, kulturean...



## PARADOXAK:

Haurdun dago Nafarroako erregea.  
Atzora bidaia dezakegu bihar.  
Gezurra esaten dut beti.  
Hil egin ninduten.

Antilogia ere deitzen zaie paradoxei. Politak, arraroak izaten dira. Beste alor batzuetan ere badira paradoxak: logikan, matematikan, geometrian, fisikan, ekonomian, eta abar.

## OILOA ALA ARRAUTZA?:

Zer izan zen lehenago?  
Aristoteles esan zuen oiloa izan zela.  
Esplikatu zuen: lehenagokoa da beti gaurkoa, bihar izan litekeenaren aldean.

David Papineau filosofo britainiarrak dio arrautza izan zela.  
Honela esplikatu du: arrautza bat oilo-arrautza da, baldin eta barruan txita badauka. Berdin, beraz, kanguro batek arrautza bat ipiniko balu eta barrutik ostruka bat aterako balitz, orduan ostruka-arrautza izango litzateke (eta ez kanguro-arrautza).

Budistek eta Amerikako indigenek Denboraren Gurpila kontzeptua dute, itzuli eternoa, ziklikoki errepikatua. Beraz, ez da sekula lehenik izan, eternoa da izatea, lehenik gabea, ez baita ezer sortua izan, dena existitu izan da (eta ziklo bakoitzean hobetu egiten da, pixkanaka perfekziorantz).

Niri gustatzen zait esatea:  
oiloa eta arrautza, biak dira bat; eta bat bitan erditzen da.

(gauzak itzala du, eta biak dira bat)  
(hitza eta isilunea, biak dira bat)

## SOINUA ETA ZENTZUA:

Zer izan zen lehenago, soinua ala zentzua? (ez ote dira biak bat?)  
Irakurlearentzat edo entzulearentzat aurrena soinua dator, eta segituan ematen dio zentzua (ia automatikoki).  
Baina ordena horretan ala alderantziz izan da poetarentzat edo musikariarentzat? Bietara beharbada (bidirectional). Batera ziur aski (simultaneously).

Ekuaziorik ba ote dauka? Agian:  $sound \times sense = s^n$   
Izan **zehatza** syntaxian, solidoa; izan **anbigua** zentzuan (multiplea), likidoa.

## AKABO:

eta halako batean... xarma galdu nuen,  
esperotakoa baino gutxiago emateagatik  
edo esperotakoa gehiegiz betetzeagatik,  
kontestutik kanpo geratu nintzen.

epilogoa

## EDERRAREN FORMAK:

Nire ustea da: artista izan nahi du mundu guztiak. Horrekin ez naiz esaten ari, mundu guztiak idazlea izan nahi duela, edo bertsolaria edo kantaria edo musikaria edo dantzaria edo aktorea edo zinegilea edo pintorea. Ez. Esan nahi dut, mundu guztiak ondo egin nahi dituela gauzak, edertasun formaren batez, atsegintasun suerte batez... elkarrekin egoteko, elkarri esateko, elkarri eskaintzeko.

Desira bat da, borondate bat da; bulkada bat, joera bat. Denok duguna.

Presenteari era sortzaile batez erantzuteko desira edo borondate moduko bulkada bat daukagun arren, mundu guztiak ez du izan nahi filosofoa edo iraultzailea, matematikaria edo giza fotosintesiaren asmatzailea.

Apal adierazita: Baratzeak bezala belardiak eder egon daitezen ahalegintzen gara. Arrantzaleak ontzi dotore batean joan nahi du itsaso zabalera, eta txukun bezain praktikoa prestatzen du dena. Platerak edo altzariak, bazkariak edo etxeko txokoak politikak eta gustagarriak izan daitezen nahi dugu. Jantziak edo elektrotresnak, kaleak edo zubiak, eskola edo fabrika, automobila edo hegazkina, argiak edo soinuak ederrak izan daitezen diseinatzen ditugu. Geuretzat eta denontzat.

Ohe eroso bat, konputagailu azkar bat, begi distiratsu batzuk... Denak dauka diseinu bat, bere gisakoa baina eder eta atsegintasun suerte batekoa. Denak dauka lengoia bat, egitura bat, forma bat, funtzio estilistiko bat, sistematizazio bat, sintaxi bat, distira bat..., diseinu bat munduan izateko eta jokatzeko.

Animaliak eta landareak, errekek eta mendiak, hodeiak eta elurrak, denek diseinu espektakularrak daukate.

Hegaztiekin hegan egiteko diseinua daukate, borondate baten ondorioz ziur aski.

Eta harriek eta kristalek ere ederrak izateko joera dute, formazio eta egituratze estrainio bat, borondate berezi bat balute bezala: bulkada bat... eta beraz joera bat... hobeak izateko, orain edo gero.

Horixe da niretzat hitza (mintzoa, esaldia): **bulkada baten, desira baten, borondate baten ondorioa...** *hegan* egin ahal dezagun; izan gaitezen atseginak, maitatuak, kooperatiboak, sortzaileak, aerodinamikoak.

Artista izan nahi du mundu osoak, hori da nire ustea. Gaueko izarrek, adibidez, nire alabak eta bere lagunek.

Diamante batek gehiago irauten du hiriburu batek [Parisek] edo zibilizazio batek baino; garai guztietatik independentea bihurtzeko asmoa du perfekzio borondateak. Paul Valery, 1931

## ZALDIA (izendatzeaz)

forma, funtzioa, eragiketa, ondorioa, rola

- Zer ikusten ari gara? Egur zati bat.
- Zaldi baten buruaren itxura dauka.
- Eskultura bat ote da? Fetitxe bat? Totem bat? Xakeko pieza bat da.
- Ez da zuria, baina zuria deituko diogu, edo beltza deituko diogu; zergatik?: zuriak eta beltzak badirela badakigulako. Egur modelatu honen kontestua ezaguna egiten zaigu.
- Ikur bat da egur zati hau, erdi ikonoa eta erdi sinboloa. Konbentzio bat da beraz, hitzartutako zeinu bat, araututakoa.
- Zer egiten du? Forma bat duenez, funtzio bat dauka; mugimendua dauka, eragiketa aukera dauka. L formako mugimendua du xakeko taulan; jauzi egin dezake beste pieza baten gainetik (oztoporik gabe).
- Rol bat du: beste batzuen artean bizi da, gerran, fikziozko gudu batean, norgehiagoka jokoan, non erregea defendatzea den (eta errege arerioa garaitzea) gauza guztien gainetik helburua.
- Orain dela 25 mendeko Indiako armada irudikatzen dute xakeko piezek, eta zaldiak (ashwa sanskrito hizkuntzan) zalditeria irudikatzen du.
- Dorrearen eta alfilaren aldamenen kokatzen da hasieran zaldia, eta hiru peoi izaten ditu aurrean. Zaldia mugitzen denean, koadro zuritik beltzera aldatzen da beti, eta beltzean badago zurira beti.
- Balio bat du: peoiak baino balio handiagoa du, hiru aldiz handiagoa, baina alfilak baino pixka bat txikiagoa.
- Jokoan zaldi zuria lehena izan liteke gerra abiatzen (zergatik ez beltza?), edozein peoi mugitu baino lehen alegia, peoien gainetik salto egin dezake-eta.
- Nola dakigu zaldi zuria dela, eta ez dela behor zuria? Errege-erreginek generoa dute, baina zein genero ote dute beste piezek?

Egur zati bati zaldi forma ematean eta zaldi izena ematean zer egin dugu?

**Izendatu** eta **modelatu** → prestatu, noizbait **funtzionatzen** ipintzeko.

Ludwig Wittgenstein filosofoak (*Ikerketa filosofikoak* liburuaren 49. puntuan) honela dio: “Izendatzea eta deskribatzea ez daude maila berean. Izendatzea prestaketa bat da deskribatzeko. Izendatzea ez da oraindik jokaldi bat hizkuntzaren jokoan (xake pieza bat taulan kokatzea jokaldi bat ez den bezala xake jokoan). Gauza bat izendatzean oraindik ez da ezer egin”.

Eztabaidagarria da oraindik ezer egin ez denik izendatzearekin; baina bistan da garrantzitsuena dela egiteko daukana, proiektatu dezakeena; hau da: **nola erabiltzen da hitza** (zaldia): **esaldian** (jokoan) **nolakoak** izango ditu **funtzioa, mugimendua, eragiketa, rola**.

Eta zein da **erreferentzi markoa**?: taula, joko zelaia, gudu zelaia. Zer dago jokoan?: marko horren barruan operatzen diren... arauak (**sintaxia**), mugimenduak (**esaldia**), jokaldiak (**diskurtsoa**), estrategiak (**estiloa**), prestigioa (**autoritatea, aintzat hartzea**).

Ak mugitzen du pieza bat aurrea eta ondoren Zk; hurrenez hurren, txandaka (**dialogoan, alternantzian, dialektikan**).

**Ondorioa** du jokoak: bi asmoren, bi espresio antagonikoren artean nor da gehiago: zentzuduna, arrazoizkoa, argia, irudimentsua, bizkorra, ausarta, zuhurra, logikoa, egiazkoa, aproposa, erregularra, praktikoa, trebea, prestua, burutsua, nagusia.

**GORRIA**  
**AL ? DA**  
**BERDEA**

forma, funtzioa, eragiketa, mugimendua, ondorioa...  
gorria + berdea → horia

Bereizi egiten ditugu gorria eta berdea [daltonikoak ez].

Patata tortilla mozten dugun antzera, gurpil bat margotuz gero hiruki gorritz eta berdez, eta gorritz eta berdez, bereiziko ditugu hiruki gorriak eta hiruki berdeak, eta zenbat diren. Eta esango dugu gurpila dela: gorri-berdea.

Gurpil hori bizi-bizi biraraziz gero, zer esango dugu?  
Horia edo beilegia dela gurpila.

Gurpila geldi dagoenean era batekoa da, eta gurpila biraka dabilenean beste era batekoa da; egoeren, funtzioen, kontestuen arabera da gurpilaren kolorea, gurpilaren izaera, gurpilak esaten diguna.

Gauza bera gertatzen da hitzekin.

Hitzak bakarka daudenean, bakoitzari adiera bat emango diozu, zeure gisara balioz beteko duzu bakoitza: maitasuna, esnea, poza, gezurra (zuk zeure ideia hitz bakoitzarentzat, eta nik neure ideia; zurea eta nirea batzuetan antzeko samarrak).

Aukeratu dituzun hitz horiek esaldian edo jokoan funtzionatzen ipinitakoan, bestelako ideia batzuk forma hartzen hasiko dira zure gogoan.

Eta horixe da, batez ere, garrantzia duena: **jokoa...** eta jokoaren bidezko **eragiketak**, hitzak esaldian; eta **ondorioa(k)** edo adiera(k).

**Xake taulako koloreak** (kontestuaz): 32 koadro zuri eta 32 koadro beltz daude xake taula batean; dena 64 koadro beraz; 32 koadro zuriak beltzez margotuko bagenu, orduan zenbat koadro edukiko genituzke dena?

→ bakarra eta beltza; edo nahi bezainbeste, baina beti 4 ber x = 4, 16, 64, 256, 1024, 4096, etc

## **BURGESIA (des-izendatzeaz)**

### *La burguesía como sociedad anónima*

Roland Barthes

Cualesquiera sean los accidentes, los compromisos, las concesiones y las aventuras políticas, cualesquiera sean los cambios técnicos, económicos o aun sociales que la historia nos aporta, nuestra sociedad es todavía una sociedad burguesa. No niego que en Francia, desde 1789, se hayan sucedido en el poder varios tipos de burguesía; pero el estatuto profundo **permanece**: determinado régimen de propiedad, determinado orden, determinada ideología. Ahora bien, en la denominación de ese régimen se produce un fenómeno notable: **como hecho económico, la burguesía es nombrada** sin dificultad: el capitalismo se profesa. **Como hecho político, no se reconoce** a sí misma: no hay partidos “burgueses” en la Cámara. **Como hecho ideológico, desaparece** completamente: la burguesía ha borrado su nombre al pasar de lo real a su representación, del hombre económico al hombre mental. Se acomoda a los hechos, pero no se integra con los valores, le inflige a su estatuto una verdadera operación de **ex-nominación**; la burguesía se define como **la clase social que no quiere ser nombrada**. “Burgués”, “pequeñoburgués”, “capitalismo”, “proletariado”, son los sitios de una hemorragia incesante: fuera de ellos el sentido se derrama, hasta que el nombre se vuelve inútil.

artikuluaren hasierako zati bat

*Les lettres nouvelles* aldizkarian 1956an argitaratua  
eta ondoren *Mitologiak* liburuan bildua 1957an

## OBJEKTUAK

- xakeko zaldi egurrezkoa
- poltsa paperezkoa (“ez begiratu barruan” esaldiarekin)
- arrautza kaxa kartoizkoa (dozena erdia, hutsik)
- txanpon bat airera bota (biraka)

**signifikanteak dira objektuak**, sistemak dira, autoritatea ematen zaie (edo ukatu); morfologia bat daukate, biologia moduko bat, edo ergonomia; eta historia daukate baita ere, karga genealogiko bat, ideologikoa ere bai agian; funtzio bat dute objektuek, tresnak dira, erabilgarriak.

- Felipe Murillok burdin puska bat ekarri digu: **diapasoia**  
John Shore tronpetista eta militar ingelesak asmatu zuen XVIII. mendearen hasieran 440 hertzeko frekuentzia airean, 650 hertz urpean  
Burdina funtzioan ipini zuen Felipek, eta diapasoiak tonua eman zigun  
Beti LA ematen du diapasoiak; ederra burdina!

- **La trahision des images**, Rene Magritte-ren koadroan (1928) ikusi ditugu: arrautza, zapata, kapelua, kandela piztuta, basoa hutsik, mailua (seiak leiho bateko koadro banatan sartuta); eta irudi bakoitzaren azpian hitz bana, itxura batean batere harremanik gabeak objektuekin; irudietako batzuk zuriak dira, beste batzuk beltzak; irudi batzuk zutik daude, besteak etzanda edo inklinatuta; xake taula bateko piezak dirudite?, rol bat ote daukate?; irudiak eta hitzak istorioren bat kontatzen ari ote zaizkigu emakumezko eta gizonezko baten harremanari buruz?

## ZER OTE DA MAGIA?

Urriaren 5ean, larunbata, nire azken eguna izango da zuekin eskolan.  
Eta desagertu egingo naiz.  
Egun horrextan Magia Eguna izango da Azpeitian: *Txisteratik*.

Diskurtsoa da magia: kontakizuna.  
Akzioa da magia: eragiketa.

Eskuak eta keinuak, hitzak eta ekintzak.  
Sekretua du magiak, suspensea, emozioa.  
Harritu eta hunkitu egiten gara fikzioaren eta errealitatearen artean kulunka.  
Hementxe dago... eta orain ez dago... ez da eta bada.

Naturaz gaindikoa dirudien horri esaten diogu magia.  
Gaitasun bereziak eta txundigarriak dituenari esaten diogu magoa.

Imitatu, simulatu eta disimulatu egiten du magiak.

**Agerikoa eta ezkutukoa** ipintzen ditu **jolasean**:

tresnak eta sinboloak,  
mekanika eta fisika,  
antzerkia eta poesia,  
efektua eta ulergaitasuna.

Kendu eta jarri egiten du magiak, biderkatu eta zatitu.  
Irrealasuna, amarrua, aztikeria, trikimailua, azpijokoa, jukutria, lilura, haluzinazioa.

Magiak erlazioan ipintzen ditu imajinazioa eta artefaktua, umorea eta manipulazioa.  
Eta errepikatu egiten da eragiketa: **errepikagarria delako da originala**.  
Errepikatzea gustatzen zaigu: “Egin berriz!”, esan ohi diogu magoari.

### **DENBORA (eta distantzia):**

—Zenbat eta **luzeago** iraun (edozerk: eztabaidak, maitasunak, gorrotoak, festak, lasterketak, konfliktoak, kontakizunak), orduan eta **urrunago** amaiera.

—**Denboraren formak** diferenteak dira: dilatatu egin liteke, edo laburtu; baita ere barreiatu, edo eliditu. Elastikotasuna du denborak.

—Denbora neurtzen dugunean, berez neurtzen duguna **distantzia** da: egoera batetik besterako distantzia, puntu batetik besterako distantzia, esaldi batetik besterako distantzia, etc. Nukleo batetik beste nukleo baterako **distantzia erlatiboaren arabera da denbora**.

—Adibidea: Hiru kilometroko distantzia beti da erlatiboa denbora neurritan, esate baterako ordeka izan edo aldapa; Atik Brako distantzia eta Btik Arako distantzia-denbora ezberdina da aldapan, ezberdina delako abiadura gorantz eta beherantz. Adibidea: Egun baten kontakizuna egin liteke milaka esaldiko nobela batean edo bi esaldiko whatsapp batean. Adibidea: Egun bat neur liteke, lurra bere ardatzean biraka mendebaldetik ekialderantz, 40.000 km-ko zirkunferentziarekin, izar bat erreferentzia hartuta, honela: bira bat = 23 ordu 56 minutu eta segundo gutxi batzuk dira; eta beraz 1.600 km orduko abiadura ekuatorean, baina zero ipar poloan.

—Distantziaren perspektibaren arabera, distantzien arteko abiaduraren arabera, halakoxea da **denboraren elastikotasuna**.

—Ez da lehenago iristen bizkorren doana, nora doan badakiena baizik. Eta nora doazen badakitenen artean, orduan bai, distantzia erlatiboa bizkorren zeharkatzea lortzen duena iristen da lehen.



## KONSTRUKZIOAZ ETA KONPOSIZIOAZ (zalantzan)

- horizontalak** dira perpausa, ekuazioa, frase melodikoa (ezkerretik eskuinera gure kulturari); **a/ iraupen** bat dute (krono-), iraupenez okupatzen dute espazioa;
- b/ posizionalak** dira, osagaiek (hizkiek, zenbakiek, notek) toki hau edo bestea hartzen dute denboran; **c/ denborazko eragiketak** dira perpausa, ekuazioa, frase melodikoa.
- sintaxiak** zer egiten du frase batean?: **denbora menderatu**, harrapatu, iradoki, definitu, iragarri, erakutsi, salatu; denboraren **kaptura** eta erritmoaren **sekretua** ote daude sintaxian?
- bertikala da estiloa**; dena zeharkatzen duen zera hori da estiloa (“maniere” italieraz / “ta maniere de vivre” frantsesez / “a manner of doing” ingelesez); metafora baten moduan funtzionatzen ote du estiloak?; memoriaren antzera, dena zeharkatzen du estiloak, sekretu batek edo suspense batek dena zeharkatzen duen bezala.
- hizkuntzazko **gorputz baten** historiaren...
- a/** agerpen **forma** bat eta **b/** egiteko manera bat dira estiloa.
- objektuak ere badute sintaxi moduko bat: sistema bat definitzen dute objektuek, eta erakutsi, salatu, iradoki, iragarri egiten dute; diseinua dute, erabilera bat, estiloa; gorputz bat daukate objektuek, eta geometrikoak dira.
- geometria** batzuk dira kontakizuna, bertsoa, abestia..., eta egituraz egitura osatzen dituzte beren gorputzak; simetria batzuen bitartez garatzen dira kontakizuna, bertsoa, musika pieza (hala dirudi behintzat); simetriak laguntzen du organismoen mugimendua (tresnen mugimendua ere bai); simetriek eta desplazamenduek, horizontalek eta bertikalek, errotazioek eta translazioek... funtzioak dituzte, eta eragiketez organikoak bihurtzen dituzte ideiak zein objektuak.
- erritmoa**: bi eratak ote da?: horizontalki abiatzen da eta bertikalki garatzen da?
- erritmoaren sekretua** eta **denboraren kaptura** dira kontakizuna eta musika pieza; isiltasunaren espazioan eta denboran ibiltzen dira esaldi erritmiko horiek, isiltasunari (ez-soinuari, ez-memoriari, heriotzari?) ihes egiten edo kontrastea egiten, bizitzari luzapena eta suspensea ematen.
- aditzak** mugitzen ditu izenak, aditzak egiten du **palanka** izenen artean, aditzez egiten ditugu **operazioak**: gehi, ken, bider, zati, berdin, eta abar.
- ez dugu hizka pentsatzen, **esaldika** baizik (perpauzez); beraz, funtsean, adizka pentsatzen ote dugu?
- biologia** du soinuegileak (mintzalariak, kantariak, musikariak); organismo konplexu bat da esaldia; organizatuta dago: formak organikoa bihurtzen du ideia, eta formak funtzioa du, eta eragiketak ondorioa dakar; **fenomeno germinatibo** bat da estiloa.
- historia** du soinuegileak, biologiarekin batera; eta historia bat dute hitzek (eta esaldiek): antzinatasun bat, “karga” bat, ideologiaren metaketa, borroka eta amodioak, menderakuntza eta askatasun ahaleginak, klaseak, etc; historikoki eraikiak izan dira hitzen esanahiak eta esaldien sintaxiak (eta halaxe ikasi ditugu), beren “kargarekin”.
- linealak dira esaldia eta melodia, baina lerroen baturak baino askoz gehiago dira kontakizuna eta pieza musikala: **konposizioak** dira, **geometria konplexuak** dira, **haziak** dira (fenomeno **germinatiboak**); eta haziak sekretu bat du gordean, mehatxu bat, promesa bat, bulkada bat..., garatzeko enigmaren taupadak, sortzeko gauza harrigarriak, iragartzeko ideia zirrargarriak, kitzikatzeke portaerak, pizteko fruituaren egarria, igarotzeko izaera batetik beste izaera batera (galdera batetik erantzunera, eta ondoren erantzun honetatik hurrengo galderara noizbait, eta berriz ekin eta berriz jarrai).

## TOPATU eta SEGITU

Esaldi batekin abiatu eta... poema bat edo kantu bat edo musika pieza **egin**:  
konstrukzioa eta konposizioa.

**Topatu** egingo duzu esaldiren bat, bai, baina beste guztiak egin egin beharko dituzu, eta sistema bat egituratu (gorputz bat).

Irakurleek eta kritikariek osotasun bati buruz jardungo dute ondoren, noski, kontuan hartu gabe autoreak izan dituen **arazoak**: soinua, erritmoa, kadentzia, tonua, konbinazioa, geometria, zehaztasuna, kontrastea, multiplizitatea...

Hasieran (bat-batean edo ustekabean agian) topatutako esaldi horren mailan beste esaldi guztiak konstruitzen eta konposatzen **segitzea**, hori da kontua (hori da arazoa); gorputz solido baten organismoa sortzea, baina hegan egiteko gai izango dena.

**Festa bat** izan behar luke poemak (jolas bat), eta bukatutakoan ez da ezer geratuko: hautsa, ardo zipriztin batzuk akaso, konfetiak edo lore hostoak lurrean.

## MIKEL LABOA EZ DA HIL

“Mikel Laboa hil da” esandakoan (2008ko abendua), esan genuen hil egin zela izen bi horiek zeuzkan pertsona, baina ez zen hil, noski, izenen esanahia; hor dira geure baitan Laboaren kantuak eta kantariak ditugun oroitzapenak, hamaika urte geroago ere.

Absurdoa izango litzateke izenak esanahia izateari uztea pertsona hildakoan (Wittgenstein, *Ikerketa filosofikoak*, 40. puntua); alegia: izenak esanahia galduko balu pertsona hiltzeaz batera, “Mikel Laboa hil da” esaldia ez litzateke ulergarria izango.

Zer ondorio atera dugu? Gutxienez hau: Gernikako Arbola deitzen diogun haritza ihartzez hildakoan, ez da Gernikako Arbola hilko haritzarekin batera; sinbolo bat da, adostutako ideia eta proiektu baten nominalizazioa, asmo eta helburu bat dauzkana (eta Jose Mari Iparragirreraren zortzikoa, 1853).

Gisa berean, Mikel Laboa deitura zuen pertsona hil egin zen arren, bizirik da musikaria, sinbolo bat da, kantu askok eta kultura aro batek osatzen dute guretzat.

Beste era batean: Lluís Llachek kantatzeari utziko ziola esan zuenean (2007), tristura moduko bat egin zitzaigun, hunkitu egin ginen, baina ez genuen zalantzarik egin bere kantuek hor segituko dutela jende askoren gogoan eta ahotan. Orduan ez genuen esan “Lluís Llach hil da”, nola ba!

Beraz, bagenekien, “Mikel Laboa hil da” esan genuenean ez zirela bat-batean kantaria eta bere kantuak hil.

Zer esaten ari ginen? Forma sinplifikatu batez, gure doluminak; eta aldi berean ekitaldi dei bat, premia batzuk: agurtzea, ohoratzea, maitasun adierazpena, elkartasuna, gorazarrea, erritua, bakea.

Laster, hizkuntzaren bat hildakoan, nola esango dugu (edo dute)?

Esatekotan, beste hizkuntzaren batean.

Adibidez: basque language has dead at the age of...

Edo, arrantzatzez eta kutsadura mota ezberdinez, balea guztiak hilez gero, nola esan behar genuke? Zer axola luke Wittgensteinen *Ikerketa filosofikoak* liburuko 40. puntuak? Eta zer axola baleei buruzko dokumentalek, liburuek eta kantuen grabaketek?

*Dolua*, egokitzapen eragiketa bitxi hori:

1/ norbait hiltzat emanez, estimua aitortu (agur eta ohore);

2/ geure buruari baimena eman, hildakoa hiltzen segitzeko (edo bizi dena ahazteko);

3/ efektua eta afektua ibiturik (bakea), ehortzitakoaren (edo baztertutakoaren) absentzia bestelako sentipen (balio eta interes) batzuek bete (ordeztu).

## TAKE FIVE

### The Dave Brubeck Quartet

musikaren egilea: Paul Desmond (saxo jotzailea)

konposizioaren urtea: 1959 uztailen grabatua New Yorken

telebista grabazioaren urtea: 1964, Brusela

Zer ikusi eta entzun dugu?

Melodien, erritmoen eta isiluneen konbinazio bat

Elkarrizketa bat izan da: doinuen artekoa eta tresnen artekoa

Denak batera eta txandaka eta bakarka aritu dira, elkarrizketa batean bezala

Elkarri keinuak egin dizkiote, elkarri entzuten egon dira

Begiratuen bidez eman dituzte txandak, eta modulatu dute elkarrizketa

Musikariak dira protagonistak, instrumentistak

Gizonezkoak dira denak, % 100

3 txuri eta beltz bat

3 txuriak betaurrekodunak dira

3 txuriek bakarkakoak jotzeko aukera izan dute, beltzak ez

(musikari txuriak hil ziren, beltza da gaur egun bizi den bakarra)

USAko amerikarrak dira, baina Belgikan jotzen ari dira grabazioan

Begikako telebista da grabatzailea, errotulazioa irakurtzean ohartu gara

Errotuluetan bakarrik ditugu hitzak: izen propioak eta bakoitzaren lana (esaldirik ez)

Irudiak txuri-beltzezkoak dira, telebista txuri-beltzezkoa zenekoak

Telebistarako grabatua izan da: masa hedabidea

Jazz musikaren ardatza Frantziara aldatu zen Bigarren Mundu Gerraren ondoren

Parisen lehen jazzaldia egin zen 1948an, gero musikariek Parisera emigratu zuten

Arrazismotik ihesi, herrialde moralez "libre" batera egindako bidaia moduko bat da

Adibide nabarmena: Miles Davis eta Paris

Jazz musika da

Instrumentala izan da (ez kantatua)

Musikak ez du itzulpen premiari (matematikaren hizkuntzak behar ez duen bezala)

Itzulpenik behar ez duelako ulertzen dugu

Hala ere, pixka bat berezia eta ezohikoa da konpasa: 5/4

Azentuak dira: fuerte-apal-erdi-apal-apal & fuerte-apal-apal-erdi-apal

Guri ez zaigun arrotza egiten, 5/8 zortzikoaren hurbilekoa da-eta 5/4

Euskal dantzetako *banakoa* dantza liteke, beraz, 5/4 konpas horretan

Konposizioaren izenburuak, *Take Five*, konpasari egiten dio erreferentzia (5 kolpe)

Jazz musikaren interpretazioa nolakoa da?: orekatua eta zehatz egituratua

Standar bat da, orekatua, ez guztiz inprobisazioari emana, musika "klasikoaren" pare

Jantziak ere standar moldekoak dira: orkestra batekoak, quartet batekoak

Traje iluna, alkandora zuria eta gorbata (tximeleta orde)

Orrazkerak ere halakoxeak dira

Standar sozial bat erakusten eta errepresentatzen dute

Garai bat, kultura bat, bizimodu bat errepresentatzen dute

Interpretazio bat izan da, baina elkarrizketa bat ere bai

Interpretazio bat izan da, baina antzezpen bat ere bai

**IT DON'T MEAN A THING**  
**If It Ain't Got That Swing**

musika: Duke Ellington (piano jotzailea)  
hitzen egilea: Irving Mills  
konposizioaren urtea: 1931, eta 1932ko otsailean grabatua New Yorke  
telebista grabazioaren urtea: 1965  
kantaria: Ella Fitzgerald

Zer ikusi eta entzun dugu?

Emakumezkoa kantari gizonetzko pianista batekin  
Atze-atzean, inguruan, ilunpetan: musikarien banda bat, 14 gizon  
Denak beltzak dira (bateria jotzailea ote da txuri bakarra?)  
USAko amerikarrak dira

Protagonista kantaria da: erdian eta aurrean dago, lehen planoak ere izan ditu  
Ahotsaren eta pianoaren arteko solasaldiren bat izan den arren,  
ahotsaren kolore guztiak askatzeko bertsioa egin dute

Abestiaren hitzak kantatu ditu Ella Fitzgerald, eta ondoren  
ahotsa musika tresna baten antzera erabili du pasarte askotan  
Piezak 2:30 minutu iraun du eta kantua bete du denbora zati handiena  
Pieza hasieratik abiatu da kantuan eta kantuan amaitu da  
Pianoaren bakarkakoak 25 segundoko iraupena izan du

Birtuosismoa, energia, abiadura, alaitasuna, arrakasta... hori da giroa  
Pieza hau askotan abesten zuen Ella Fitzgerald,  
hala ere haxe izango da abiaduraz bizien interpretatutakoa, eta denboraz laburren  
(Pieza honen 7 minutu pasatxoko bertsioak kantatzen zituen gehienetan Ellak)

Ella jantzi luze ilun baina dirdaitsuz eta Duke jaka argiz  
Ella perlazko idunekoz (urte haietan ohi zuen bezala) eta Duke gorbata gabe  
Ella oso espresiboa eta erritmikoa da eskuez (beti izan zen halakoxea)  
Gorputzez dantza ere egin du ia Ellak  
Pianotik altxatu eta bukaera-keinu kementsu bat egin du Dukek  
Musu batekin amaitu dira irudiak: Dukek Ellari musu, esker onez

Irribarrez eta atseginez agertu dira/dituzte Duke eta Ella  
Emotiboa da ikuskizuna, nahiz eta  
telebistako grabazio bat izan eta potekoak izan txaloak

Ez dezagun ahanzi USAko testuinguru historikoa eta soziala 1965 urtean:  
USA gerra egiten ari zitzaion Vietnam; 1963ko martxoan Martin Luther Kingek  
“Amets bat dut” hitzaldia egin zuen 250.000 lagunengana; 1963ko apirilean Luther  
King berriz ere atxilotu egin zuten; 1964an Bakearen Nobel saria eman zioten; 1965ean  
Boto Eskubidearen Legea onartu zen, ez diskriminatzen segitzeko boto afroamerikarra;  
eta 1968ko apirilean hil egin zuten Luther King